

The background of the cover features a warm, orange-toned landscape. In the foreground, a large, weathered stone statue of a seated figure, possibly a deity or a historical figure, is the central focus. The figure has a serene expression and is wearing a long, draped garment. The background shows rolling hills and a dark, silhouetted mountain range under a bright, hazy sky, suggesting a sunset or sunrise. The overall mood is contemplative and historical.

Amarekin
topo

Felix Zubiaga

AMAREKIN

TOPO

FELIX ZUBIAGA

© Felix Zubiaga Legarreta

Azalaren diseinua eta maketazioa: Felix Zubiaga Legarreta.
Azala: AURRADA: Cerro de los Santos-ko Dama jesarria eta hemen
Anbotoko mendi eta lainoen artean islatua eta Ama Jainko oroigarritzat ederretsia, gure aurretikoen Mari antzera.

ekoizpena: Erroteta

ISBN: 978-84-92413-95-9
Lege Gordailua: SE-8717-2011

Inprimaketa: Publicaciones Digitales, S.A.
www.publidisa.com _ (34) 954583425 (Sevilla)
Liburu honen bertsio elektronikoa, deskargatzeko:
<http://www.todoebook.com/Erroteta/>

Autorearekikoa (para dirigirse al autor)
Teléfono: 94 673 04 86./48340-Amorebieta, Orue (Bizkaia)
edo fzubiaga@orue.biz

AMAREKIN

TOPO

FELIX ZUBIAGA

AURKIBIDEA

SARRERA.....	9
I. UMEZURTZ KONPLEXUA.....	11
1.1. Euskara amaren hiletak.....	11
1. 2. Euskara amaren bila.....	12
1.3. Euskara amaren eskola.....	15
II. EUSKARAREN NORMALIZAZIOA.....	19
2.1. “Gogorra izango da askatasun eguna”.....	19
2.2. Euskara amaren ondarea.....	22
2.3. Euskal idazle eta irakasle.....	24
III. TOKIZENEN ATZETIK.....	28
3.1. Euskara ikerlanean.....	28
3.2. Mitoen garatzetan.....	30
3.3. Tesiaren gidari bila.....	32
3.4. Mitokritikatik mitoaztertzerara.....	35
3.5. Antxinako Sortale Hurbileko jakinduriaren lorratzetan....	38
3.6. Antxinakoen maite jakinduria.....	42
3.7. Ukipen linguistikoak.....	47
IV. EUSKERA IKERKETAN EDO <i>ELEIKER I</i>	50
4.1. <i>Vascuence y mitoanálisis (2000)</i>	50
4.2. <i>Euskararen ereduak</i>	55
4.3. <i>Jainkoa eta gizakia euskararen oroitzan</i>	58
4.4. J. M ^a . Satrustegirekiko topagune bat.....	64
4.5. <i>Euskal mito erritoak eta euskara</i>	66
V. EUSKERA IKERKETAN EDO <i>ELEIKER II (2002)</i>	70
5.1. Diru-laguntza bila Aldundiara.....	72
5.1.1. Egitasmoak: Euskararen egitura eta jatorria ikertu.....	72
5.1.2. Mitoazterketaz euskararen jatorria azaldu.....	72
5.1.3. Mitoazterketa metodoa.....	73
5.1.5. Euskara, hermeneutika berria.....	75

5.1.6. Euskararen jatorrizko oroitzaz jabetu.....	75
5.2.2. Helburua: Euskararen giltzaz baliatu.....	76
5.2.1. Euskararen europeartasuna ozenkatu.....	76
5.2.2. Asmoak eta lorpenak.....	77
4.3. <i>Apellidos y nobleza</i>	77
5.4. <i>La onomástica, óido de la prehistoria o el vasco-europeísmo</i>	80
5.5. <i>Analogía, arte del lenguaje, según el vascuence</i>	82
5.6. Theo Venneman eta Europa euskaldun-ohia.....	83
VI. EUSKARA IKERKETAN ELEIKER III (2003)	85
6.1. Urteko egitasmoetarako urtebarrikari.....	85
6.2.1. <i>Antigo Testamento del Vascuence</i>	87
6.2.2. Labayrukoei goraintziz.....	88
6.2.3. <i>Euskararen jakinduria</i>	89
6.2.4. <i>Euskara mito bizia</i>	92
VII. EUSKARA IKERKETAN ELEIKER IV (2004)	96
7. <i>ELEIKER-2004</i> urteko egitasmoa.....	96
7.1. <i>Origen y desarrollo del lenguaje, según el vascuence</i>	96
7.2. <i>Zuzentza eta eskubideak euskararen oroitzan</i>	98
7.3. Elkarteko egitasmoa eta Eleiker.....	99
7.4. Internet Foro unetako lana.....	101
7.5. Euskararen Jatorriaren I Biltzarra (20.11.2005).....	102
VIII. EUSKARA IKERKETAN ELEIKER V (2005)	104
2005 urteko egitasmoan hizkuntzaren parte den psikologia urratu nuan eta lan bi aurkeztu, bata euskaraz, bestea erderaz eta biak, gainerako tituloak bezala, hizkuntzaren arketipoetan oinarrituak.	
8.1. <i>Euskara bere baitan (psikoaztertuz)</i>	104
8.2. <i>Vascuence, inconsciente colectivo</i>	106
8.3. Antonio Arnaiz ikerkide.....	108
8.4. <i>La antigua religión de los vascos</i>	110
8.7. <i>Gizakia, Hirutasun irudia</i>	112

Paula Legarreta

IX. EUSKARA IKERKETAN *ELEIKER VI* (2007)

9.1. <i>Vascoeuropeísmo versus Indoeuropeísmo</i>	115
9.2. <i>Euskara, hermeneutika</i>	118
9.3. <i>Origen del vascuence (2008)</i>	121
9.4. <i>Ama Jainkoa (2009)</i>	124
9.5. Euskararen Jatorria Bilerak.....	127
9.6. Euskal jatorria bileren arrakasta eta kudeaketa.....	131
9.7. Eusko-iberismoa eta zeltismoa.....	132
9.8. Eleiker blogari.....	135
9.9. <i>Amarekin topo (2011)</i>	136
10. <i>Dic. etimológico-Hitzen jatorria</i>	139



Felix Zubiaga

1° laburgoa: Oihuzkoak zazpi arketipoen arabera.....	57
2° laburgoa: Tokizenak deskribatzeko konposagaiak.....	81
3° laburgoa: Gonbaratzekoen analogia arketipoen arabera.....	93
4° laburgoa: izenordeen analogizatzea arketipoen arabera.....	95
5° laburgoa: Maite izendegia arketipoen arabera.....	111
6° laburgoa: Izenorde eta erakusleak arketipoen arabera.....	113
7° laburgoa: Aurrizkien analogia arketipoz arketipo.....	119
8° laburgoa: Hitzaren gizakundea arketipoz arketipo.....	121

LECTURA DE SIGLAS

(s) sumeriar, (a) akadiar, (et) etiopiar, (k) koptoa, (u) ugaritiar, (ár) aramear, (arb) arabiar, (ber) bereber, (ur) urartiar, (hur) hurritiar, (h) hebrear, (g) grekar, (l) latindar, (f) frantxesa, (it) italiara, (ca) catalan, (ga) gallegu, (i) ingles, (al) aleman.

SARRERA

Umezutz gelditu denak daki zer den amaren falta, hako gazterik Amerikara joan eta bakardadean amaz oroitzuz, negar egiten zuen artzainaren antzera, Argentinako panpetan edo Idahoko mortuan orduan ez zegoelako amari deitzeko mobilik, halakoetan otoitzak bakarrik zulatu bai-zezaken urruntearen muga.

Bost urteko mutikoa-edo nintzan ama galdu nuenean eta, nahiz eta anai-arrebez ondo ornidu familiakoa izan, zazpi edo zortzi urteko nintzaneko behin, amaren utsa sentitu eta antziz adierazi nuan. Auzoan adin bereko hiru mutiko ginan lagun minak. Beti elkarrekin jolasa prestatzen eta maiz, beste talde zabalagoarekin ez bezala, aparteko ibilketak egiten genitun. Behin oilategi izan zan mendi txabola batera joan ginan Aiñira. Ate eta lehiodun txabola zan, lagun min haretariko baten etxekoa. Ausaz ermita baten itxura hartu genion eta ordurako, monagilo pijoak izaki, meza jokoan jardutea otu zitzaigun. Basa lorak bildu, lehio zokoan ipini eta zoko bera hartu gendun aldareztat. Ez dakit "meza" hasi orduko edo hasi ostean izan zan edo ze zimiko izan genuen hanartean, baina txabolaren jabegaiak "zu ez, hau zuena ez da-ta" esan eta meza-jokutik kanpo itzi nindun, beste barik. Bai samina nirea! Adizkide biek aurka begiratzen nindutela ikusirik, bihotz unkitu, aterantz nindoala, "amarik be ez daukat, baina ikusiko dozue..." kexu egin eta urten nuan txabolatik. Beste biak txabolan barrutik "amarik be ez daukat, baina ikusiko dozue..." isekaz errepikatzen sumatu nituan.

Barruko samina akulu nuela, alde egi nuan handik. Aiñi muinoa jatxi, errekastoa igaro eta urrengo muinoan, behean jesarrita, galdu adizkide minen txabolara begira gelditu nintzan une batez, biotzetik otoz-otoan urten zidan kexua benetako erronka ala adizkideen irrirakoa izan zen. Halako adizkide minen hirukoitza apurtutzat eman nuan une haretan eta haraz gero aske sentitzen nintzan. Norbaitek sorbaldan eskua ezarri izan balit, ez zapartago jaiki eta etxera itzuli nintzan. Sakonean neuk ere ez nenkian, baina etxeko inork ere ez zuan jakin arratzalde haretan Aiñiko txabolan jazo izan zitzaidana, bada gizar-

tera berriro jaioa nintzalakoa nuan neure artean eta nekebideei bakarka aurre egiteko gei.

Nik ze erru neukan umezurtza izateaz? Edo zer delata, uste izan nuan beste adizkide minak amarik ez izateagatik gutxietsi egiten nindutela, ume zurtzak bere aldeko eskubideen arartekoa galdu-edo izan bailuen? "Amarik ez dodala-eta, aintzat be ez nozue hartzen eta olgetarako eskua kentzen deustazue". Ama bizi izan ba litzaidan, "amari esango-tsat" zema egin niezaieken eta nere kezka amaren pentsudan itzi, auzia ziur aldeko izango nuelakoan. Baina, amarik ez duenak nondik itxaron dezake ezelako zuzenik edo ziurtasunik? Ume zurtza nintzanez, nire "...baina ikusiko dozue" ordain gurako zemaia izan nahi zuan. Neuk urten behar izan nuen neure buruaren erantzule, erantzuna zertan izan zeiteken ere ez nenkiala.

Handik hiru-lau urtera, ohiko lagun minak, auzokideak eta, gehiago kostatzen izan zitzaizkidan, etxeko nebarrebak itzi eta fraile misiolari baten deira Gabiriako ikastetxera joan nintzan. Gipuzku Goierriko euskara ahozkerak zizatsua entzuten nuan neurealakoaren ondoan, beste mutil lagun batzuk egin nituen, baina behin ere ez nuen izan haraz gero inungo lagun minik. Adizkide onak bai, baina ez neure askatasuna inori saltzeko modukorik.

Neugaz bateratsu, ni baino zaharrago zan arreba bat monja sartu zan komentura eta gutunez sarritan egiten zidan oles eta aurrerako asmoak harrotzen zizkidan. Nik urrea lez gordetzen nituen arrebaren gutunak, inori erakutsi, edo arreba bat monja nuela ere esan barik. Niretzak behin umetan urrundu zitzaidan amaren ordezkoa zan arreba haren urrinetiko abegia.

Herriko euskera soinu itzi gabe, beste euskara soinu batera egiten nintzan, eta arraragoa zena, gaztelaniaz eta latinez ikasi nituen urteak joan urteak etorri eta idazteko trebeziren bat ere izan nuen, gaztelania erakusten zigun maisuak behin esan zidanez.

Urteen arian, estudiante profesatu, lau urtetan gailegoa entzuteko aukera ere izan nuan eta geroago, aberrira itzulian, Euskal Herrian lanbidea idoro zuten handiko langileei gailegeraz oles egieko aukera ere. Horrela ikasi nuen familiarik herrira doan lotura eta herrien artean dagozan aldeak eta tirriak lotzen.

I. UMEZURTZ KONPLEXUA

1.1. *Euskara amaren hiletak*

Euskaldunok geure baztergoan euskari “ama euskara” deitzeko ohitura izan dugu, gure nortasuna eta izatea bere pentsudan bailegon eta “ama euskara” barik, gu inor ez baiginan, hots, *euskara edo ez gara* esakunera. Hagaitik erdaldunek barrutik eta kantopetik erasoten ginduzten, amaren etxetik gu aldendu nahirik edo ama aipatzea galaziz, gure amagazko ituna eten irrikaz. Bakoi-tzaren Jainko bizikizunetan sartuta “menos Jaungoikoa y más Dios” predikak ere entzun genitun inoiz komentu barruan, gureek guda galdu zutelako eta isilik egotea zegokigun, ez euskaldun helduren baten baino gehiagoren irri mingotzik ikusi gabe, “hako zoroa, zer diakik horrek Jaungoikoa nor den”, ahopetik mormoxean. “Es que algunos religiosos, por otra parte ejemplares, tienen metida esa cosa de la política...” bere ustezko jarraipide ona eta gaiztoa erakusten zigun eztalakoan gazteen zuzendariak. Baina ez denok amoregiten.

Foruak galtzeagatik Otxandioko Arrese eta Betiak *ama euskara* ere ia galdutzat ematen zuan hileta soinuak aienetan, edo *abendats* hil zoriko aldarrikak egiten Salvatorek Zarautzen eta Arantzazun. Orixek ere ez zuan hil nahi izan gizaldien gogoengarrirako euskaldunei buruz zerbat idatzi barik, “geroak esan zezan”.

Ze erru geduan guk guda galtzeaz, euskara amaz gabetu eta gu umezurtzago izteko? Nik banenkian zer den guda galtzea, bada bost urteko nintzela, bizi nintzen auzotik ondo entzun ahal izan nuan Gernikako bonbaketa eta gau haretako laino gorriak bildurgarriak izan zitzaizkidan, bakarrik lo egitea egokitu bai-zitzaidan. Gernika zehatzeaz apaldu ginduzten bezala, etsaiek ondo zekiten euskara amaz gabetzeaz, gureak egingo zuena, hagaitik halako erasoek amaren bizia luzatzeko irrika sortzen zuten gazte askorengan. Zelan onartu euskararen kontrako epaia, haren heriotzaz geure heriotza gertatzen bai-zan?

Halatan barrutik gartu gurako ilinti biziak eskutatzen zituari euskara amaren etxeko autsak. Meza abestu berri nintzela, euskal aditza bizkaiera eta gipuzkera urkultzen ikasi gendun fraide

lagunaren eskutik. Urretxuko euskal ikasle guztiak batzen ginan Luis Mari Larrarte gazteak ziklotilaz prestatu apunteak lagun genietuela. Ziklostil hori Donostiatik harakoa zan, gero jakin dudanez, polizien garatzetatik igesian, komentuan izkutatua. Larrarteren hako apunteak nonbait Arantzazuko Omaetxebarria eta Intxausti fraideek gero argitaratu zituztenen sorgua izan omen ziran.

Gaztetarik umeei eskola ematera bidaldu ninduten, neuk ere ikasi nuen eskola berean eta euskaldunei euskeraz egiten nien beti, erdal zuzendariagandik akarren bat merezi izanarren. Euskaraz idazten eta arreba monjiaren erderazko gutunei euskaraz erantzuten hasi nintzan eta ipuinak asmatzen. Aldi haretan Europan gertaturiko berri batek unkitu nindun: Belgikan amona bat juzora eramana izan zan, fokomeliadun bere ilobatxoa salda beltzaz garbitu zuela-ta. Gertakari horri buruz elaberritxo bat antolatu nuan gipuzkeraz-bizkaieraz eta *Errosarioaren kuzkuak* izenakin Donostiako Agora Sarira aurkeztu eta geroago baten *Babilandia* tituluaz argia ikusi zuena. Saritua izan zan Arrue, Loidi eta Larreko zirela epaimahikoak. Larrekorekin egon nintzan Donostian idazki ale bakarraren bila joan nintzaionean. Behingoan medikutza lana alde batera itzi eta bata zuridun banazean luze hitz egin zidan. Mesedez gipuzkerakadak itxi eta aurrerakoan bizkaiera utsean idazteko aholkatzen zidan, gipuzkera gizarteratuago bai, baina bizkaiera egituraz osatuagoa zela-ta. Antonio Arrueren eskuetan zegon alea, "bai, bizkaierakada haietan A. Zubikarairen eskua-edo ikusten genuen" esan zidan. Jokin Zaitegik zorion gutuna bidaldu zidan Venezuelatik eta lan saritua hainbat arinen eta beroan argitaratzeko aholkatzen zidan. Guzti honek nolabait letretan sagaratzen nindun.

Eleberri saritua Itxaropenan argitaratzeko zan, sariaren arauetan, baina, Unzurrunzagak aditzen eman zidanez, Frantziaren erregimeneko Agora Kultur Sailak berekiko zituen sorrak, halako lan sarituez-eta ordaindu nahi izaten zizkiola-ta... Dirutan zen saria bera ere Gipuzkuko Aldundiaren eskutik jaso ahal izan nuan eta, bide batez, ia hogetamar urteko nintzala, ume bat arropaz janztea zenbat kostatzen zen ikasi nuan.

1. 2. Euskara amaren bila

Hizkuntzalariek euskara ama nuntarra den ez dakitenez gero, euskaldunen jatorria ez baitan dago eta halatan edozein Traggiak itxurgatu dezake euskara amaren arpegia, inguruko hizkuntza leinargien ondakinez osoturiko hizkuntza bazterra dela esanez. Astarloa apaizak Bibliara jo eta Baradisuko gurasoen berbakeran eta Babeleko hizkuntzen nastaketan ikusten zuan ama euskararen sorgua. "Etimologia galantak hoiexek!" esan zuten, eguno etimologia onik asmatu ez zutenek ere eta lotsa gorritan utzi euskaldungoa. Ustezko zientziaren ondoan mitoa ezaintzat jartzen zutenek, mitokeria salatu zuten, mitoa asaben jakinduria denaren ezjakinean. Ustezko zientzia horrek mitokeriak besteko kaltea egin dio gero ama euskarari.

Euskaldungoaren etsaiek pozik dagozke hizkuntzalariek ama euskara hizkuntza ezezagunen lehotzean daukaten artean. "Halatan ez du argi handirik egingo Unibertzitatean, ez eraginik gizartean" erabagi dezakete politikoez ere; "gainera, lehotz ilunean daukatenez gero, zeozergatik izango da: dagola arik eta bere jatorria argitu daino". Antzeko aitzakiak eta zigorrak leporatzen dizkiete, herri askatasunagatik espetxean dagozen euskara amaren seme-alaba errimeei eta kontuz gero euren askatasuna eskatzeaz!

Azkue apaizak Euskal Herri osoa arakatu zuan euskara amaren bila eta berri bikainak jaso zituan eta Hiztegi ederrean argitara eman, joan den gizaldiaren hasieran. Bera ere harrituta gelditu zan halako ondareaz eta ba dinosku: "Liburu honetako hitzak astiro irakurri eta ikasiz, beste hizkuntzakoekin gonbaratzen badituzue, Linguistikak bitxi eskuturik nahiko erakutziko dizue" (*Diccionario Vasco-Español-Francés*, or. XXIII - Euskeratua neurea). Baina Azkue igarleak ez zuan sartu nahi izan etimologietan. Hanartean egin zen lan kaxkarraz zapuzturik, aitortzen duenez, ez zuan izan hatarako adorerik. Guda osteak, zorigaitzez, ostu egin zuan Azkueren igarkizuna edo non dagoz Azkueren jarraileak?

Koldo Mitxelenak ez zuan alperrik galdu euskaldungoagaitik espetxean igaro zituen urteak. Ekaitzaren ostean ama euskararen arpegia argitara agertu nahi zutenek beragan aurkitu zuten mai-

sua. Baina maisuak aitor hau egin zuan: “misterioa da oraindino euskararen jatorria (...) ausaz bideko kate-begiren bat falta zaigu (...) edo metodoa hobetzeak nonbait ekar diezaiyuke ondore hoberik edo eta oraingo teknika berrien asmamenak eskuetan lanabes indartsuagorik egokituko”. Hatzamarra ere jaso zuan maixuak eta adierazi, hizkuntzalari ospetsuen arabera: “euskararen lehengusuak Antxinako Sortalde Hurbilekoak dira...”¹.

Maisuak metodo berria aipatu zuan eta gaurko teknologiak languarri hartzen zituan, baina ez zuen esan “que inventen ellos” edo holakorik: geuri egiten zigun dei, geure Unibertzitatei. Azkueren Hiztegiko igarkizunetik hona ehun urte geroago eta Mitxelenaren aipatu liburua argitaratu zenetik berrogetasak urte igaro direla, denbora ez doa gure alde, Humbold berri baten iragarpenari-edo amerikarren teknologiari begira egoteko. Segere-toa euskara beraren izendegian dago. Teknologiak berez ez daki gure abizenen jatorriaren berri, edozein tabako eskeingailu-tresna abotsari hizkuntzalari baten soinua emateko bada ere.

Teknologiak oratuko al du Azkueren Hiztegia eta guri ahia eginik jatera emango? Teknologiak ulertuko al du sumeriera, akadiera, urritiera, aramera, ugaritiera, egiptiera, nubiera, etiopiera, berebera edo iberera, guk geure euskaraz gonbara al ditza-gun? Baina, batez ere, sumeriera eta gainerako hizkuntza haiek asmatu zituzten herriak eta haiekiko gure lehengusutasuna uler-tuko ote ditu gaurko teknologiak? Sumeria, Akadia, Urartu, Hurritia herriak ez ete dagoz, bada, hako Babeleko nastea sortu zen lurralde haretan, hain zuzen? Jum! Ostera ere Astarloa apai-zaren pausoetan marro egin behar ote dugu? Harako maisuen jarraileak ez dira aurreratzen, ez diezaiela eurai ere gertatu gure etimologista gartsuari jasorikoa.

Hanartean euskara da inguruan etimologiazko hiztegirik ez duen hizkuntza bakarra. Euskaldunok gure hamasei abizenak baino harroago, agertzen dituzte eurek euren hiztegiko hitzen “eti-mologiak”, grekoa, latina, arabea, edo germaniko-gotikoak dituzte

1 K. MITXELENA, *Sobre el pasado de la lengua vasca*, or. 196.

la ustezko iturri garbiak. Euskara ba denik ere ostaz, eta egonarren, zer aurreratzen dute, euskarak, euren ustez, ez bai-daki bere jatorriaren berri eta euskara dakitenak ere ez bai-dute asmatzen sorkuntza unea? Erraz egozten zaio amari seme-alaben errua, euskarari, euskal hizkuntzalariena, bada euskararentzako metodo erratuetan ikasiak dira orain irakasle eta, halatan, beste ehun urtetan ere ez da ezer aurreratuko euskara amaren jatorriko bideetan, gurean euskararen profeta eta maisu izan direnei jaramonik egiten ez zaielako. Dotore bat baino gehiagori entzun diet “ni Mitxelenaren jarraile naiz”, baina hori ere bihotzeko titulo hutsa da, maisuak agindu zituen bideei jarraitu ezik. Pasadisu moduan kontagarria da, *Vascuence y mitoanálisis* tesia aurkeztu nionean, ni baino lagun helduago batek esan zidana: “Hi, Mitxelenak urte asko egin josan kartzelan euskara ikasten, e?” -- “Eta nik bitzita guztia komentuan”-erantzun nion.

Ba dago, egotez, euskararen jatorriari bidea argitu diezaiaketen zientzia berezirik, sumeriologia eta egiptologia, adibidez. Bideok, ordea, Bibliako exegeten eta erlijio gonbaratuen histori-gileen harrobiak dira, hako giza jainkozalearen pentsamoldea eta, beraz, mitoen guna zertan den erakusten digutena. Gure asabek ziren sinbolo zaleaz, hitzaren hotsak eta edukinak jainko eta giza ereduaren izenak eta ekintzak antzetzuz asmatzen bai-zituzten ideak adierazteko hitza, margolariak zazpi ereduarekin izadiko eta gizarteko formak ohi bezala.

Ala onuragarriagoa al zaigu gaurko euskaldunoi zientziaren izenean asaben jakinduria baztertzea, hizkuntzalariek euskara amaz egiten duten bezala? Ez ote zaigu hobe asaben kutsuko gizaki garela aitortzea, zientzia antzueren usteko aingeru baino?

1.3. Euskara amaren eskola

Bizkaiako Aldundiak igaran gizaldiaren hasieran ehundadak *Auzo Ikastola* jaso zituan baserritarrekiko auzolanean eta euskaraz eskolatzen zuten andereñoak jarri bertan. Frankoren gudariak sartu zirenean, *Auzo Ikastola* izena hormatik eratxi eta irakasleak espetxeratu edo atzerriratu egin zituan. Baserriak eskolaumeen-

tzat halako arduraz jaso zuen erakundeko titulu urdina eta haren hazpiko arrilu zuriak mailuz pikatzen ikusi nituan eta *Auzo Ikastola* izan zeneko aulaln erdal maisuak eskolatuko umea naiz.

Gero, guda ostera industriagintzaren deira, baserri erdia kale-ratu zenean, kaleko euskara indartu ezeze, hormatik, ez bihotzetatik, eratzi hako *ikastola* tituloa hautzetatik bezala berbiztu zan kalean. Jakina ikasguneok, bizi ahal izateko, eleizaren babesa behar zutena, eta Ikastolak maiz euskal umeen katekesia bezala sortu ziran kalean, *escuelas parroquiales* araukoen heinera, geroago erainkintza berrietan jarraitu bazuten ere. Guraso begiratu en laguntza, euskaltzaleen bultzada eta gotzaitegiaren baimenaz onartuak izan ziran. Baserritik kalerako Ikastolaren bidea geroago *Kalean andre* eleberrian jorratu ahal izan nuen.

Hanartean erlijiosoen aldizkari baten euskal atalaren ardura-dun jarri ninduten. Bi eta hiru habetan lau orri euskaraz ateratzen zituen aldizkarian lankide jarri ninduten, baina nik, laukoa barik, zortzikoa izatekotan gogotsuago hartuko nuela-ta, hamasei orrialdekoa antolatu gendun eta euskal kulturari emana zenez, *Ikastola* izenaz erregistratu halako analogiaz aldizkariaren *Euskal atala*. Atal honen aleak zortzi milatik gora zabaltzen zitzaizkien arpidedunei eta bakarka beste hainbateri Bizkaian eta Gipuzkuan, aldizkari zabalagoa zen bihotzean. Gaiak edotarikoak: aldiko berriak, erlijioa eta heziketa mailakoak, berere. Sailotan nahiko trebatu nintzan euskara idazten eta gaiak euskaratzen. Gazteizen argitaratzen gendun eta behin Informazioko Ministeritzak *Porro* izenpe-tu artikulua argitaratzea galazi zigun eta, handik aurrera, euskarazko hamasei orriak erderatuta aurkeztu beharko genituela agindu, euskaraz argitaratu ahal izateko. Izan ere, ba zinostan Agustin Zubikaray, gure lankidetariko zintzoak halako baten: "Zu, *Porro* hori nor da? Horrek esaten dituenak gero... ausartak ere ba dira, e?" "Ez arduratu, -erantzun nion- *Porro* hori ondotxo ezagutzen dot".

Gazteizko Ministeritza ekidintzekotan, Bilbon argitaratzea erabagi gendun eta eskurago eta irarkola hobea aurkitu gendun gainera. Egun baten espetxeratu baten ama gaztea etorri zitzaidan aldizkariagatik eskerrak emanez, *Redención* aldizkariaren

bidez bere semea herriko hainbeste berriren jakitun zegoela-ta. Gure aldizkariak eta espetxeetan banatzen denak izenburu berdina zutena jakin nuan eta euskara bera den "iraultza" sartzen genduela beste halakoen eskuetan.

Hala ere Informazioko Ministeritza erne zegoen aldizkarian euskarari huekogradadorainoko ohorea egiten geniola ikusirik, haraz gero, Usurbilgo irakola baten argitaratzen bai-gendun. Epe laburrean bi izun-agindu jaso genitun, Fragaren firma eta guztikoak: bata Chileko Larrain gotzainaren herrien askabiderako iragarkiaren berri emateagatik, bestea Fidel Castroren Sierra Maestrako bulegoa argazkiz eman genduelako. Argazkiok *Paris Mach* aldizkaritik jasoak ziran, estatukoak halako gai edo paper dizditsurik erabilten ez zutelako. Arrazoa: erlijiosoen aldizkariari ez zegokion "politikan" sartzen ginalako. Bien errekurtoa egin nuan, aldizkariaren agiriko helburua "informazioa eta formazioa" zela oharraziz. Harakoa azketsi egin ziguten, bestea zintzo-zintzo ordainduazo.

Lanarteak Unibertsidade mailako ikasketak egiteko aukera ematen zidanez, Deustura jo nuen, maisu izan nuen lagunaren oharrez. Lehengo bi urtetan gau-eskolara eta gainerakoetan egunekora. Letrak nituan ikasgai, euskara hasi-masiak ere ematen zizkigutela. Ia maisu sentitzen nintzan euskara ikasleen artean, hala ere, gauza bitxiak ikasten nitun Linguistika arloan, *deitu* latinezko *dictu* formatik zetorrela, adibidez, edo *lokatu*, berriz, *locare* formatik. Behin argentinar profesoresak erkide baten testoa azaltzen zigula, "unas veces abriendo y otras sarraceando" irakurri zuan eta "sarraceando" horren garbitasuna ezin antzemanik begiratzen zigun. "--En vascuence *sarratu* significa *cerrar* aurreratu nintzaion. --Ah, sí -berak orduan- del *sarare* latino". Gauza argitutzat eman zuan, nahiz neure artean, *sare* ere latinetik ete zetorren neragoion eta ea latin ilobatxo pijoak euskara ama zaharrari saregintzan eta berbetan nola erakuts zezaioken.

Ikasketaz landa eguneko eskolan, gaueko helduenen ez besteko mugida sortzen zan Unibertsitatean. Mahoren brusa orlegia janzten zuten mutilak ez ziran gutxi eta horma beteko berriak agertzen ziran maiz paper zaharretan. Batzarre berezietako deie-

tan, eskola itxi eta gela edo aretoak betetzen ziran. Batzuk iraultza helburuak maisuen benetasunez ematera ausartzen ziran. Entzulegoa axaxatu eta elkarrizketa bilatzen zuten. Jendea ixilik, infiltratuak-edo ote ziren. Burgosko juzo harakoan greba deitu eta kanpora urten gendun. Esloganak aldarrikatu, hesietik begira egozen polizien kontra jaurtin harri batzuk ere aidean ikusi omen ziran. Neretzat eskola amaitu zelakotan, eguerdi aurrean etxera nentorela, gazte bik erdian hartu eta "siganos" baitutzat hartu ninduten. Beste ikasleak baino zati bat helduagoa ikusten nindutenez, besteen maisutzat-edo jotzen ninduten usno gutxiko barrandariak, "ustedes se equivocan" ohar egin nienarren. Gaua morroiloan igaro eta baraurik nindaukeela galdeketa egin zidaten. Agintaritzaren aurkako esloganak aldarrikatu nituela zinoan salapenak, baina, ez nuela harririk jaurti. Nik ez nenkiela Unibertxidateko gazte ideologoen berririk, nahiz Mao jatzitan hainbat agertzen ziren, ni gaueko eskolatik egunekora aldatu-berria nintzala. Egun bat eta erdi, erdi baraurik ilunpean egin ondoren, aske utzi ninduten, fraile itzaltsu baten arartekotza ontzat emonik. "Estás expedientado" ohar egin zidaten, hala ere.

Morroiloaren eskarmenduaz aldi haretako zenbait polizi pasadisoren lekuko *Espediente*a eleberria idatzi nuan geroago.

Lizenziaturako tesinatzat *Unamuno y las lenguas peninsulares* idatzi nuan, urten barri ziran haren lan guztiak arakatuz. Migelen iragarpenak, "lentejak", saldukeriak eta aitortzak bizian zehar. Euskara euskaldunen "barne-historia" eta jatorria azaltzeko lanabaz bakartzat zuan Migelek eta "paleontologia berezia" deitu zion gaztaroan. Hanartean eginiko azterbideak utsal ematen zituan, besteak beste, baina berak ere ez zuen bide berririk urratzen, bai, oster, nolabait profetatu: "euskaldunari entzun egin beharko zaio, lotsak astindu, burujabe egin eta kulturako hizkuntzan berba egiten ikas dezaneko, eta batez ere bizi sentikera sakona eta bere erlijioa idorotzen baldin baditu"². Migel Unamuno gaztearen eritsiak. _____

II. EUSKARAREN NORMALIZAZIOA

2.1. “Gogorra izango da askatasun eguna”

Hala agintzen zigun “*ai poeta*” abesten zuan X. Lete kantari igar-leak eta berrogei urtetako zapalkuntza ostean askatasun orduan, ur gaziz gainezkako andeparak eten eta turrustan herriko plazaraino oldartzen zirenean. Neu ere guda eta guda ostea jasana naiz. Gernikako erreketan egunez gudako aideplanoen egada eta gaez haiek astindu suen garra zeruko hodeien disdiretan ikusita nago ume nintzala eta bildurrari aurre egiten ikasia. Gure aitak karlista fama zeukan eta *La Gaceta del Norte* irakurten zuan. Ni artean eskolaume eta ez nenkian nire aurka etozen irain batzuren zergaitia. Behin beste ume bardingo batekin burrukara behartu ninduten mutil nagusiek. Nik neure aurkakoaren matraila ikutu orduko, kao utzi nindun ostetik haietariko batek. Sudurretik odola dariola utzi nindun. Gure aita istripuz herio berria zan eta ez nintzaien gure arreba nagusiei nere pupuekin joan, mutilen arteko zera bai-zan.

Baina politikazko aparrez landa, zer onura izan zuan euskara amaren bizitzak askatasun orduan? Vatikanoko II Batzarrari esker-rak, Euskal Mezak euskaraz ematen ziren talde bikainenak batzartzen zituan, Eliza askok ikastolen bat babesten zuan, tokia eta laguntza dohan ematen zuela, zuzendaritzan eta maisutzan ere gehienak eliztarrak zituela. Euskal eleiz ontziak ugoldeko uretan ere ugaraon egiten zekian hanartean eta ez zan hainbeste uzkur-tzen alde bateko edo besteko zipristinakaitik.

Dagoneko Euskal Unibertsitatea martxan jartzeko zan eta hizarmenez ezpada, arramantzak onartuta zeukan euskara askatu egin behar zelakoa hanartean apaizek sakristiako atxiloan zeukaten baztergotik. Euskarak haize berriak behar zituela esaten zan eta haren ahuleria sakristiako ezotasunari egozten zien ezker-tiarrek, eta euskara berritzeko ezeze, bersortzeko arrandia jo zuten, hanartean, euren ustez, egindako mitologiaren eta egin beharrezko arrazoimenaren artean hesia jartzeko nahiko ahalegin egiten zute-larik. Hori egia bera ere irauldu gurea gure mutilena!

Haize berriak agindu zizkioten euskara amari eta dieta zehatzera behartu, santuek barik, merikuek osatuko zutelakotan. Hori ama euskara hiltza zela inoen batzuk, hil edo biziko ebaiketazela, beste batzuk eta euskara amak kalean ibili izateko, halako makuluak behar zituela, edo modako gonak edo prakak. Ama euskararen osasuna zela-ta hainbat neke jasan zuten haren seme-alaba askok. “Ze? Euskara amaren kontrako beste eraso bat ete da gero berau eta lehengoa baino txarragoa” susmo zuten batzuk, hanartean kalean politikazko jokeren argitasuna egitea eragotzita zegoelako eta fronteak hitzarmenera heltzeko gordin. Gauzak arin egin behar ziran, etxea teilatutik egiten hasten denean bezala, herrigintza normalizatu orduko, euskaren arazoa garatu behar zan: *euskara batuaren gordailua* egin eta giltzak gorde, adibidez. Ama euskara bitan banatu: euskara zaharkitua eta euskara berritua. Hori bai, elizak utzitako aldizkarien serbitzua antisermioiak egiteko ontzat hartzen zan eta hareago sakristiako tituloz baliatu irakurleko zaharra ere eskola berrira erakartzearren. Neuri ere badaezpadado idazlari berriak aurkeztu zitzaizkidan *Ikastola* aldizkarian dohan parte hartzeko gertu. “Zuk nahitara aldatu euskal formak”, euskal lumaren motela aitortzen zidan urliak, baina euskara formak ezeze, edukina ere ikutu beharrean aurkitu nintzanean, ahienatu egin zan mutila.

Parrokiako Ikastolan zuzendaritza eta ikasketa egitarauari buruzko arazoak izan genitun, kalean egosten zen zurruburuaren lekuko. Frankoren garaia igarotzat ematen zenez gero, jada ikastolaren konfesionaltasuna uzteko ordua ei zan. Nola *Parrokiako Ikastola* eta erabat akonfesionala? Umeen dotrinaleku ber-bera eta Jainko bako irakasketak? Fraileok euskara ez genuela maite, salatzen zuten, kristau dotrina sartzearen bakarrik erabilten genuelata. Ederto! Eta zuek zeren santurako nahi dozue erabili euskera eta dotrinalekua? Eskutik geunkan arazoa eta guraso gehiengoan borondatea ere. Baina iraultzan arituak eurak, Ikastolan sortu zuten eztabaidaren bakerako erlijioa ikastolako orduetatik kanpo itzi behar zela. Euren ezin urtenik, alde egin zuten guraso eta ume batzuekin. Gero euren jarrera garbitzeko, fraileen jarrerak salatuz,

Andereño izeneko panfleto bat ere argitaratu zuten liburutzat. Irakasle denak ez zuten eleiztar zintzoren osperik, eta hala ere, Parrokiako Ikastolan irakasle jarraitzen zuten. Ondo bete zuten euren asmo eta helburua: "urten behar badugu ere, ez dugu urten-go, santutegian kakausainik nahiko utzi gabe".

Aurreko Gabonetan Ikastola inguru antolatu zen Olentzaroren diru bilketa neska baten haurra ekortzeko izan zelakoa zabaldu zan isilpean. Ama euskaraz oroitu nintzan. Zergatik ez eralgi haur berria janzteko? Hako fokomeliadun umearen juzora urrunera joan beharrik ez neunkan beste eleberri baterako. Inguru hurbilak ematen zidan harakoa baino gai biziagorik. *Rh-odolestuak* titulatu nuen eta geroago baten argitaratu eta bide batez panfletoari pertzonai eta agiriei izkutuki, baina biziki erantzun nien, eztalakoan ere. Gaia: 1972-1973 Ikasurteko eztabaida "kristau dotrina bai/kristau dotrina ez" ikastolako gurasoen artean. Egituraz modernoagoa da eta CAM erakundeak antolatu R. M^a Azkue V Sariketan-1979 *Adelaren zauria* izenarekin aurkeztua izan zan eta hiru aipatuenetan gelditu. Arruntagoak dira, ostera, *Kalean andre* elaberrian batu nituen kale eta baserri inguruko bihozkadak eta pertsonaiak: baserria, euskararen hanarteko gunea, guda osteko industria oldarraren erakarmenaz, kalera abiatzen hasi zenekoa eta, ikastolen agerkundeari esker, euskarak *kalean andre* izaten ikasi zuenekoa, eta ertaldi guztietan bezala, ez soinekora urratu barik zaintzeko burruka larriak jasan gabe. Edukinez garaikidea zan eta, Bizkaia Aldundegiko saria merezi izanarren, eritzi onik ez zuen jaso, haraz gero kultura arazoa, kritika bederen, ezkertarren zuzia izaki.

Demokraziaren lehen argi ezbaikorretan idazlari famatuak agertu ziran goizetik gauera, eurak saritu edo txalotuen punterengoa ospea lortu zuten, euskararen eredu berriagatik baino hareago edukinaren garrantziagatik behingoan erdarazko itzulpenak merezi izateraino. Arrazioaren indarrean oinarritzen ziran, nahiz eta geroago norbaitek salatu, halako famaz garatzeko pretorio indartsua behar omen zela alboan ezeze, aldamenean. Pretorioak aurreratzen zituan halako arrazio ereduak euren ideen bozera-male eta euskaldungoan sartzekotan ontzat ematen zituzten eus-

kararen serbitzuak, mitoaren altsoan sortu zituen ama berak arrazio bidean hezi zituan halako eredu bikainen ahotik. Mito biziaren urrean, goizetik gauerako mito ergelak asmatu zituzten. Aho berotuok euskara idatziragino sartu zituzten euren ikurrak, baina komunikabideen iluntze haretan ez ginan elkar ondo ikusten, ez ezagutzen eta ohiko abertzaleak, igaran erregimenak zehatuena, batzokiak eratzen-edo arduratuegi ebiltzala, ostaz nabarmentzen ziran kulturagintzan. Hanartean euskara amaren inguruko kultura iraultzarako uztiatu ote nahi zuten bildurra zegoen euskaldungoan demokraziaren argitxintan.

Berandutxo bada ere, gero demokrazia jantzi eta alderdikideen zerrendak egiten hasi zirenean, ezagutu ahal izan gendun bakoitza non kokatzen zen eta euskarari ze garrantzi edo zertarako garrantzia emoten zien, bada, herrigintzaren arauetan “egiak, urak bezala, bere bidea egiten du” eta infiltratuenak ere, une batez bai, baina bizitza guztian ezin dezakete teatroa egin, herriari ezeze, euren buruei iruzur eginik.

2.2. Euskara amaren ondarea

Herrigintzarako atek ideki zirenean, elizak nahiko esku galdu zuan gizartean, haraz geroko herriaren batzartokiak batzoki eta ezkertoki deitzen baiziran, nahiz eta euskal mezak euskara amaren begiramenari bizia joritzen jarrai. Lehenagoko sermolarien garaian herria entzulea zan soilik, euskal mezan, ostera, entzun eta erantzun egiten du, ahoz-ahozko euskara herri mailan normalizatzen duela. Ahoz-ahozko eredu idaztiaren erudutan sartzeak, beharrezko izanarren, ardurazko arriskua du azpiegitura maskala duenean. Tokian tokiko elizak herriaren gustoko ahozkerak eta eredu jarraitzen du eta halatan “euskara toki sakratutik edo guruen menpetik askatu egin behar da” bezalako asmoak ez dira burubide onak, ez eta “euskara razionalizatu” esateak ere, hala euskarak askatasuna galdu behar al du, euskal herritarrak askatasuna-edo idoro dutenean? Amak jasan behar ote seme-alaben erresumin gordea?

Salapen merkeak egin zitzaizkion elizari: ezjakinen fedez bali-

atzen zela, eta agintzari merkeagoak: eurak soilik arrazoiak baliatuko zirela eta, beraz, "euskaldun fededun" eta halako esakunak zarkituen bazterrera lekutuko, hareago, eleizgizonen ereduko euskara baztertu eta zientziadunen eredia hartu behar zuela, bestela esanda, baserriko eredia aztu eta urikoa gorai, analogia zaharren sorguetatik euskara lekutu ahal izateko. Ezkerra ere bitan banatzen zan: armen indarrak ekintza negargarriak eginaz edo jasanaz, herria kolonizatzaileen menpetik askatu nahi zutenak eta arrazio santuaren indarrak herria bakean gidatu nahi zutenak. "La fuerza de la razón contra la razón de la fuerza" zuten lematzat. Gero jakin dugu jainkoen zioa, *Erra* aurrizki ezarrita, faraoiek ere eurenak egiten zituztena, *rason*⁽⁶⁾ "Erra jainkoari atsegin zaiona", beraz, *arrazio*: *arrazioa* izaki, giza jainkotuko estadu eta idelogia ilustratu batzuk, eta ez analogiaz bakarrik, jainko araberako harrokeriaz berekotu bai-zuten. *Arrazio* hori ez zan, beraz, giza adimen orekatutik datorren *zioa*, *Ra+ka>errege* guzieldunek eta jakinen oligarkiek euren estatusen oinarritzat arrandiatu duten aitzakia baino. Hako *arrazioa* ez zan herri oharpenetik hurbilago dagoen zuzenbide edo eskubidea, ez eta murgilean ere aurrera bultzatzen duen fede eskakizun bilusia, jainko paganoaren indar orokor baten itzalaz uztiatzen den giza aginte amarrua baino. Berdin gertatzen zaie *arrazioa* mitoaren aurka jarki nahi dutenei, giza *arrazioa* bera baino mito handiagorik ezbailegon! Norbere edo taldearen irri eskutuekin mitoa egin, giza eskakizun sakonen mitoen aurka. *Arrazioa* zioen aurka, horixe. Giza jokera batzuk hizkuntzak berak, euskarak bederen, salatzen ditu, azken baten. Hagatik "zentsü borogatü hobe, zentsü eskolatü beno" dino euskal jakinduriak eta hareago esan zezaken zentsü ilustratuez.

Unibertzitatean Maoren eskola dohan ematen zuan bikotearekin topo egin nuan behin Areetarako autobusean. Elkar ezagutu eta Portugaleten Herrikoa Ikastolara eskola ematera ninoala esan nien eta mutilak halako maisukeriaz "bueno, orain besterik ezean, tira -erantzun zidan erderaz-, baina gero herri jendea aurreratzean, tokia libre utzi, e?" Nik bahietz, ez neunkala horretan eragozpenik. Mutil harek, profetarena ezeze, hako Unamu-

nok bezala, sarradatxorik ere egin zituan euskara letretan, baina, euskaldungoa iraultzeko, "Jainkoak lotua ezin askatua" zela ohartu zuenean, hako beste bilbotar maisu leinargiak bezala, anaien aurkako destainak jaurtiz, lortu ahal izan zituan Jaun Arrazoiaren "lentejak" ezeze, opilak eta arno gozoa. Ekintzek borogutzen bai-dute zentzua eta ez arrazoi antuztek.

Armen arrazioak eta arrazioaren armak, zein baino zeinek gehiago, biak egin digute kalte edo herrigintzako arauak zapalduz edo euskararen eskubideak salduz. Batzuk herria mindu eta galdu egiten dute euren politika asmora ez datorrelako, besteak euskara ama iguintzen, euren erdal iraultzarako kalte egiten die-lako. Gerlari biak ebiltzan mozorrotu, batzuk arpegia estaltzen zutela eta besteak, barne saldukeria. Halatan idatzi nuen *Lekuan lekuan maloa* eleberria, *Bizkaiko Aldundiaren Eleberri Saria* (1990) (Ikus 103 or.) edakuntza kostuan eralgi nuela. Aipamenik ezin nezaken jaso unearen nastuagatik edo kulturgunea, batean euskaraz, bestean erdaraz, ezker bien artean jarraitzen zuelako.

Herrigintza berrian, herritarren eskua luzatuala, elizarena apurka-apurka laburtuz joian: eleizako aldizkarien hegoa apaldu, eta politika alderdienak plazaratu zirenean, euskal meza guxtiengoan errittoa bihurtzen zan, beste txokoetako bazkideena nausituala. Hala ere, ama euskarak baserriko indarraz batera galtzen zuena, ikastolei esker, kalean lortzen zuan.

2.3. Euskal idazle eta irakasle

"Etxeak behar eta bideak ekarri", esan ohi den bezala, aldi haretan *Redención* aldizkariak zati baterako oporrak hartu zituan eta hizkuntza tituloei bide emateko, Euba-Zornotzara aldatu nintzan "San Gabriel Ikastetxe-Mintegira" eta 1981.tik gerora "Lauxeta Ikastola" deituko zena, beti bezala, aldian aldiko beharritzane begira. Nire ardura euskara arloa. Hanartean *Redención* aldizkaritiko *Ikastola* jaso eta *Ikastola-Gaztetxoenea* erregistratu gendun 1976.an eta zortzi mila ale banatzen hasi ginan arpidedun eta ikastolen artean, euskal kultura eta kristau heziketa zituela helburu. Euskararen bizkaieratik abiatu eta baturantza joko zuan pausoka.

Geure eukiekin maila guztietako materiala *Euskara pausoak*, *Euskeraz egin* paperak eta liburuazkak prestatzen lagunduz, *Aditza Bizkaieraz* eurretan, ereduak eta urkulketa, eta umeentzako ipuin liburuak asmatuz *Pinto I*, *Pinto II* edo *Kirru eta Aldapako Sagarra*. Azken honek lau urteko ume baten urte buruko eskarmenduak kontatzen ditu erarik xaloen eta poetikoan. Txikienen irakurketarako prestua zan hiru koloretako marrazki eta guzti. Eusko Jaurlaritzaren onespenera aurkeztu genuen 1981.an, baina nonbait hatxe batzuren faltaz eta umearen ahotan "arrapau behar dot" bezalako morfologia akatsak zituelako ustez, ezetzia izan zan. Ba nengoan, ba, ni, bizkaiera ez dakian euskal maisu onik ezin zezakelakotan urten Bizkaian.

Gai guztiak Ibaizabal argitaletxean ateraten genitun, geuk 1977.an sortu eta urrengo urtean legeztatu erakundean, hasi *Babilandia* hako hamalau urte aurretik Donostiako Agora Saria-63 jaso zuena, helduentzako irakurgai, eta taldean sortu edo euskaratuko *Euskal Herriko Historia*, *Euskadiko Geografia*, *Euskal Elertia*, *Matematikak* (lau maila) eta *Erljioa* (bost maila). Haraz gero ez da gelditu Ibaizabal argitaletxea. Denetariko materiala prestatu du ehundesak liburuetan, bai bizkaieraz eta bai batueraz edo berdin gaztelaniaz, A. Fermin zuela eragile.

Lauxeta Ikastolak Ipuin Sariak antolatu zituan 1983 garaian hasita eta haietan ere partele izanaren lekuko argitaratu ziran besteak beste *Karramarroen aurrezkua*, *Kuku pasota*, eta *Hala-beharrež mediku* ipuin txortak, beharrizanak eta aukerak egiten nindutela edotariko generoren idazle, Deustun nengoelarik, Ikastolakoek eskatu zidaten umeentzako antzerkia bezala. Harakoan ere, bide batez, antzerki haietariko hiru Tolosan antolatzen zen "Antxon Elozegi lenen aur antzerkientzat"-1974 Sarira aurkeztu nituan. Bost sarituetan nire *Euskararen lapurra* hirugarren gelditu zan eta *Ikastolako mendigoizaleak* laugarren, hala ere, saritan bidaldu ez nuen beste bat, *Ikastolako Jaiotza*, bakarrik izan zan antzeztua. Denetan luzeena *Olentzaro*, hiru ekitalditakoa izan zan. Bizkaieraz emanak ziran, baina sarituak behenipehin kako artean zeramaten gipuzkerako aditza ere. Gaiez batak erde-

ra utsean sartzen ginduzten TVE itxurgatzen zuan eta besteak mendigoizale jatorren eta ezainaren jarrera salatzen zituan andeñoarekin mendirako prestatzen diren umeen aurrean.

Eubako Egotetxe berrian parrokiari eta ikastola artean banatzen zan nire eginkizuna. Ikastolako nausieri euskara eta aldi batean artea ere erakutsi izan diet. *Deklinabidea: izenen eta aditzizenen joskera* neronek gertatu eta fotokopiatu banatzen nien hiru sailetan, eta aditzizenen joskera kategoria bakoitzeko ariketa ugarietz ornatzen zela, beti ere hitzetik aditzizenera euskal joskeraren batasuna azpimarratzen nuela eta paperetik arbelera esaldiak aztertzen erakusten nizkiela. Astean behin euskal autore berrien irakurgairen baten hiruzkina egiten gendun, bizkaieraz zein batueraz. Irakasleek askatasun osoz aukeratzen zituzten bataren edo bestearen formak euren idazkietan, batetik besterako pauzoa gehienek erraz ematen zutela.

Ipuin edo elaberrietan maiz bertzoa eta kantua nastatzen nituan eta formaz atsegina zitzaidan herriko koplak. *Euskara Pausoen* ornigarri *Haurk kantak* (1997) behar genitun, haurren estetika hezteko. Hantxe egin nituen lehen ariketak. Poesiaren irakurzale ere ba nintzan, baina aldi haretan gutxitu egin ziran nere gustokoak. Negutean bezala, eguna golpean ilundu bailitzan, anti-poesiaren txakur argiak izioki ziren euskal letretan: esnea behar eta ospina ematen ziguten. Euskara ama hanarteko edertiaren peituz zegola ikusirik, sariketara aurkeztu nituen poemario batzuk. Eurietan *Zure argi kliskak* Arrese ta Beitia-Saria 1982 eta *Oi Emmanuel! Lizardi Saria*-1991 lortu zituztenak. Hanarteko beste tituloak *Kurtzemendi* (1982), *Uraren ohikuna* (1989), *Harri eta oihartzun* (1990), *Deslilurapen parabolak* (1990), izadia, herria eta elkarrekiko analogian, Jainkoa eta gizartea, barne ekologian kokatzen nituela. Nere olerkien berri *Gaurko poesia*, Labayru Ikastegia (1993) "Gauontza Sortan" eman nuan.

Antipoesia moda ilun, etsipendu eta kristau-ostendu haretan herri gizon baten poesiak, Joxean Artzerenak, hain zuzen, poztan eta itxaropenez betetzen nindun eta halako argi ukapenaren artean haren mistika euskaldunen artean eman denik miragarriena

hauteman dut, "etxeak behar eta bideak ekarri", esan ohi denez, ona eta baikorra geldituko bai-da azken baten ereduazko eta ezkorra eta bihurria berez galduko. Joxean Artze beraren olerkiak ere gogoaren negute latz baten osteko lorak ziran/dira.

Ikastolan behin, sanak emonda, otoz-otoan, agintzari bat egin nien ikasleei ia jubilatu aurreko urteetan: "oraindino euskararen alde zerbait berezi egin behar dot". Ez nenkien zer, baina barneak eskatzen zidan zerbait zan. Orixeren "Euskaldunak" bezelako poemaren bat agian? Baina lirikoa. Hasi-masi batzuk ere eginda nituan, baina ametsak atzendu egin ziran eta harraz gero "geroak esan zezan" bezalako asmoa edo bihozkadak joantzat eman nituan.

Nolanahi ere, euskararen betiko arazoa gelditzen zan eta behin Alexandre Dumasengandik-edo irakurria gogotan neunkan: "sorettsuak dira jatorrizko hizkuntza gordeten duten herriek, kondaira aztarrenak galdu izanarren ere, eskutik bai-dute haren segere-tuen giltza". Nolabait geroago M. Unamunok ere "herrien azaleko historiaz eta barne historiaz" esanak gogoratzen zizkidan eta euskara dugun giltzaren idea bultzatzearen *Zazpikunia eta Printze lokartua* eleberria eratu nuan eta, nahiz lar romantikotzat hegaleratua gelditu den, *Zazpikunia* maitagarriak, euskararen giltzadunak, *Printze Lokartua* itxartu zuenekoa edesten du.

Historiaren bila Haro Erdi sakonera ere joan nintzan *Don Bildur* (1993) pertsonaiaren ostetik, Arabako Don Belarenak-eta edesten dituen Iruñako Erresumaren eta Kordobako Kalifatoaren arteko tirabiran. Eusko Jaurlearitzaren beka-laguntzari esker argitaratu zan. Euskal mixiolarien omenez egindako *Azken Osaba Ameriketako* eleberriak ez du argirik ikusi: osabaren lobak, neska eta mutil, Amerikan zehar egiten duten txarter abendura kontatzen du, batak besteari egindako gutunez edo ikusaldiz edo poliziagandiko ihesiez.

Sinboloei eta surrealismoari lotuago egin nuan *Erromako Zubia* herri igarle zendu eta elizgizon garbatu baten arteko kontrapuntu bezala eta beti ere txunditzen nauten harrigarriei erantzuna eman nahiez.

III. TOKIZENEN ATZETIK

3.1. Euskara ikerlanean

Entzuna dudanez, behin Koldo Mitxelena eta Joan Corominas Oska inguruko toponimia bizitik bizira bezala, tokian tokiko jasotzera zioazela, gure Koldok ahaleginean orkatila autzi eta lana atzendurik gelditu omen zan. Euskara amaren bila eginiko maite pausoak izan ziran haiexek ere, ikasleei oharretan ezeze, exenpluaz erakutzi behar bai-zaie ekintzan. Harrezkero gazte askok osotu dute dotoregoa herriko edo auzoko onomastiken bila, izen baten galpena hizkuntzan katebegi batena izan bai-daiteke.

Nik ere toponomastiken bildumatxoa eginik nuan, Auñamendi Hiztegiari eta beste iturriei jarraiki. Ordenadoreaz baliatuz, alfabetaren ordenean jarri nituen. Eratorriak elkarren ondoko bilatu ezeze, haien edukiak erakartzen nindun. Erro usteko bartzuren ondoren *Tokizen-abizenen sorrera (euskara erromantzeen aurrean)* (1998) idatzi nuen. Saioen sariketara bidaldu aurretik, idea berriak izan nituen eta lorpen berriez osotu: *Euskara, gerkerak-latinarekin solasean* ikusten nituan eta *Euskal toponimia gure kultura zaharraren azterbide* azpi titulotzat. Sorburuen bila eman pausook, zuzenen artean erratuak, ziran erdiak. Adibidez, *Okulu*, *Oikina oikou* grekotik harakotzat ematen nituan, sumerieraz gauza bera *ekua* dena jakiteke, edo *Kurria*, *Okoro kyria/kuria* gerkar eta latinetikoa, *ekur* sumeriarra euskaraz *ekura>egura* “mendi santutegi” dela konturatu gabe. Susmo onak ere bai, hala ere, *Eza*, *Ekui* eta *etze>etzan*, *oikou>oikeo=okitu*, *üküatu*, adibidez, edo *Ibar>Bara>bara>baratu>paratu=parare*. Tokizenak berba egiten bai-dio edozein euskalduni, tokizena izen arruntaz loturik ikusten duelako.

Ondore argiak ere atera nituen: “herrien historia dokumentatua toponimiarekin hasten da”, “latina nausitu aurretik euskaldunak eta iberiarrak grekoekin ezeze, Mediterraneoko beste kulturekin harremanetan zeuden”, “euskara prerromanikar beste hizkuntza galduen bozeramaile bihurtzen da”, “Euskal tokizen-abizenak Europan zehar euskararen orokortasuna aldarrikatzen

du”, “tokizenen eratorrietan eta konposizioan aldien mugida ikusten da”, “hizkuntzen agerpen goiztarrena eta gizaldietako haien garapena tokizenetan dager”, “tokizenen atzizki-ohiturak bat datoz hitz arrunten atzizki-aurrizkiekin”, “mitoek euskareaz esan dezakena baino gutxiago ez da tokizenen erroak haretaz esaten dutena”, “euskara, jatortasun seinale denez, politikazko arma bezala erabilia izan da gaurdaino”. Ondoreok gaur bertan ere baieztekoak dira, baina haietara heltzeko erabili nituan bide batzuk badaezpadaoak dira. Tontorrera heltzeko bide asko dagoz, egotez, eta ibili egin behar direnak, itzuri egin beharreko eragozpen asko ere badago, baina zenbat eta gorago igon, hurbilago zagoz iturburutik eta hobeto ikusten da ingurunea.

Irakasletzagotik 1996.an jubilatatu nintzaneko, nonbaitetik halako txistada hartu duenak baizen ziur, helburua eskutik neunkala konturatu nintzan: mundu guztiari azaldu behar diot azterbideotan gertatu zaidana. Tituloa beharko nuan autoritatez hitz egiteko. Unibertzitateara jo nuan behingoan. Nere dotoradutzako ikasketa zaharrak bost puntu baino ez zuten balio. Berriak hasiko nituan eskuetan neukan tesia frogatzeko: *La teoría de las estirpes lingüísticas a la luz del vascence* deitzen zan eta mundu guztiak uler zezan, gaztelaniaz idatzi nuen. “Ze bibliografia erabili duzu, bada?” -galdetu zidan Tutoreak eta tesi gidaritzat gomendatu zidatenak. “Bibliografia gutxi eta erdia ere ez neure arikoa” -nik erantzun. Horrela aditzen eman nahi nion tesia batez ere neure kaskotik urtena zela, ez nuela eritzikiderik aurrekoetan. Handik aldi batera, Hizkuntza Sailekoakin hitz egin eta gero, zera esan zidan, metodologia arazoa zela-ta etab., ezin nezakela tesia halatan burutu.

Eta tesiak hutsuneen artean lorpen ederrak zeuzkan. Terminologia ezegokia, behar bada, baina funtsezko oinarriak. *Estirpe*= leinu deitzen nuen, geroago *eredu*=*arketipo* deituko nuena eta “jainko leinuak” eta “giza leinuak” bereizten nituan dagoneko, geroago, batez ere, Jung sikologistari jarraituz, “jainko arketipoak eta giza arketipoak” deituko nituenak. Euskara leinu mota biokin osaturiko hizkuntza zela aitortzen nuan, haiek *eredu* zaharrak eta hoiek *eredu* berriak zirela azalduz. Giza leinuen artean *etxe* eta

oikou jartzen nituen eta *ba* “ene ba! Ene bada!” ohiuzkoetan bezala, giza baita bezala aurkezten. Jainko leinuen izenak ez neuzkan hain garbi, harek jainko izen monosiladunak, baina jadanik euskara zaharraren eredutzat jotzen nituan eta euskara heldua, berriz, giza leinuekiko haien batzeaz. Ondoreetan ausartoa nintzan: “Azken aldietako Linguistikaren akatsik handienetarikoa euskara hizkuntza ezezagunen gelara baztertzea izan da”, “euskara hizkuntza isolatua barik, inguruko herrien antusteak zokoratutako hizkuntza da”, “grekoak eta latinak bere aurretikoen berri ez dutenez gero, euskara da hanartean inguruko hizkuntzen bozeramaile eta Europako hizkuntzen artean lehentasuna dagokio”, “leinuen tesiak Linguistika harrotu eta Filologia argitu dezaken zuzia da”, “leinuen teoriak, erlijioen azterle eta hizkuntzalari batzuek iragarri zuten, herrien Historia baino harago doan Barne-historia jaio da”.

Ba nenkian halako tesiak Unibertzitateko hormak ez, baino Linguistika Sailekoen hormonak galazi zitazkela.

3.2. Mitoen garatzetan

Lizenziatura berrogei urtekin egin duenarentzat ez da berandu hirurogeta zazpirekin maila nausiko ikasketak hastea, bada, 1997/98 Dotoradutzarako Ikasketak egitea erabaki nuan. Eskeingaietan ba nenkian zer aukeratu. Denetan neure auzirako baliagarriena izan zeitekena eta, zorionean *Lit. Próximo Oriente Antiguo: textos mitológicos* gaia agintzen zidaten. Bibliako exegesiaren arikoak ziran gaiak eta, antza denez, ez Linguistika Sailekoen begibegiko, baina nik arretaz entzuten nituan eta material egokia jaso ere Sumer, Egipto eta Ugarit bazterretako literaturaz, gure kultura ingurua inutu zuten Aitoren seme-alabak. Handik ezagutu nituen asaben jainko nagusien izen monosilaboak: *An, Utu, Ra, Ilu*, eta behingoan antzeman nituen Euskal Herriko mendi santutegietan, hala *Ainamendi, Otoimendi, Arramendi, Uliamendi*, etab.

Neri gomendatuko lezioaren azalpenak ematean, ots, Ugariteko jainkoen izenak, argi azaltzen nuan *Ilu* beste jainko monosilaboen parean goian eta haien familiako edo eratorriak, behan: *Anatu, Motu, Yammu, Attaru, Atiratu, Lotanu, Arsayu*, etab., hirugarren

mailan, beherago, konposizioan giza leinuren bat zutenak: *Ba'lu, Kotaru, Shapash, Haddu, Daganu, Ugaru*, etab. Bereizketa hau eta hanarteko azalpenak maisuak arrarotzat jo zituelakoa dut, baina ez zidan adierazten eman. Horrezaz gainera, Ugariteko textoez eskaturiko txosten hazitxoak ere prestatu nion, gaztelaniazko textoetatik *Ilu leinuko* otsez euskaraz jasotzen zituan edukinak, *Ilu elairea* ere *euskal elea* lortu zuenatariko *alor ulergarria* bai-zen, *al!, el!, il!* lehiatzen zuena. Hantxe antzematen nion ugaritierazko "*Ba'lu alyim=Ba'lu alaena>alena* ber-bera zela, euskarak ugaritiera edo hebraierarekin batera zeukan gehiengo kasuan. Baina maisuak ostaz zekian euskararik edo onartzen halako ezkontzarik.

Ugaritekoak baino jakinmin handiagoz jarraitzen nituan bi mila zaharragoak ziren sumeriar testoak (lau edo bost mila urte K. a.) *El Diluvio* edo *Enky and Ninhursag: a paradis myth*. Azken honen zatiak ikasletariko batzuk gazteleratua eta hiruzkindua eskuratu ziguten. Eurotan agertzen bai da *An/Anu* jainkoen aita eta *Utu=Iduzkia* ugoldeetik askatu ahal izateko, gizakia *dohaiez otatu* zuena. *Utu* berau da *Tutu* izenpean sumeriar paradisuko *dohai* eta *dotore* eta *Enky* eta *Ninhursag*, lehen gurasoek "*otoi, Utu, beti otan zaudena*" deituz, *deadoz otoi* egiten ziotena. Textoa ingletetik gaztelera aldatu zutenengandik poemako berri gehiago jakin nahi nituen, hango onomastikan euskarazko zantzuak susmatzen nituelako, baina emakumetariko batek nahiko lotsaz "nire galdeketa ez zela euskara aztertzeke metodoa" esan zidan. Ez nion galdetu: "ba-al dakizu zuk euskara amaganako bidea nondik den"?

Mitoetan arrigarriagoak dira *Gilgamesen* amesak, harek *Ishkur* "Zeru xekor" edo *Humbaba* "Basajaun" ereduak barreiatu eta *Istar^(a)/Isara^(s)*, uztarria eskeintzen zion maite-jainkosa, iguintzen ditueneko harrokeria eta jainkoen herio zigorpean bizia zaintzearren, Ugoldeetik salbatu zen Utanipistinen aholku bila, egiten duen erromesa. Haren kopiak milaka urtetan geroago ere errepikatua izan ziran Antxinako Sortalde Hurbileko hizkuntzetan.

Enuma elish ere testo harrigarria, Marduken koroatze egunerako egokitua denarren, milaka urte aurreko mitoen gainean eraikia bai-da. Azkeneko kapituluari Mardukek berekotzen dituen berro-

geitabederatzi titulo dakartzki sumerieraz eta berez otsak eta haie-taz ematen diren azalpenak zerbait dinoe euskal adikunarentzat. Azkeneko zatia azaltzea egokitu zitzaion neskak (euskaldun berria bera) nahiko harritu esan zuan klasean "esto suena a vascuence". Maisuak ez zuan zirkinik ere egin eta ez zan testo zahar haietaz gal-deketarik egin, baina ni neuk, sentikide, kontuan hartu nituan.

Urrengo txostena Egiptoko Literatura zan. Laburrak ziran tes-toak eta *Ra* edo *Erra* jainkoren *erraz* eta *errukiaz* mintzo zan bata eta *Ptah+Ra* be-mailako jainkoaren sorkuntzaz bestea. *Erraren* ama *Maat* zan, beraz, *Maat+Ra*>*matra/matre* ematen nituan eta *Path+Ra*>*patra*⁽⁹⁾/*patre*⁽⁰⁾ elkarte bezala. Hala ere, geroago konturatu nintzan euskal erroak jainkookin dituen harreman sakonak. *Errak erraiez* sortu bai zituan gizakien *ara-kia*, *Amon+Ra* arrautzez *erron* zalea zan eta *Phat+Ra*, ostera, soilik *erranaz*, "erran eta erain" arteziaz bezala.

Hanartean *Euskararen sustraiak* lan berria aurkeztu nion Tutoreari, tesirako gai hoberik barrunta zezan. Ondorenik ez nuan ateratzen, baina ikasurtean zehar jasotako lorpenak gehitzen, *nomi-na sunt numina*, Max Müller-rek, erlijioen historia gonbaratugileari jarraiki, ots, "izenak jainkoak dira" eta haietan jainko monosila-boen erroak nenkusan Sortaldetik Sartaldera gure mendi eta toki-zenetan. Jainko leinuak giza leinuez ezkontzen zirela, hitzaren agi-riak adierazten zuanez, hala *Larre*, *Etxalar* edo *Artea*, *Artetxe* burutzean, jainko izenen ereduaz onomastikak egiteko ohitura Sumerreko eta Egiptoko apaizen ohitura zaharra zela adierazten, eta, batez ere, jainkoon ereduoi jarraiki, euskarak biltzen zituen teo-logiazko hitzak aurreratzen, *An/Anu* "zeru" jainkoaren analogiak bai-nenkusan: *ain*, *ano*, *anoi*, *andi*, *antz*, *ansi*, *aintz*, *ainubi*, *ainanino*, edo familia arteako *nai*, *nahi*, *ama*, *amatu*, *nini*, *anai*, *aina*, *maitatu*, *nahitu*, etab. eta berdin gainerako jainko leinuekin.

3.3. Tesiaren gidari bila

Ene Tutoreak, mitoekin horren arrakasta nuela ikusirik, mitoen erakusle maisua bera tesi gidari hartzeko eskatu zidan, hizkuntza-lariak biblista batengana bidaltzen nindun, disziplina batekoak

bestera bidaltzen, ea asaben hizkuntzan Unibertsitatean erakusten dutenak biblistengandik ezer susma zezaketen. Gurago nuan euskarari buruz hartu nituan beste gaien maisuak, ni baino zati bat gazteagoak, neugaz batera, gure asaben pentzakera urretik jarraitzen zituzten mitologia zaharreko letrak neure ikas irrikaz ikustea.

Beste gaiak ez ninduten irrikatu: *Las ideas lingüísticas vascas: origen y evolución*, antxinakoen ahalegin baztertu bezala gelditzen zirenak, ots, ama euskararen bilakan eman alperriko pau-soak. Bideok jakitea ona, baina gazteei egindako erronka bezala, ez "hutz ama euskara bilatzeko esperantza oro" alamenezkoak bai-ziran. Beste gai bat: *Egungo euskararen lexiko-auzi batzuk*, euskara ikasten diharduanarentzako ohar onak izan ziran eta *Latinaren eragina euskarari*, berriz arbuigarria egin zitzaidan, ez latinak bere garaian eraginik ez zuelako izan euskaragan, nik euskarak bere garaietan une bateko latinagan izan duen eragina ikertzen nentorrelako baino. Ez nenkusan, adibidez, *gauza* latineko *causa* formatik harako, ezpaere latineko *causa* euskarazko *kauta* hitzaren umeko, norbere *gauzak* bai-dira *kautan* hartzen direnak, baina Euskal Herriko umeok ez dugu, antza, oraindino euskara kautan hartu, egunotako berri eta arazoa den, ots, *Egun-karia itxia* "amaren etxeko" arduratzat hartu dugun bezala.

Askoz hobeto ulertzen nuen *Poesía y Religión* gaia, poesia delako gaurdaino Jainkoaz hobeki lotzen den literatura, erlejioak, amak umea bezala, gizakia osotoro oratzen duelako. Hala ere, netzakako lárregi lerratzen zan Dumézilen indoeuropear teoretan. Senak ematen zidan mediterranean behar zuela izan gure lehen-gusutasuna eta gogotsuago nenbilen Sumerreko eta Egiptoko teologiaren eta jakinduriaren lorratzetan. Eta azkenik, *Metodología en la investigación del Derecho Vizcaíno* gaira ere heldu nintzan. Metodoa baino hareago uzuen antxinatasuna-edo bilatzen nuan. Nire filologia frogatzeko "bidegaza" etorren testoa aztertzeraz eman zidan eta Azkueren Hiztegitik hara, toponomastikaz zerbaít azaldu gurarik, erratu ere egin nuen. Hala ere, "esku/eskuera" lemapean lantxoia egin nion "Introducción a la Historia del Derecho Vasco". Ausardia edo euskararen baimena zer den!

Tesiaren gidari bila nenbilen. Ba ote zen nere maisua ene tesia ulertzeko beste? Gaztelaniaz idatziko nuan, baina euskara zan gaia eta oztaz zekian euskarrik. Noizbait-edo ikasten hasia eta gero exgesiaren exigentziaz-edo hebreoarekin trukatua. Gaia zehaztuta neunkan gutxi gora-behera: Jainko leinuak eta giza leinuak euskararen sorreran. Ze metodologia erabiliko, hanartean nere Tutoreak "metodologia faltaz" ohar egin bai-zidan? Ikasurte bereko *El sacrificio del hijo: antropología y Biblia* gaia eman zigun profesoresak, Bibliako kontagaiak aztertze ere du bat eman zigun. Eredu hori nere maisuarena zan, hain zuzen. Ahalik sakonen irakurri, berrirakurri eta eskatu zidan laburpena ere egin nion. Maisuak berak kontakizun bateko azterketa-eredua nik euskararen egitura azaltzeko metodotzat hartuko nuan. Hasteko, "metodología interdisciplinar" zalea aitortzen zan sarreran, aztertze modernoa aipatzen: "estilistika, formalismoa eta estructuralismoa". Hurrengo urtean konturatu nintzanez, maisua ez zen mitoaztertze zalea, eta estrukturalisten jokerak formak handiesten eta zehatz aztertzen ditu, edukina gutxietziz. Hala ere, kontakizuna denetik, kontatzeko gauza den hizkuntzara doan saltoa egin behar nuan. Mitoa bera zen kontakizuna, jainkoak eta gizakiak ziran pertsonaiak, sinboloak ziran estiloa, ekintza jainko eta gizakien arteko harremanak ziran, aldi baten eta nonbaiten kokatuak, linguistikak ere laguntza berezia ematen dio kontakizunari: lexikoa, irudiak, otsak, sinboloak, sintaxia, etab. Kontakizunaren egitura nik hitzaren egiturara ekarri behar nuen eta maisuak testoinguruaz dinona nik hizkuntza ere du batak beste ereduarekin dituen sinonimiaz eta tokizenez erantzungo nion. Tesiaren egiturarako baliagarria izan zitzaidan. Aurrelantzua bat ere prestatu nion maisuari "nire tesiaren gidari zeu izatea nahi nuke" esan aurretik.

Elkarrekin egoteko eskatu nion. Eguna eta ordua jarrita ere bai, baina aztu egiten zitzaion topaketa, behin eta berriro. Ordu bi zutunik haren gela aurrean noiz agertuko. Hurrengo egunean beste ordu bi, eta ez agertzen. Hirugarrenez, beste ordu bi itxaron ostean, agertu zan azkenik maisua. Ez nindun gelara sartuaz, beste kide batekin elkarbanatzen zutela-ta. Ba, hantxe ibilgu-

neko bazter baten, nik itxaroten eralgitako orduak minutu laburtuz, amaitu genuen elkarrizketa. Nere arazoa azaltzen hasi orduko “¿tú sabes mucho vascuence, verdad?” esan zidan. Nik baietz, hatantxe eralgi nituela ordu gehienak. Berak, ostera, behin euskara ikasten hasi zenarren, gero hebreora jo behar izan zuela. Nik euskararen jatorria frogatu nahi nuela, jainkoen izenekin bat baitzetozen *esan=otoi* “dicho=oración” bezala, eta mendien santutegien izenak adierazten zuten bezala. Zazpi eredu zirela jainko eta giza artekoetan eta zazpiretan sinonimia antzeko egiturak deudela. “Y ¿por qué siete y no más?” -berak. Ez neunkan orduan erantzun zihurrik, nahiz exegeta batek ulertzeko erantzun erraza izan. “Bueno -berak azkenik- no hay en España un sólo profesor que te pueda aprobar esa tesis”. Orduan bertan ez, baina geroago sinistu egin nion eta nere ondorenak atera nituan: Unibertzitatea euskalduntzen ez den bitartean, ez dugu lortuko euskara amaren jatorria doktoradutzako tesiaz frogatzerik izango. Euskara ez dakitenak ez dute lortuko, ez lortzen lagunduko, ez eta euskara azaletik jakinez konformatzen direnek, mito gaietan maisu direnak ez dakite euskararik eta, ausaz, euskarak ez die ezer asko esaten eta euskara dakitenak, berriz, ez dakite ezer mitoez, eta gainera ez dakit zer dela-ta, ene ustez, iguin dituzten mitoak. Ausaz, Ediporen arazoak lotzen ditu eta bildur dira: ez dakiela gerta hari bezala, ezustean amarekin topo egin, eta haregaz ezkontzea eta gero, lotsaarren, plaza erdian begiak atera behar izatea.


Ostera ere Azkueren Hiztegiko orriak iraultzen ekin diot eta, zenbat eta iraulduago, berak esanaz jabetzen naiz: “liburu hone-tako hitzak beste hizkuntzetakoekin gonbaratzen dituenari linguistikak ondare bitxia erakutziko dio” eta euskara bere antxinako lehengusuekin gonbaratzea baino ez dago. Mitxelenak ohar-tua gogoratzen dut: “metodoak aldatu beharko ditugu”. Unibertzitateaz, nahiz Euskal Unibertzitatea deitu, zera daukat haraz gero: euskararen jatorria frogatzeko tesia dagoneko prest dagoela, baina hori ulertzeko -parkatu larrregikeria- gure Unibertzitateaz ez dagoela gertu.

3.4. Mitokritikatik mitoaztertzer

Dodotoregoko lehen Ikasurteko helburuak bete eta 1998/99 urterako matrikulatu nintzan. Halako baten kalostroan maisua-rekin ezustez topo eginda, hurrengo urtean ere berarekin hartze-ko genituen jakinduriazko gaiak aukeratu nituela esan nion. Arestian Sumerreko eta Egiptoko jakinduriaz bildu ahal izan nituen testoak irakurri nituela esan nion, *Documentos bíblicos*, bildumakoak. Aintzat hartu zituanez gero, hako tesi arazoan ekiteko asmoa nuela gehitu nion. "No será para tanto" -berak eta ez zuela tesiak gidatzeko ohiturarik.

Ikasgaietan ardurazko bat *Introducción a la mitocrítica* zan profesora baten arduruan. Ez nenkian zer zen, baina interesgarria eritsi nion tituloari. Zer ete da *mitokritika* galdetzen nuen nere artean eta nere lagunek ere ez zekiten zer gauza zen. Lehenengo egunetik jakin ahal izan gendun *mitoanalisi* ere deitzen zela, ots, mito jakinen bidez lehengo eta oraingo literatura aztertzea. Zer delata lehengo eta oraingo hori? Zer ikusi zuan gaurko literaturak antxinako mitoeekin? Hor sarten bai-dira sikologoek giza ametsen munduko sikokritika mitokritikaren laguntzaz azaldu haleginez, giza barneko bizikizun eta konplexuok ezdelakoan azaltzen bai-dira giza sentikera eta haren eskuko artelanetan. Sorkuntza lanean hizkuntza ulerbidez eta izadiaren azalpen bezala agertzen zela. Durand, mitokritikaren gurasoa, Jung sikologistaren arketipoetan eta Bachelorren teorian oinarritu omen zan: Harrezkero, terminologia aldatu dut: nire jainko leinuak "jainko arketipoak" dira eta giza leinuak "giza arketipoak" eta tesi egituraren oinarria "mitoazterketa" da.

Jung, Lacan, Bachelor begiratu nituen *Erljioen Hiztegia*n. Jung sikologistak gizakiagan arketipo bikoitzen beharizana ikusten du: norbere arketipoa eta Bestearena=del *Otro*, *Besteak*, jainkozkoak, alegia, jasotzen bai-du bere heinera norbere arketipoa. Lacanek *Beste* horrek gizakia alienatu, ots, beretik atera egi-ten duela dino, baina hizkuntzaren sorreran hantxe dagoela aitortzen, *Ni* eta *Zu=No* eta *To* bien arteko egiaren eta egiunearen lekuko. Bachelorrek giza irudimena josteko beharrez-



Sumerrreko mitografia: *aNu*, *uTu*, *iNana*, *eNki*, eta *enLil* jainkoak zerutik mundura begira arduratzen dira. Han iruditan eta hemen haien santutegi izenak agertzen dira: *Aiñomendi*, *Otoiomendi*, *Aniemendi*, *Inolamendi*. Han *udia*, *usua* abere eta egazti izenak eta hemen *idi*, *uso* abere eta egazti abereen izenak.

kotzat ematen ditu arketipoak eta euron nortasuna azaltzean, izadia eta kosmologia zaharreko elementuak aipatzen: *uin*, *su*, *aire*, *loi* (lur). Kolpean ez nituen antzemon, baina kosmologia zaharreko lau elementuok lau jainko sortzaileen analogiak dira: *Inu*>*uin*, *Utu*>*su*, *Erra*>*aire*, *Ilu*>*loi*, Bachelorrek giza hirudimena josteko aipatzen dituen “lau hiltzak”: *hona*, *dui*, *hiru*, *lau*, antxinako zenbakien hotsera, izan ere. Hala ere, zazpi hiltze ikusten nituan nik: gizakiak izadiko lau elementuotatik beregan duen partekidetasuna hain zuzen: *Ka/kai*>*gai* “materia”, *Ba*/baita “psykhe⁽⁶⁾” eta *As/akh*^(k) “bizi anasa”, hirurak ere Egitoko jakinduriak giza konplexuan ezagutzen zituenak eta kosmoaren partaide izate horrek jasotzen zuan gizakia jainko arketipoen heine-ra hitzaren erritoan eta, aldiz, jainkozkoak jaizten gizatasunera. Horra...bada, *bost*, *eksa*⁽⁶⁾ “xei”, eta *zazpi* giza arketipoen zenbaki aglutinatuak, zazpikuna, bai-zan zenbakien totala. Hagatik arketipoa orokor, iraunkor eta aurrean dagoen nor, “nor bizia” da, Jung-en gardiz, eta gizakia bere baitan oratzeko ahalmena du, sikologisten arabera, arketipoa izadiaren eta gizakiaren arteko elkarriketa arautua bai-da, giza jainkozalearen erritox arautua, hain zuzen. Arketipoon mundu honetan gizakia jainkoekin

elkarrizketa mahaian exeritzen da zero eta lurraren arteko auzian, erritoaren hitzarmenak hatarako ematen dion itunbenaz.

Giza arketipoen aztarrenak Sumerren eta Egipton argi agertzen dira. *Ki*^(s) "lur", *egi*^(eu) "zeru eta lurraren arteko muga", *-ki* materiaren partetasuna adierazteko atzizkia, *ekua*^(s) "etxe", edo *oke* "ohe" *-eko* NON-NONGO-NOREKIKOA adieraztekoa. Ostaz, baina apurka-apurka euskararen analogia iturriak osatzen joan nintzan eta nekezago egiten zait orain arketipook benetako egiturak direla estrukturalistei adieraztea edo hizkuntzaren benetako genesak eurok direla, genetistei ulertaraztea. Zer dela-ta, aurkatu sinboloa egiturari, sinboloa bai-da egiturak banatzen dituen irudia eta iruditik bai-dator harekiko analogia eta zentzua? Edo hutsetik al datorkio euskarari izen eta guzti arketipooz duen oroitzapena? Nork atoratuko ete ditu moxook amaren etxera?

Tamalez mitokritika hasiberria zan/da eta literatura testoak aztertzeke bakarrik erabilia. Bestalde arerio asko ditu idazkizunaren formak mahai gainean eta haren edukina mahaiepean jartzen dutenen artean. Mitoazterketak bardin balio behar du hizkuntza bera aztertzeke. Adierazia mitoaztertzen bada, hareago mitoaztertu obeharko litzake adierazlea. Aurkeztu lanak gurekin hiruzkindu gura lituzkela adierazi zigun profesoresak. Baina, nik neurearen eritzia eskatu nionean, zurtz gelditu zitzaidan emakumea. Euskal Gramatikazko aurrizki-atzizkiakino mitoanalizatu bai-nizkion. Ez harritzeko, esan nion, hala ere, bada, euskara ondo zekitenei ere beste hainbeste gertatu izan zaiela-eta. Batzuk zurtzatu ezeze, nigandik urrundago ere ikusten nituen, euren bidetan sartu beharrean, neuretan horren setatsu ekiten niola-edo oharturik. Euretariko batek "zelan zabilz osasunez? -galdetu zidan, geroago baten. --Ni, ondo, Jainkoari eskerrak -erantzun nion hain murrizt.

3.5. Antxinako Sortalde Hurbileko jakinduriaren lorratzetan

Ikasurtea gaiez aberatza gertatu zitzaidan, Tutoreak gaiak ondo aukeratu nituela esan zidan. Jakinduriatzko testo zaharrak mitologiatzko idazkien jarraipena zirena jakinik, maisuarekiko gaiok bihotzez hartzen nituan. *La teología sapiencial en sus textos*

zeharo bibliatarra izan zan. Ordurako sumeriar eta egitiar jakinduriari begirada bat emonda neunkan, etxeko liburutegian bibliaz nahiko gai aurkitu nuelako. Klasean jakinduria zaharra eta berria bereizteko hazi-maziak hartu orduko, *Job* astertzen hasi ginan, maisuak bakoitzari bere arloa egozten ziola. Testoko gaien artean onomastika agertzen zela oharturik, haxe eskatu nion, porru galantak atera ahal izango nizkiolakotan, baina gaiak aurretiaz gomendatuak zeuden eta niri *Job, 14* egokitzen zitzaidan. Zorionez han ere nere ideiak nabaritzeko aukera aurkitu nuan. Onomastika jakinduria zaharraren seinuetariko ardura bai-da, maisuak berak esan zigunez, eta euskaran jakinduria zaharraren oroitzapenak onomastikan iraun behar zuelakoak nindaukan. Jobek gizakiaren zoritxarra izadiko beste izakienarekin gonbaratzen duela azaltzen nuan klasean: *zuahitza, ura*, adibidez, eta hoiere sortu goitikoa hilezkor dakus giza zori hilkorren ondoan. Halatan Joben izadiko elementuok euskaran eta maiz erromanikoetan jainko arketipoez izendatuak agertzen dira, eta gizakiaren zorikoak, oster, giza arketipoez, batzuen zoria hilezkorra eta besteena hilkorra dela adierazteko. Horrela *atze, zuhaitze, árbol, adar=rama, erro=raíz* eta *zuhaitz* motak: *zurgai, zurgatz, tantai, aretze, arce, robur, arte...* Amaitzen ere ez zidaten utzi, "sí, eso creen algunos vascorros, como el que, por algún *txori*, piensan que el vascuence se emparente con el japonés" -nork eta maisuak esan eta entzulego gazteak barre egin zidan. Barregilei begia kendu barik, agirika baten nik "iprotesto!" erantzun nien hiru bider eta astiro, euren barrea isildu zeino. Orduan neure azalpena jarraitu nuan. *Uraren* onomastikaz landa, gizakiarena gelditzen zitzaidan: *giza muina>homine, women, femina, humbra=geriza, flore*, testotik harako hitzak, denak giza arketipoz aurrizkituak aurkitzen nituela. Hagatik gizakiak nondik duen *antza* hara, An "zeru" jainkora, *ansiatzen* duela, *ansioso=angustiado, anhelando=añorando* arik eta zoria *antxitu* arte eta andana hau An "zeru" jainkoaren *analogiak* zirela aitortuz, hitza jainko ereduaren eta giza ereduaren gidaz konpontzen baitzuten asabek. Neureaz urten nuan, baina ez zidan inork xuriketarik egin eskolatik urtetearen. Urrengo ikasorduan, nigazkoa aipa-

tu barik ere, ez nire kexurik izan, maisuak bere burua xurikatu zuan, berak klasean edonoren eritsiak aintzat hartzen zituela esanez.

Jobena testo luzea denez gero, *Job 20* hiruzkintzea ere gertatu zitzaidan, baina hemen ez nuen onomastika arazoan sartzerik izan, ez zuelako eskatzen eta gozoago amaitu gendun arazoa.

Bibliako *Esakunak* testoarekin jarraitu gendun. Urte hatan-txe, hain zuzen, Gotzon Garatek *Atsotitzat/Refranes/Proverbes* liburu mardula argitaratu zuela esan zigun. Orduan ez, baino, geroago *ELEIKER* bidetan mesede asko egin dik liburu honek. Gaien artean *hitzen berdinketak eta bereizketak* zertan diren erakutzi zigun maisuak, *emky/imaku*⁽⁶⁾ "jakintsu/zoriontsu", adibidez, sortaldeko hizkuntzetan: arketipo beretsuez egin hitz egitura. Jakinduria beretik nik *xabe/sabio, duena/duin, duna/duña, vía/fe, bide/vida, bide/fide, senda/sendo, vereta/verita, izena/izana* andana ateratzen nituan, eredu fisikoak gogozko edukina edo abstratoa zekarrelarik analogia berean. Geroago *hizkune* deitu nien holako hitzen txortaketari "fórmula de lenguaje" ezaguna aipatzeko. Ez dute ezelako lokarririk behar eta esakunen oinarria dira eta herrien jakinduria eta hizkuntza batera hazten zirelako frogarri hartzen nituan. Hagatik esakuna ere, zenbat eta zaharragoa laburragoa izan ohi da, *hartzek emateaz du sapore* esaten du ahozko literaturak, edo *baneunko, baukot*. Idazteko astia hartzen duenak, ostera, honelatsu egingo luke aholku bera: "*izan hadi eskuzabal ematean, esku zabalez har dezaan hartzean*" edo azalpena emongo: *beneunko, baukot, baina ez daukadanez, ez daukot*". Hizkuneen laburgoa egin nion arketipoz-arketipo, nire tesi asmoa nondik norakoa zen uler zezan.

Jainkoak izadian ezarritako jakinduria azaltzeko, uraren ize-nak eta haren ekintzak arketipoz-arketipo aipatzen nituan: *uin> inotsi, ud>idoski, ur>erion, loi>loitu, agua>ugar, ibai> baxar, acequia>secar*, adibidez, jainko arketipoz seinalatuak ur goienak zirela esanez eta giza arketipoz aurrizkituak, ur barrenak, goikoak jainkoen sorkuntza edo doahi bai-ziran eta behekoak, ostera, gizakien serbitzurako prestatzen zirenak.

Etikan Jainko kalitatez janztea gizakiari ez zegokiola adierazte-

ko, arketipoz-arketipo bereizten nituan: *andi, antu, dontsu, dotore, arro, arrogante, lindo, lehial*, etab. jainkozko kaliteak eta *cándido, keldo, apal, humilde, sencillo, single*, atab. giza kalitateak.

Nortasun ezberdinei egokitu kalitateen gonbaraketan erabili ohi ziren loturak arketipoengandik analogizatzen zirela adierazteko, beste eskema bat egin nion: *aen, ain, ein, muy/ edu, uti, ide, txit/ are, arean, ur, urrean/ ala, ola, lain, lez/ bezain, vel, bere, baino/ gino, kisa, kide, igual/ zein, sano, assed*, etab., giza gonbaratzaileak jainkoekikoen aglutinaduak zirela esanez, hizkuntza monosilabismotik hara mugitzen zela adierazteko.

Beste hainbeste egiten nion esakunen osagarrietan ematen ziren helburu, arrazoin, eta gainerako azalpenen lokarriak arketipoengandik erritualki analogizatu atzizki eta preposizioekin egin formak zirela esateko: “*Anu es favorable, aunque esté lejos=Erra aldeko duzu, hurrun dagoenarren*”, “*no temerás en razón de que Ra está a tu lado=ez duzu bildurrik izango Erra zure ondoan dagoelako (arrazoiagatik)*”, etab., sintaxiako egiturak azaltzean.

Lanaren ondoreetan zera azpimarratzen nuan: giza jakinduria izadi jakinduriaren jarraipen bezala agertzen zela, hizkuntzaren agirietan, hizkuntzaren ehunak ez zuelako apurtu unerik batetik bestera egitean. Jainkoen eta giza arketipoen nastea jainkoekiko erritozko ezkontzaren lekuko ematen nuela.

Maisua amorazteko harek eman lana gutxitzat emanik, beste txosten bat erantzi nion lehengoari *Naturaleza de la sabiduría, según la onomástica sapiencial* titulu pean. Maisuari entzun nionez, zerbaiti jakinduriazko onomastika deitu ahal izateko, ulermen, zentzun eta mintza hitz-aditzak kontuan izan behar lirakeela eta halatan sail honetako hitz-aditz zerrendak egin nizkion hitzetik ortzera, eta auzia euskararena bakarrik ez zela adierazteko, beste hizkuntzen lekukotasuna ere ontzat hartzen nuan. Adimenezkoetan, adibidez, *aN: onua, nous, annuo, nosco, anze, nabaitu*, etab., *uTu: otu, aitu, idea, dokeo, uduri*, etab., *erRa: oroi, aieri, reor, arte*, etab., *iLu: ulertu, oldoztu, obvidar, logos*, etab. jakintza lehen eta behin jainkoengandiko dohaia zela adierazten eta, hurren, giza-kiei emana azaltzen, hala *Ka: ikasi, igarri, gardi, ogartu, capere*,

akordatu, ikertu, etab, **Ba:** *bena, aburu, buru, bulko, pensar, etab.*, **aS:** *etsi, scire, jakin, xabetu, saber, asmo, espen, aztu, etab.*

Beste hainbeste egiten nuen sentzu hitz-aditzekin, adibidez, **aN:** *antze, mihin, ñaka, muzin, entzun, mirar, nozitu, mimo, imintsio, etab.*; **uTu:** *so, sor, adi, aitu, ait^(o), audio, dendu, tocar, otos^(o), odore, sudur, usna, etab.*, **erRa:** *eri, aieru, eroiu, orao^(o), irri, eregu, rinos^(o), etab.*; **iLu:** *el, lotsa, labio, olfato, oler, ele, lengua, etab.*; **Ka:** *ikui, ikusi, koiu, catar, gustar, keinu, etab.*, **Ba:** *abo, botz, voz, beatu, ver, belarri, etab.*; **aS:** *ats, atsa, sentzun, zentzu, sensu^(o), txetu, jasta, xabetu, sapere^(o), sema^(o), aztatu, señal, santzu, etab.*, exenpluetan beti ere monosilaboei lehentasuna emanaz.

Mintzo hitz-aditzekin ere era berean arketipoz-arketipo onomastika zerrenda biltzen nuan, **aN:** *aien, ino, ena, oinon, umnos, inka, antzi, nuntio, mezu, narro, eneatu, moneo, etab.*; **uTu:** *otoi, ots, ujui, aitor, deitu, deitatu, docere, dabar^o, etab.*; **erRa:** *orho, erran, rogo, erasi, eresi, erreku, eritzi, arenga, etab.*; **iLu:** *el!, ela, ele, auli, ulu, lelo, laleo^(o), oles, eleka, loquere^(o), laudare, etab.*, jainkoekiko esankisuna eta otoizkizuna bat egiten zutela adieraziz, giza arketipoetan, berriz, **Ka:** *uka, eko, kexa, galde, gezur, crítica, contar, garraxi, grito, etab.*; **Ba:** *bai, bena, bera/vera, berba, falar, hablar, ipoin, pino^(o), palabra, verdad, poesía, verso, etab.*, **aS:** *esan, sexto, seger, sermón, santzo, sentencia, aztertu, ziurtatu, etab.* gehien bat gizarteko harremanetarako hitzak zirela oharraziz.

Eraskin antzera jakinduriatik harturiko berreun ideia berezien sinomiak gehitu nizkion, onomastikek arketipoekin duten harremana erakustearren, adibidez *aintza=doxa=ore=loria=kabot=gloria=zeli/emari=don=erres=larki=favor=gracia=esker/miratu=txunditu=arritu=liluratu=fascinar/onua=itun=eritsi=opinión=gardi=sinitz*, etab., batzuk besteak baino osatuago. Lan eskerga ikusirik, “qué pena de esfuerso” esan zidan maisuak. Ni zurtuago, baina lan bikaina egin nuelakotan. Ondoreetan zera ziurtatzen nuan: “jankinduriako etxearen zazpi habeak (Es 9,1), hizkuntzaren zazpi arketipoak dira”, “izadiko jakinduria jainko arketipoez azaltzen da bereziki eta giza jakinduria giza arketipoez”, “arketipoek jakinduriaren garapena ezeze, hizkuntzen hazkundea aitortzen

dute”, “sinonimiak arketipoen jarraipenaren ondare dira”, “arketipoak giza adimenaren ituak dira eta ulerbideko hizkuntzaren euskarri”, “arketipoak giza kultura uneen lekuko eta agiri dira”.

Guzti honez bideak urratuta nenkusan, baina maisuak holako gauzen itxuaurrekorik berak ez zuela egiten esanda zeukan.

3.6. Antxinakoen maite jakinduria

Maite jakinduria da denetan zaharrena eta nolabait ama-mendearekin argien lotzen dena, jainko alaba delako gizakiegazko ezkontzan, gizakia duintzen duena. Emakumea, jainko alaba bezala, berez da duina eta maitasun erregintzaz eta amatasunaz, jainkoen lana aurrera daramana gizartean. Gizakumea bera ere ama handiaren ume dager, kasurako, arketipoak agintzen dutelako gizarte ohituretan. Gaiok *Lit. Próximo Oriente antiguo: lírica amorosa* azalpenetan maisuak emanetik edo nere kisa bilduak dira. Gaia nabarmentxo-edo zelakoa azaldu zigun aurretiaz. Ene bada! Testo zaharrenak, tamalez, ingelesez zeuden eta nik nota ta guzti irakurri nahiko nituan eta ez gaztelania handi-handikiz itzulitakoak bakarrik. Inanna maite jainkosa, An jainko alabaren eta Dumuzi unaiaren arteko eskontza poemarioa zan: jainko alaba, giza semearekin ezkontzen bai-da. Euretarike bigarrenari “*Sagarra*, Inanaren *Tigi*-abestia” deitzen zaio azkenean eta bide-nabar aitortzen da Inanaren gorputz *sagaratua*. Dumuziren musua Utu berarena bailitzan goraltzen da. Dumuzi unaiak “*na-shuba* harriez” lan egiten du bere alorrean eta nik “*nabasi* harriez” irakurten, *nabusiari* bai-dagokio bere alorra *nabastea*. Beraz, Dumuzi unaia *nabusitu*>*nausitu* egin zan Inannarekin ezkondu eta harekiko *nabastarrea* izatean. *Na-shuba* harriak, euskaraz “*nabarrak*”, harri *zubituak* direla dino. Beste behin, seigarren kantuan, Dumuziren lana nabasian diharduen idiarenakin gonbaratzen da: *udi/idi* da sumerieraz/euskaraz eta *muzi/muzu* ere egokia da, Inannaren aurrean *Dumuzi itxumustu* dagoen *idia* bezala agertzeko.

Etxea da Inannaren beste irudia, Dumuzik hirugarren kantuan aitortzen duenez: “Inanna, ene jainkoaren etxea”, *ekua* han

sumerieraz, (euskaraz amako “alaba” den bezala) eta beste behin “ideki etxea, ene erreginea”, eta bosgarrenean “etxea erre-galia da zuretzat” eta seigarrenean “bizitzako zure etxea zelata-tuko dut”. *Gela>zela* dator, etxeko gelan zelatatzen bai-da ondo-en etxeko ohorea. Mitoaztertuz hobeki ulertzen da eleizak Andre Mariari “Urrezko Etxea” deitzea. Euskal alorrean, oso berandu bada ere, halako aita mendeko nausikeriaz “amaren etxe” piurari “aitaren etxe” aurkatu zaio. Nola uler genezake “amaren etxea”, euskara ama barik? Hala ere, mistika edo miti-ka gabeko poetak “hilen da euskara” dino, euskara mito bizia hilez gero, amaren etxeak jai duelakoa otu ere egin gabe? Arketipoa “amaren etxea” da, *An* jainkoaren *Inanna* alabak aita-ren *me* “aduak” bereganatu zituenetik hara eta harago. Arketipo zaharren aurrean arrazoiaren mitoa, “aitaren etxea” jarri nahi zutenen burutapenetik urten zezaken halako munstroak. “Amaren etxea”, beraz, ama bera ere “etxea” delako, aita atezain da, edo Dumuzi bezela, unai edo eltzegile, Path jainkoa bezala ¹.

Hirugarren kantuan *ñaiña*-harriez *añañtzen* da *naitua* urdina-rria edo *anila* duela *nahien Inanna* “zeru alabak”. Eta izenok ere-duaren antzera euskarak analogizatuak direla ematen dut, *Nainar-rimendi* lekuko santutegietan. Kantu hau *Courting, marriage and Honeymoon* titulatzan da eta *eztai/ezti* hizkunea lotzen dator.

Exegetek literatura guzti hori Bibliako *Kantuen Kantika* mai-te kanta ulertzekotan aztertzen dute eta nik euskararen sorguak ulertzeko ere. Ikasurtearen erdian ikasleengan edatu zenez, hu-rrengo urtean, ez dakit zer dela-ta, ez omen ziren emongo mito eta antxinako jakinduria gaiok. Aldeko bozak eta izenpetzeak azaldu ziran eta maisuaren aldeko papera firmatzeko eman zidaten eta nik gogotik firmatu ere, zera gaineratuaz: gaiok inoiz baino beharrezkoak direla Euskal Unibertsidade mailan.

Egiptoko maite poemak, askozaz geroztikoagoak eta landuago-ak dira eta arrakasta gehiago izan zuten klaseko entzule gazteen-gan. Sumeriar kantuen Inanna eta Dumuziren arteko maitasuna

1 Ideok nabariago azaltzen ditut *Ama Jainkoa* ikerketa liburuan.

eta ezkontza abesten dute, Egitoko maitaleak Hator maite jainkosaren babesean ospatzen dute maitasuna. Inanna, Anen alaba, Hator, Erraren alaba eta Horusen ama, Atun^(k)/Aitun^(eus) jainkoaren emazte. "Urre=Oro jainkosa" ere baderitso Hatorri. Utu+Ra> *Ator* aglutinatzen da. Dumuzi unaia "aitoren seme" duin egiten da Inannarekin ezkontzean eta Hator jainkosaren babesean halako *aitortasuna aitortzeaz* lortzen da *aitor-seme/aitor-alaba* izatea eta *aitorpen* horrek errito izeneraino eroaten jainko seme-alaben *aitortasun=duintasuna*. Bestalde, *aitor/jator* formak "leinargi, emankor" dinoe, biek ere *Hator* jainkosaren kalitateak direla.

Utu+Ra>Toro/Tor>*shor*^(h)/*sor* "sortu" ere ba dator eta *Hator* jainkosak behei burua ere hartzen du, ugaltasun jainkosa delakoa adierazteko. Hatoren seme Horus=Orzi "zeruko jainkoak" iruski/irargi, begi biko *azor* hegazti piura hartzen du eta hagatik egitiar maitaleak *azoratu* eta *txoratu* bizi dira, "ene bihotza pilpiraz azoratzen da" bezalako esakunetan. Egitiar emakumeei zegokien txoritarako edo arrantzarako sareak egitea eta lanbidea maitaleari xedeba jartzeko piuratzat ere maiz aipatzen da, "ganaduaren kopuruari begitu barik, maiteak ondotoxo daki lakioa botatzen". *Orzi*, aldi eta alde bateko euskaldunen modako jainkoa ere *Hator* jainkozaren *semea* zan eta erratua da ziur, *Aitor* aitalentzat asmatzea.

Etxe, *ate* ere piura nabariak dira, "etxaurretik igaro nintzan, atean deitu eta inortxok ez zidan ideki (...) Oi, ene zoriko ate, (...) ez jardoki indarrez! Zorroiluari *toroa* opa diogu eta giltzari, idia". Hator jainkosak *ate+oro+-tu>atoratu* dezala morroilako>morlako hori, aberea *atoratzean*, *azoratzen* bada ere. Harrezkero hizkune egokiak dira *toro/soro* alorrean eta *toro/txoro>zoro* izakeran eta *Soromendi*, *Asurmendi* tokizenak ausaz *Hator* jainkosaren omenezko santutegi izanak hautematen ditut. *Idi+uro>toro* dator eta berea du *adore* kalitatea. *Ate+orare>adorare* latinoan ere *ore>oratu* "odoratu" erroz eta edukinez bai-dator *ate->ad-* aurrizkiz ornitua.

Bere lana azaltzea egokitu zitzaion neska ikaskidetariko bat, Eliaden erizkide-edo, poesiaren lilurak zegoen azalpenetan eta estrukturazale maisuak, mitoaren zadorretan baino, egituren zie-

gan eragoteko aholkatzen zion. Nik azterbideko kaltegarritzat hautematen nuan neure baitan halako jokera, antxinakoen testoa antxinakoen pentsamoldera, mito bizira aztertu behar bai-da eta ez estrukturalismoaren giltzez, hitza hilduratu eta gero, haizetan eskegitako arraina bezala. Ez al da mitoen egitura bizia gramatikazko eta gainerako egitura hilen aurretik? Baina nola argitu mitoen egitura hizkuntza biziari galdetu barik? Eta nola galdetu hizkuntza biziari, euskara jakin ezik? Nik bideotatik jo gurako nuan, baina maisuak niretzat lan berezia asmatuta zeukan.

Antxinako Sortzalde Hurbileko maite literatura Bibliako maite kantaren kutsuak nondikoak ziren adierazteko zan, halakoxea bai-da exegeten lana. *Kantiken Kantikari* bere garrantzia eman genion, han ere maite lera eta irudi zaharrak ba dutelako errepikarik. "Zuk, Detxepareren maite-kantak *Kantikakoez* gonbaratuko dituzu". Hatarako gida liburua agindu zidan, beraz hiru libururen arteko burruka jasan nuan, baina orrialde gutxiko izan zeitela, mesedez. Eskolan azaltzeko hiru ordulauren nituen, baina bestelako arazoez janda, ostaz gelditu zitzaizkidan hogetabost minuto. Hartu nuan arrapaladaz hoge minutotan irakurri nituan sei orrialde sakatuak. Detxeparenak gozarazteko betarik ere ez nuan izan, baina ale bat, zorretakoa, eman nien ikaskide guztiei, lankidetzat ahaleginaren trukean. Neuretzako ez nuan idoro, ez eta ordenadore zaharrea ere, maite onomastikaren laburgoa izan ezik. Laburgo guztiak bezala, arketipoz-arketipo ordenatu jartzen nizkion maisuari, nolabait azoratuz, uler zezan. Detxeparek *atoratu* barik, "ebatsi" dino eta *azoratu* barik, "arrobotu, ero, erori". Hitz gutxitan esanda, zera nabaritzen nuan. *Kantikako* estiloa hareago agertzen dela Suberoko herri maite kantekan, Detxeparenetan baino. Detxeparena formaz eta edukinaz mester klereziaren edukoa dela biblikoa baino hareago. Detxepareren piura batzuk, ordea, bai Sumerren, bai Egipton eta bai Biblian ere agertzen direla "maitasun gaitza", "maitea mediku" eurentan eta jainkosei eman "andre, erregina" tituloak ere ba darabiltzala.

Edozelan ere, Unibertsitatea akulari gertau zitzaidan, baina ez neure arduren meriku, nahiz "Euskal Unibertsitatea" deitua, ez bai-da "euskara amaren etxea", ez eta atezaina, euskara ama.

3.7. Ukipen linguistikoak

Euskararen alorreko ukipen linguiskoek bila nenbilen eta ustez amarenetik ate idoro nituen nabarmenenak. Horrela konturatu nintzan amaren etxea, oraingoa baino, handiago eta zabalagoa izan zela antxina, eta haren oinarriak nonahi bilatzekoak direla. Horren frogatxoan zan, adibidez, “*Ukipen linguistikoa: euskal lexikoa erdarari*”, nahiz toponimian, nahiz Erdi Haroko autoreengan Errioxan. Euskara amaren politikak lurraldez beste “unibersidadea” dauka, nahiz gaurko etxe txikian bizi izan. Ama euskara ez da alboko herrien abotz ondakin, herri askoren kultura lekuko baino, nahiz beste herrialde askotan izkutuago agertzen den Errioxan argiago dagerkuna.

Beste gai bat: *Herri euskararen azterketa etno-linguistikoa*. Herriaren abotz guztiak dira beharrezko, euskararen jatorriaz lotu gaitzaten, Mitxelenak aipatu, katebegiak osatu ahal izateko. Bestalde, hizkerak antropologiaz biziago doaz, egitura zurrunen aginteaz baino eta antropologia horretan fonetismoez landa, ba dago beste imentsiorik. Saio bat: *Euskal autore batengana hurbiltzeko modu bat* eta kuxidade bat, berriz, Unamunoz tesina egina zuen batentzat *Significado de la tesis doctoral de Unamuno*. Unamunok Madrilen lortu zuan dotoradutza eta epai-mahaiko buruari agur egiten dio sarreran: “Jaun txit agurgarri: (...) Handia da une honetan dudak nahasmena eta eskua luzaiezadaizula eskatzen dizut, zure laguntzaz igoten ahaleginduko bai-naiz. (...) Euskal etnologia eta filologiako arazo latzenetarikoa azaltzera bai-noatzu”. Lanaren amaieran lau ondore ematen ditu laburki: “1) Gaurdaino Euskal Herriaren jatorriaz eta euskararen eta beste hizkuntzen arteko senidetsunaz esan denak ez du zientziatzko oinarriarik, 2) ez dago frogariko nahiko gaurko euskaldunak antxinako iberiarren ondakin direla esateko edo ukatzeko, 3) eziurtasun osoa metodo ezatik datorrela eta arazoa ondo ez planteatzen, 4) ia ezertxo ere ez dakigula prehistoriako euskal kulturaz”. Hainbestez lotsatuta gelditzen da *Crítica del problema sobre el origen y prehistoria de la raza vasca* ikerketaren autoreak, ondorenak horren ezkorrak atera zaizkioala-ta, arazoa berriz

ere hutsetik hasi behar dela aipatuz. Unamunoren tesiak 1881-an ikusi zuan argia. Haraz gero, hutsetik barik, oinarritik, hasita zeukan Azkue jaunak hiru hizkuntzatan eta 1905-an argitaratu zuan *Euskal Hiztegia* eta haren *Atarian (XVIII)* dionez, nahiz etimologietan hasteko adorerik ez duen, liburua ondo irakurri eta beste hizkuntzekin gonbaratzen ditueni linguistikak bitxi gordeak erruz emanen dizkietela agintzen du.

Barkatzen diot Unamuno gazteari, azter bidetan bide bakarizat, beraz metodo bakartzat, euskara dela dinolako, ez oster, Unamuno harroari, Azkuek bildu funtzezko lanaren aipamenik eguno egin gabe, barne-historiaren bide=metodo bakarra galduz emoten zuelako.

Ikasketa Nausien Unibertsitateara jo nueneko tesi asmoa bi urtetako ikasketak bete ondoren, izenez eta edukinez bestelakoa zan eta, batez ere, Bibliografia zabalaz ornitu eta berritua neunkan. Hasierako asmo ber-bera zan funtsean, baina beste terminologia batez eta frogagarriez bermatua eta frogagarriok Unibertsitateak nere eskuetan utsitako armak ziran, bada, neure tesiaren alde idatzi zuten hainbat erlijio historiagilek eta, eurei esker, ezagutu ahal izan nituen gure asaben eta aideen jainko zaharren izenak eta mitoak, neuretzat bidea idegi bai-zuten Bibliako hainbat exegetek eta euren ardurei esker irakurri ahal izan nituen sumertar eta egitiar jakinduriako testook, nere argibiderako ari izan bai-ziran antxinako mitologia eta herrien jakinduria idatzi zutenek eta, batez ere, neuretzat idatzia bai-zuan Azkue Handiak euskaldunen jakinduria oratzen duen bere *Hiztegia* eta neure tesiaren alde ahalegindu euskal etnografoek, J.M. Barandiaran bederen; nik euren azalpeneko errito eta izenen argitan, ezagutu ahal izan bai-nituen antxinako erritoak eta eskerrak Bachelor autoreari sinboloen materiari egokiago lotzen erakutzi zidalako eta Jung sikologistari arketipoen dinamikan, gizakiagandik Jainkora eta Jainkoagandik gizakiagana sortzen den atezuaren berri eman zidalako. Nik euskal belarriekin, eta euskara amaren emazabelarekin topo egiteko irrikaz ikusi, entzun, irakurri eta aztertu nituela Unibertsitateak aukeran eman zizkidan gaiak.

Unibertsitateari sor diot neure lorpena eta, erabat, neure zaputza. Negar ixilak gutxi gora-behera, pozteko izan zait lorpena. Nere arreba monjiak lan ona egiten ari nintzela esan zidan, eta nik azterlanok Jainkoak nere biziko penitentziatzat hartzen nituela erantzun nion.

Tesiaren egiturak testo bat aztertzeko maisuaren bideak jarraitzen ditu. Lehengo: 1) arketipoetan, jainko edo giza pertsonaiak, 2) mitoen ekintzak edo jasanpenak, 3) aldi eta tokien zehaztasunak, 4) Jainko bideko sinboloa eta erritua, 5) jakinduriaren lekukotasuna, 6) etnografiaren laguntza, 7) hizkuntzaren azpiegitura eta 8) gramatikaren frogak. Bigarren, testo inguru bezala: 1) onomastikako sinonimia, 2) toponimiako aurrizki eta atzizkiak. Arketipo bakoitzeko azteketaren ondorenak eta ondoren orokorrak laburki: "euskararen atxikitasuna eta iraupena arketipoekiko duen loturatik dator", "arketipoon bidez murgilean eginaz, euskarak barne segetuak erakusten dizkigu", "euskara ez da aita eta ama gabeko hizkuntza, antxinako eta gaurko hizkuntzen arteko batzarrean erdiko aulkia sor zaion hizkuntza amandrea baino".

Hirureun horriko lana urkeztu nion Tutoreari, urte bi aurretik aurkeztu nion tesiarekin gonbara eta ohar zezala bibliografia oparoa, baina ez nintzan ausartu, berak artean erakusten zituan arazozen zerrendan zozpalik ez ezartearren. Hala ere, tesiaren titulorekin ez nentorrela ados esan nion, bada oraindino hanarteko biurrikeria erakusten zuan "Las estirpes lingüísticas a la luz del vascuence" izenan. Argitaratzeko nuen tesia *VASCUENCE Y MITOANALISIS* soilik deituko zela ziurtatu nion. Berari berdin zitzaion batera edo bestera deitzeak. Ezin eikidan oharririk egin, bada, ez nik berarekin eta ez berak nirekin ez genuen pauso bat aurrera eman.


Gauza bat ohartzen zidan, hala ere, doktoradutzarako azterpen lanetan NAHIKOA atera beharko nuela maisuaren gidapean. Eta ni ahapetik "ostera ere nere zidorrak ez diren bide ertzean aparkatu nahi nauzue" marmariz aldendu nintzan, gizabidezko agurrak egin ondoren.

IV. EUSKARA IKERKETAN EDO *ELEIKER I*

Eta euskal ikerlaneko liburugintzan hasi nintzan inongo Mezenasi begira egon barik. Neuk idatzi, neronek ordaindu eta, ahal bestean, banatu. Miloi bat pezeta eta baimenezko aurrezkiren bat nituen literatur sariatatik gelditzen zitzaizkidanak. Ordenagailu lanetan bezala, argitalpen eta irarkola ezaugarrietan Ibaizabal Argitaletxeak berea lagundu zidan. Liburugintza Word Win 2 motel xamarraz ekin eta ekin jorratu nuan liburu tankeran. Tipoa tamainaz eta egituraz aukeratu, zuzena eta makurra ondo bereziak eman zitzaizkan: ba, *Garamendi* deitu niezakeion euskaraz Garamond horri. Orrialdeak aurreratuala, noten kopuruari tokia egin, eutzi bakoitzari zegokion orrialdean, gorde. Erderaz ari nintzan euskararen munduan, euskal hitzak makurrean eta jarraian gaztelaniazko edukina errepikatzen nuela, bada, euskarari buruz esan behar nituenak, Unibersidadetik kalera, mundu guztiak jakin behar zituena, baina, aldiz, *Amarekin topo* honakoak, adibidez, etxeko arazotzat hartzen ditut, etxekoen artean bakarrik garbitzeko.

4.1. *Vascuence y mitoanálisis*

Hirugarren milagarreneko atarian argia ikusi ahal izan zuan *Vascuence y mitoanálisis* (2000) tesitzaokoak. Sarreran bertan Platonen mitoa egozten diet, mitoazterketaren bildur diren hizkuntzalariei, euskara sakonean ulertzera ausart ahal daitezten: "Platonen Kobako mito alegiak argitara urtzen gonbidatzen gaitu, gauzak eguzkiaren argitan ikusi ahal izateko. Kobako arbelean hitzak adierazle/adierazi azalpen soileko dira, baina mitoaztertuz gero, barnea erakusteraino, garden bihurtzen dira, fotolitoak argitan bezala. Hala ere, gauzak hitzaren azaletik, teoria zaharren lehio ditziraz, horman gerizak bezala, ikusi ohitura zaharrak zientziaren bidea zein den benetako eztabaidatzera garamatza: kobako arbelean idatzita dagoena, ala zelaiko argi dizdiratan ikusten dena".



Halantxe nenkusen hizkuntzalariak, mitoen bildurrez koban hizkutatu, atekatik sartzen den argiak barruko horman izpilatzen zuenari begira, eguerdiko argiak dena atzin zezaken bildurrez. Baina zeren bildur dira mitojaleok? Mitoak jango ete dituen bildur? "Mitojale" deitzen die Durandek mitoa gorroto duten estrukturalistei eta arrazionalistei. Zeren bildur, mitoek ez bai-dute aurkitu sinbolorik koba zuloan, izadiko argi zabalean baino?

Gaur ere izen ber-beraz bateatuko nuke neure tesitzako lana, *Vascuence y mitoanálisis*, ezeren lotura barik, zerbaiti abiada eman nahi dion euskal arazo bezala eta ohar berdina egingo nieke hizkuntzalariei. Liburu azalari ere apaingarri berdina jantziko nioke: zeru urdinean, solo biribila, erdi argi, erdi ilun, argian ilunik *Vascuence* dinola eta ilunean argiz *mitoanalysis* duela, metodoak ilunean argi dagikela adierazten eta azal ostean, eupada antzean, mundua harritu zedin: "zedorrek galde diezaiokezu euskarari mitoaztertuz, eta euskarak bere asaben berri emango dizu, herriko Etnologia, jainko zaharren kondaira eta zure abizenen segetua, direnak direla, edo Gramatikaren egitura azalduko. Euskara aldien gaueko argiaren giltza da, berak bai-dakar konortera mediterrane-ar kulturen oroitza, bera iraganaren sarrera duen hako Paleontologia eta milaka urtetako gomutaren lekukoa".

Ezer gehitu edo aldatu behar banu, sarrera oparoagoa egingo nion irakurlea bideratu ahal izateko, baina ni neu ere hasiberria nintzan honetan, norabidetan eta metodologian seinaleak emateko. Mitoazterketaren bidea eskatzen dut euskararentzat, harteko bideen inoraeza salatuz, metodo hori gizabideko ikasketa denak onartua dutelako jadanik, Linguistikak izan ezik. Testoak mitoaztertzen dituen jeinuak ez al ditzake aztertu testoak inutzen eta gauzatzen dituen hizkuntza? Batez ere, ez al dezake aztertu mitoen garaian sortu zen euskara, mito bizia?

Kendu, gramatika aztertzeak akatzak kenduko nituzke eta, hurrengo liburutik hasita, Sintaxiari egin diodan analisisa gehituko. Toponimiaren azalpenetan tinu hobez joko nituan onomastika eratorriak eta atzizki-aurrizkien iturriak. Hala ere, linea orokorretan ona da, neuk esatea lotsagarria denarren.

Ondore orokorretan adoz nago esanaz, nahiz orain lehen baino alderdi gehiagotatik ezagutzen dudan. Hitzik nabarmena *Mitolingvistika*, mitoz azterturiko Linguistika adierazteko, alegia, euskal hizkuntzalariei, bederen, opa diedana. Ideia ausartena: "euskara hitzez hitz banatzen den antxinako testoa da eta, egoki mitoaztertuz gero, hako gizaki jainkozalearen kulturako diztirak berrizten ditu", "euskarak lehen-euskara garaitik gurasoak ditu zeru-izadian eta ahaideak lur-gizartean, giza jakintzaren garaian burutu zenetik", "euskara ez da bere baitan itxitako hizkuntza, hizkuntza guztiei, mediterraneer ingurukoei bedere, idekia baino eta hizkuntzaren jatorria argitzeko giltza bat, uherak jan ez duen giltza, du beragan", "mitoanalisiak Linguistikaren uste batzuk aldatzea eskatzen du, euskara ez delako inguruan ahaiderik ez duen hizkuntza edo mito itxia, mito bizia baino".

Liburua hartu eta pozarren Unibersidadera, Euskaltzaindiara eta Durango Asokara eraman nuan, tutoreari, maisuari, bibliotekariari, lagun batzuei, Euskara Sailean ardura berezia dutenei, Yakin zuzendaritzari eskura eman nien. Mundu guztia zebilen arazotu, abegi onezko irrinoren bat eta mesfidantza eta koldarkeria hauteman nuen askorengan. Unibersidadeko ikaskide batek agur egin zidan egun haretan bizi naizen etxe ondoko Ikastolan. "Aizu, bai -esan nion harro asko- ba hako amesen eta ahaleginen ondare, atera berri joat *Vascuence y mitoanálisis* liburua". Eskuz esku erregaluz bertan hartzekoa zan, baina eskarmendu gabeko mutil harek *mitoanálisis* entzun zueneko, ainaninoek baileroen, "ez, ez, joan egin behar dot" ihesian joian. "Koldarrak zaree!" hots egin nion ostetik. "Koldarrak zaree" uharian urten zidan, berari eta bere ainaninokoei esana bailitzan edo irain beraren partekide egin nahi baintuen euskararen berri oni, eskarmendu eta guzti, halako mukerreriak erantzun diotenei. Hako Tutoreak telefonoz zorionak eman zizkidan eta "suficiencia de investigacion" betebeharrekoa gogoratu. Gauzea denbora galpentzat hauteman nioneko, beste deien arduraz larri utzi nindun bertan. Abegiaren laburra!

Eguneroko baten txokoa duen/zuen ezagun bateri bere entzulegoari belarriak berotzeko eskatu nion, hatarako "*El padre y la*

madre del euskera” lana prestatu, Unamuno euskarari egotzi “intrahistoriaren” giltza aipatzen nion edo Mitxelenak euskararen jatorria idorotzeko eskatu-metodologia berriaz, etab. “Aizu, oraindino gomutan dut” agindu zidan handik lau hilabetera. Ez eta lau urtetan ere. Amezaga jaunari, Unamunoren madzixa ipini nion aurradan eta harek behingoan atera zidan *Gara* kultura-txokoan. Zienziadun aldizkariak, berriz, ez zuan nonbait zintifikotzat haute-man tesitzakoa eta eskuak garbi, badaezpadan. Euskaltzaindiatik adeitasunezko gutunaz erantzun zidan, esku izkribu eta guzti Haritxelarre Jaunak. Beste lagun batzuei, ostera, nigazko harremana eten egin zaie, liburua eskeini nienetik eta hona. Behar bada, ez dute irakurri, ez dira uretan murgil-zaleak, azaletik begitu eta ez dute ulertu eta nirekikoa traba egiten zaie, sorginen mundua auke-ratu izan bainuen. Edozelan ere, nire osasunaz ni eurenaz ardura-tzen naizen baino gehiago, ez arduratzeko dinotset halakoei. Euki nazatela adinonean Hator adineko atarrantetzat, maixu zaharren zilbor esteak gainditu edo talde ohargabekoen ametsetatik iratzar-tu eta euskara amaren etxera atoratu nahi izan ditudalako. Ba dakik goizalde bakoitzean esna txilina joten duenaren arreta eta eskua ostaz izaten direla bedeinkatuak.

Hanarteko umeen lotzorroak ez dio onurarik ekarten ama euskarari. Eurak euskara amaren *etxean* eta ama, berriz, etxearen ukapena den *txekan* edo *ziegan* kateatu. Amaren etxea idorotea ez zitzaidan izan gaitzena, bada, euskara amak berak utzi zizkidan harako zedarriak bera ibilitako bideetan zehar. Askozaz zailagoa zait, euskaltzale jakintsuenek irrika zuten bitxia ezustean eskueta-ra etorri zaidala aditzen ematea. Ez didate sinisten edo leihatila aurkatzen diote egunari, lotan jaraitzearren. Inortxok ere ez dit esan, hala ere, “besteak besteko bide erratua duzu ori ere”. Holar-koekin, behenipehin, Unamunorekin bezala, eztabaidatu dezake-zu, baina ixil susmogarria edatzen didate inguruan, mortuko bakardadea opa didatela. Mortuan oihu egin beharra dut, euskara amaren berrion hau euskaldungoak jakin dezan, eta eguno inork arrotatu ez dagion bere aitorseme-alaben nortasuna. Lana ene biziko zigortzat hartu dudanez gero, ba dakit burutzeraino iraun

beharko dudala munduan. Apurka-apurka “inconsciente colectivo” hortatik askatu eta atoratu ahal izango ete ditut umeok amaren etxera, edo barkatuko al didate harenganako bidea leheen aurkitu izana eta esna txilina lotientzat goiztxo jotea.

Ulertuaren jasa hartu eta lotsa gabe honela salatzen dut hizkuntzalarien ganora liburuaren zabalkunderako atera nuen agirian: “Mitoazterketa da euskararen jatorria azaltzen digun bide berria. Antropologiaz zerikusia duten ikasgaiak, linguistika izan ezik, bide honen zaleak dira eta ondore onak izan dituzte dagoneko. Hizkuntzalariek, ordea, metodo antzu eta erratuen jarraile, jatorrasun agiria ukatzen diote euskarari, Europako hizkuntza zaharrenari, eta porrot egin dute hizkuntzaren jatorria bilaketan. Indoeuropeismoaren teoriei loturik, euskara, argitu-ezin dokumentua bailitzan, bazterten dute, bera bakarrik dela Neolitos garaitik eta hona eusko-europeismoaren agiria argi eta garbi erakusten duena. Erromantze zaleak Greziako eta Erromako seaskan kulunkatzen dira eta aihergoz begiratzen diote euren leinargia ez baitan jartzen duen euskarari. Euskal hizkuntzalariek, hitza zurrundu zale diren estrukturalismo eskolen jopu, euskararen hezurrekin gelditzen dira, eta ez dute aurrera pausorik ematen, XV-tik XVIII-rako euskal apologistek hartu zituzten jipoien bildurrez. Mitoazterketa da Neolitos garaiko gizakia ulertzeko bide aproposa, berak azaltzen bai-digu hizkuntza sortzeko gure asabek erabili zuten egitasmoa: arketipoen ituei lotu-hitzak erritotzko indar sortzailea izan eta jainkoen eta gizakien arteko ulerbidetarako zeitekena. Euskararen barne mezua, beraz, mitoaztertutaz ulertzen da. Hori da eukaldunek itxaroten zuten barne-historia eta gure asaben jakinduria izkutua, *Vascuence y mitoanálisis* ikerketak azaltzen dizuna”.

Urrengo urtean (2001) gutxiengo hizkuntzen Urtea ospatzen zenez, *Euskararen Berribaperera* euskara lehendabizi mitoaztertutaren berri bidaltzen nien, “gaur giza arloko diziplina guztiek mitoanalizatu egiten dute, sikoanalistek gizakiaren sakonak aztertu eta mindua konplexutik askatzeko, sikoanalizatzen duten bezala -oharrazten- hala ere hizkuntzalariek, literatura bai, baina

literatura sortu duen hizkuntza bera ez dute mitoanalizatu, ausaz euskara bezalako hizkuntza zaharrera ez direlako hurbildu", etab., baina ez zidaten tokirik eman. Zera pentzatu nuan: "euren lana euskara normalizatzea da eta, ausaz, euren ustean, nire asmo hau ez da normala". Hala ere, exegetek dira gaurdaino hizkuntza eta kulturei buruz azterketa sakonenak egin dituztenak, mitoaren erakuskizuna ere ez dutela saiezen. Nik euren bidea jarraitu baino ez dut egin eta euskara bera hartu metodotzat, hizkultzariek bazterturiko zuzia, hain zuzen.

4.2. Euskararen ereduak

Urte berean, ile batzuk geroago *Euskararen ereduak* liburua argitaratu nuan. Nolabait lehengo liburuaren laburpenez euskaldunentzat antolatua dago, eta hala ere, heldugoa da azalpen mailan, batez ere *Euskara ereduena bila* I kapituloan eta, noten loturretatik askatu, irakurlea begiratzen du eta edukinen frogatan lebilkena, berriz, aurreko liburura bidaltzen.

Azaleko urdinean solo birilalaren erdi zuri-baltzak makurka erdi banandu agertzen ditu, urdinean lau eguzkilore eta baltzean hiru eguzkilore koloretan, hizkuntzaren zazpi arketipoak adierazten: lau zerutar, hiru lurtar eta nolabait gure poeta mistikoaren "zerua lorez, lurra izarrez" gogarazten zidana eta arpegi ostean azalpena: "Josturatik ezagun ohi da jantziaren moldea. Jantzia bezala, euskara itzulitara jarri eta haren eredu, josfiruak, joskilearen artezia, jostorratza eta, hareago, joskilearen asmoak ezagutzeko, euskara mitoaztertzea baino ez dago".

Sarreran *homo symbolicus* deitu Neolitosko gizakiaren aurkezpena egiten dut, ots, sinboloen dinamikan gauzak aztertzen eta azaltzen zituena, sinboloen zeregina goia beheaz, zerua lurraz, jainkoa gizakiaz orapildu eta kosmo bereko dantzan mugiarazten bai-zituan, erritmo eta otsen musika berean loturik. Euskararen oroitza zertan den azaltzen du, talde ohagabearen ametsetatik ate, sinboloen ondore den mitoen kondaira eta erritoan osatzen den itunbena eta hitzaren magia, mito kondairetako pertsonaiak hizkuntzan arketipoena egiten bai-dute, eurak

direla *euskal ereduak*. Arketipoetatik hara, ohiuzkoak, lehen otoi ereduak ematen ditut, laburgoz azaltzen eta inobre aintzat hartzen. Otoitzok dira, hain zuzen, gizakiak jainkoekin erabili duen lehen hizketa. Umeak amari deitzean, beste gabe “ama!, ama!”¹ errepikatzen duen bezala, gizakiak nahiko zuan jainko izena errepikatzea, bere beharriaren emendio berak antola zezakelakotan. Ohiuzkoek arketipoekin bat etortea ere harrigarria da eta honetan jainko arketipoek giza arketipoekin duen aldea, haieki-koak bai-dira benetako otoitzak gaurdaino, eta besteok, berriz, gizarteko agurrak edo zemak.

Tokizenetatik bilduta, euskeraren aurrean erderak aurrizkiak atzizki egiteko duen oitura erakusten du, *Ainamendi/Montaine*, adibidez, edo *Otamendi/Montoto*, batak mendiaren norentasuna sustantiboez gorde eta besteak adjetibatuz, ez baitan jartzen dutela izena/izana. Eskerrak egitura honeri, euskaren oroitza iraunkorragoa da eta jokera horrek sorrarazi zituan gero ere Gramatikan emendio bikaina egingo zuten aurrizki/atzizkiak.

Ikusiak ikusi, eta bide ziurretik ninoelako seinale, M. Müller autoreak esana aipatzen dut ondorenetan: “Egunik egun hizkuntzen zadorrak ezagunagoak egiten zaizkigu eta, dudarik gabe, azkenean gramatikazko analisiak kimiazko analisisien arrakasta izanen du”² eta aipamena Azkuenetik hartuta dagoenez, beste asaba honen iragarpen ezagunaz jarraitzen, Mitxelenaren “katebegiak” aipatzen eta katebegion osapenean hitz batzuk jada Euskal Hiztegian hartzen duten lehentasuna aipatzen, edukinez hain jori diren monosilaboak, bederen, lehen euskararen lekuko apartak bai-dira eta euretan hainbat aurrizki ezezagun edo aitortzat ez emanak. Hermetikoek, itxumustuan kontuizu, egiten ari diren lana aipatzen da, euren beharrea amestu ere egin ez zezaketen laguntza etorri bai-zaie, ahozko literaturan oinarritzen den kultura zahar baten lekukotasuna, euskara dutela zuzia ilunpean.

Euskararen ereduak zabalkunderako gertatu nuen paperean

1 Egiptoko otoitza jainkoen izena errepikatzean zetzan bederen, eta islamiarren artean *Ala, Ala* errepikatzen da gaurdaino.

2 AZKUE, R. M^o., *Dic. Vasco-Español-Francés*, or. xxiii, atarian.

1° laburgoa: OIHUZKOAK ZAZPI ARKETIPOEN ARABERA

AN	UTU	ERRA	ILU	KA	BA	AS
êne/en	otoi	ara/ario	el/ely	ka/kia	ba/bua	jau/zaust
enei/ená	ut/ux/tira	ra/rau	olé/iole	ako/eko	but/pues	asa/ajai
iñó	txut/ixo	arrano	hil	gel/gora	bea/vae	jas/txen
oino	et/eit/atx	arraio	ol/alló	gero/coño	ave/afa	chao/txek
añó	uju/ujui	rayos	ala	agur	eup/vah	xapi/zape
ainü	otian/utinam	aro/urra	elas/alto	kaixo	hip	txist
ân/ana ^(b)	zut/aída ^(b)	arre/aira	ale/ela	kontuz	vaya	esti/este
amen ^(b)	íxala ^(b)	osterá	arren	alajina	agian	balinba
						ezbe

Ohar: Oihuzko deiotan euskara, hebraiera, latina eta erromanikar hizkuntzak dagerz.

indartsuago astintzen ditut euskara horren bazterturik daukaten hizkuntzalarien ganora: “Euskararen ereduak ezagutzen dituenak ba daki euskararen jatorria nondikoa den, ereduok adierazten bai-dio euskara bezalako hizkuntza arautua asmatzeko ze egitas-moa izan zuten gure asabek. Neolitosko gizakiaren jakinduria ezagutzen duenak ba daki haren pentsamoldea eta sentzutik zentzura doan pausoa, ots, sentzuz ikusi ahal daiteken sinbolotik ikusezina den ideiaren zentzura doan bidea, irudi batetik iruditura doana bezalakoa dena. Lehen Neolitikoa historikoki Sumerren nabarmendu zenez, ohartzekoa zen ea hango jainkoen santutegi ziren/diren gure mendietan izenik errepikatzen duten, eta baiezkotan, jarrai bide hortatik gainerako tokizendegia iker-tzen, gure asabek hizkuntzako onomastika, izenak eta gramati-kazko lehengaiak nondik analogizatzen dituzten jakiteko”.

Gure mendiek euskaraz omen dakite eta euskaraz mintzatzen jarraituko omen dute, euskaldungo bizia ahaienatu dadinean ere. Nori axola dio, ordea, gure mendien arteko barbaroa, guk Aito-renseme-alabok haiiek dinoena ulertzen ez badugu? Gure etno-grafoek aintzat hartzen dituzte asaben mitoak, gure herriak eten-gabeko katean ospatzen eguzkimugetako erritoak, baina gure hizkuntzalariek, erdal maisueri salduak bailiran, ez itxuago, ez di-tuzte aintzat hartzen gure mitoak, ez ikertzen gure mendien ize-nak mitoetako jainko izenak ete diren, eta sinboloen muina gal-detu beharrez, adierazle/adieraziaren joku motxean gelditzen

dira, Saussure maisuaren ikasleen eskola-apunteak dogmara jasotzen bai-dituzte eta *euskararen eredu* jatorrak baztertzen. Uste dute gauza bat dela Linguistika, zientzia formala, eta beste bat ahozko literaturako mitoen eta ipuinen mundua, hizkuntza-ren antropologia ere baztertu egiten dutela. Horrela jardunaz, irain egiten diote herriari eta giza gaia gurean hain jatorki aztertu duten maisuei eta kalte handia, berriz, euskarari, bada, euren metodo antzuei erruz, euskara bere buruaz ezer ez dakien hizkuntza bezala aurkesten dute munduko hizkuntzen batzarrean eta susmogarria da benetan bere asaben munduaz ezer ez dakituen hiztunen nortasuna. Hizkuntza erromanikoek gerkeraren eta latinaren koartada daukate, indogermanikoak deitu hizkuntzek, berriz, sanskritoa eta sela-joku horretan euskara jesarlekurik gabe uzten dutela. Noiz arte itxaron behar dute euskal hizkuntzariiek ustezko indoeuropeismoa utzi eta euskoeuropeismoa aldarrikatzeko? Indoeuropearrek European sartu orduko, euskara jakinduariaz eta hizkuntza artesiak duindu zegoen eta gerkerak eta latinak, idazlarien hizkuntza artifizialak (ez herriaren ahozkoak), beste funtzik ezean, gure asaben barbaroa "barbaroen" erropek artazikatuaz jantzi zuten euren soina.

4.3. Jainkoa eta gizakia euskararen oroitzen

Giza barnearen azterlari Jung autoreak gizakia hasieran norbere arketipoan bildua dakus, arik eta bakoitzasuna orokortasunaz aurkaten dueno. Orduan berez jausten da kontuan giza arketipoaren elkarkidea jainko arketipoa dena eta jainko arketipoa dela giza arketipoa bere duintasunaz burutzen duena. Gizakiak bere dentxoia ezagutzen dueno, Orokortasunean dakus eta amesten du Jainkoa. Jainkoa dantzatzen omen zaio gizakiari gorputz ariman, Haren itzalak eta itzalgarririk daukala. Gizakiak bere maite eta oldar jokeren arketipoa Jainko arketipoan orekatzen duenean, orduan lortzen omen du nor bakoitz izatea. Soinkeraz oso eta sortzaile hautematen bai-du burua Orokorraren inguru, korpitz eta barne gizatasunean heldu, baina erabat jainkozale. Honela gizakiak bere asaba jainkotuekin zubi eginik, herkidegoa sortzen du. *No/To=Ni/Tu>Zu* hitzetan azaltzea baino ez du, hitz



No eta To Ulainaren bila

hori mito bizia izango delako. Hitz hori omen da, Jung autorearen gardiz, historia zaharren lekuko eta gizartean gertatzen den egia. *No/To* izenlagunok neure kabuz ezarriak dira, emakumea eta gizakumea aroan bildurik aidean *Era/Ulei>Ulainaren* "el Otro" bila bailebiltzan, hor biltzen bai-dira elkarriketatzeko prestatzen diren gramatikazko pertsonak: *No* eta *To* eta *Era* aurrean, *Era/Ulain* dela *No/To* bion arteko egiaren lekuko.

Jung sikologistaren terminologiari aproposa eritsi nion bezala, haren talde ohargabe "inconsciente colectivo" deritzaion, gizakien bein-behineko oroitzapena, ametsetatik esnatzeko ordua ote zen otu zitzaidan. Talde ohargabearen oroitza giza ondarea omen eta dinamika estandagarriak bizkortzen omen du halakoa irudi eta sinbolo arteko pedagogiak eta logikak bere hizkeraz inutzen duela eta jainkozko irudiaren segetua omen daroa mezuan, ohargabea hizkuntzan egiztatzten bai-da. Hala dakus Jung autoreak, erlijioen historigileei jarraiki, eta halako bideetan hermeneutak gomentatzen dutenez, hemen bai sinistu behar dela, ulertu ahal izateko, edo ulertuz, sinistu ahal izateko. Gaueko ametsei barik, zergatik ez galdetu orduan antxinako ametsak egituretan txortatu zituan antxinako hizkuntza bizi bateri? Asmakizunak ez dira hutsetik ematen eta beste ikerleen asmakizunez baliatzen nintzan euskara den oroitza bizia argitaratzeko. Talde ohargabea al da giza oroitzaren ondare, ala euskararen oroitza? Batari sinistu egin behar omen zaio eta besteari entzun. Zein da zientziak aukeratuko luken bidea? Euskarari entzutea, ez bai gabe. Horixe idatzi nuan eta *Jainkoa eta gizakia euskararen oroitzan* titulatu eta (1001) argitaratu.

Ustez pauso handia dago antxinako gizakiaren ametsetako oroitza edo giza burumuinean egosten denetik antxinako hizkuntza baten egituretan dagoenera, euskara leluko. Ba dakit talde ohargabe hori iratxartzeko txilina (eta txilinaren mihina den euskarak) eta hermeneutika arauak bideginen ez dutela jada aurretiaz inori fedea eskatu beharrik, euskara bera bai-dute leku-

ko, paleontologiako aztarrenak baino askozaz argiagoa. Herme-
neutek euskara ikastea daukate, euskara ikasi eta euskara asma-
tu zuen gizakiaren pentzamolde arabera galdetzea baino ez dute,
gaurko zientziadunei nolabaiteko fedea eskatu barik.

Ze edukin eta ondore? *Antxinako hizkuntza bat antxinako giza jainko zalearen lekuko* izan zeiteken liburuaren izena eta oraindi-
no euskararen izena *Erlijioen Historiako Hiztegian* ager dadineko
ordua itxaroten dut, umeak eta harriak hitz jario ari direnean,
jakinduriatzko hitza ezin daitekkelako imilaunpean gorde.

Liburuaren izenetik izanera, "giza jainkozalea" den *homo reli-
giosus* delakoa nor den, edo berdin dena, erlijioa zertan den azaldu
behar nuan laburki. "Erljioa, izadiaren, zeru eta eguzkiaren islada
giza barnean" Ch.F. Dupuis (1749-1809) autoreak aipatzen zuenetik
hasita. Giza jainkozaleek mugatuaren eta mugagabearen kon-
tzientzia omen du eta Jainkoaren manupeko aitortzen da "ez bai-
gera geure baitako, Bestearen baitako baizik" euskal esakunak dino-
nez. Zuzen dino F. M. Müllerrek (1823-1900): "Erljioen azterketa
herriek euren jainkoekin berbetako erabili zituzten hizkuntzen ikas-
keta da". Hagatik liburuaren azal ostean agertzen den aitortpena ere:
"Euskara asabek jainkoekin berbetako erabili zuten hizkuntza da.
Beraz, euskara Jainkoaren eta gizakiaren arteko Ituna da".

Giza jainkozaleari *itzala* eta *itzela* zaio Jainkoa, itzala ilun eta
bildurgarri sumatzen duelako eta itzela erabat, handi eta erakar-
garri zaiolako. Halatan nabaritzen du baimena eta espenna, ogena
ta zigorra, damua eta barkamena mitoetan agertzen den arabera.
Bizitza gauza sakratutzat dauka eta amatasuna Jainko sorkun-
tzaren luzapentzat, Sumerreko esakunak dinonez: "Emaztea har-
tzea gizakien zeregina da, baina umeak izatea Jainkoarena".

Jainko agerpenen hizkuntza sinboloa da: sinisten denaren
unea alde batetik eta haren azalpena bestetik. Sinbolo hau azpi-
marratzen du azaleko apaingarrian: eliptika gorrista zeru ubela-
ren gainean, eliptikaren inguru argi bila dabilen satellite barran-
daria. Giza jainkozaleak sinboloen bidez galdeten die jainkoei eta
sinboloen bidez haiekandiko erantzuna jasotzen, beraz, sinbolo-
etan moldatzen ditu aburuak eta haien bidez azaltzen eta hagatik

homo symbolicus ere deitzen zaio. Beretzat mitoa Historia Sakratua zan. Mitoan giza ekintzari eragin indarra ematen dion arketipoa idoroten du, bera du behin-behineko eredia eta bera egiaztatzen ahalegintzen zan. Eragintasuna lortzeko erritorea jotzen zuan, erritoak hitzaren arteziaz, “iño eta in”, “esan eta izan” arian jartzen bai-zuan gizakia eredu goitarrarekiko harremantetan. Hitz gutxitan esanda, giza jainkozaleak izadia ikusi eta ikasi egiten du eta haren mezua aldarrikatzen, eta giza historikoa denarren, historiatic ate doa bere lekukotasuna.

Liburuaren zabalkunderako azalpen laburra prestatu nuen, ez, antza, egokiena, haren oihartzunik ez bai-zen entzun. Honela dino: “Sikologistek dinotenez, herriek bai omen dute euren asaben oroitzenenik, baina erdia baino gehiago “talde ohargabetuaren” baitan lokartua, hain zuzen. Eta, euskara “lokartu” horren partekidea al da, ala euskaldunon ohar-ezaren gainetik, bai al du ezeren “memoriarik”, bere hiztegiako edukinetan eta egituretako azalpenetan? Erlijio azterlarien ustez, erlijioen ikerketa gizakiek jainkoekiko elkarrizketan erabili zuten hizkuntza-ikerketarekin bat dator, eta, beraz, euskararen oroitzua euskal teologiazko eta erabat antropologiazko mezurik jatorrena gerta daiteke hizkuntza azterlariarentzat. Aztertu beharra dugu. Euskararen “memoria”, hala ere, “giza jainkozaleak”, zeru-lurren ulerbiderako egokien uste izan zuen hizkuntza-egitasmoaren giltzapean dago eta XXI. gizaldiko gizakiak euskararen giltzaz jabetu nahi badu, txapela kenduta sartu beharko du euskararen tenploan eta aintzat hartu asaben sinbolo, mito eta erritoren artezia, euskara bera ere, jainkoekiko hizketa=otoitza bezala, erritoon forma eta mito bizia delako. Euskaldunon teologia eta antropologia zertan den jakin nahi duenak euskararen giltzaz jabetu eta hari galdetzea dauka. *Jainkoa eta gizakia euskararen oroitzan* ikerketak euskararen barne eskolara dei egiten dizu, haren jakinduriaren zador sako-nenak erakusten dizkitzu, bada, seme-alabok ohargabetu edo lotan geundelarik ere, euskara amaren bihotza iratzar dago erritoren zehaztasunaz moldaturiko hizkuntzaren egituretatik, erraietatik bezala, aholku egiten”.

Une landuenak ondore berezietatik atera nezakenez, *Euskara eta etnografia*: “Euskal Etnografia eta euskara, euskaldungoaren materia eta forma dira, elkarren eskutik doaz, batak bestearen aitor egiten dutela”, “euskararen oroitza Paleontologiarik bikaine-na, azkarrena eta zihurrena da antxinako jainkogai eta gizakien arloko azterbideetan, euskal kulturaren *adn* bezala delako bera, gainerako hezur, heltzeki, urrezko aztarrenen edo harrian eratu artearen gainetik”, “erritoek fedea baino iraupen handiagoa dute berez, fedea eguneroko bakoitzaren aukera eta Jainkoagazko ituna bai-da eta ohikurak, ostera, hiletako erritoak bezala, maiz gizarteko betebeharruntak, batak bihotzez garoaz, besteak besoz-beso”. *Sinboloak eta erritoak*: “Sinbolo eta erritoetako hitzetan ikusten da argien jainko eta giza arketipoen nortasuna, ots, nor noren pentzudako zen eta zenbateraino zen askea giza arketipoa, zenbateraino menekoa”, “jainkoekiko errito eta harremanak aldare edo mahaiko opari eta jakiekin zerikusia zuten. Jainkoekiko bazkaria adizkidetasun seinalea zan. Denetan gizakia dager Jainkoen serbitzari, ereguz eta erreguz, jainkoen onginahia eta mesedea erakarrin nahiez, gizakia dela eskeko eta Jainkoa dohai emale”. *Mendi santutegiak*: mendietako kristau ermita, santutegi eta gurutzak herriak antxinagotik jainkoen bilaka zuen mendi-jokerak, erromeriak eta fedearen senak eraikiak izan dira”. *Euskara eta Jainkoa*: “giza jainkozaleak norberagan eta norbere sendiagan Jainko isladak ikusten ditu. Distirok berez behetik gora doazela, itzulian goitik beherako erantzunez Jainko ideiaren antza ekarten dio”, “gizakiak era askotara garatu nahi izan du bere zori makala munduan, inoz eta inkaz, ereguz eta erreguz eta bai ta erneguz eta ukapenez ere. Halako tirabiretan gizaki jainkozaleak ba du Jainkoaren kontra oker jokatu duelako damu aitorpenik”. *Euskara eta jakinduria*: “Arketipo bakoitzaren onomastikak ahalegin handia egin zuan jakite arloan, adimena argitu, zentzuna zolitu eta mintsoa idekitzeko. Jainkozko arketipoak, ostera, izadiko jakinduria zaharraren ardura dute eta haren adierazle bereziak dira. Era berean, giza arketipoak gizarteko jakinduria berriaren ardura dute eta haren lekuko dira. Arketipook izan dira jainko eta gizarteko edozein auzitan zeruko eta lurreko zazpi lekukoak”, “izadiko jakinduria zaharra jainko-

zuzentasunaren aitopenean oinarritzen zan. Antropologiazko jakinduria berriak jakinduria zaharra ez baitan jartzean, jainko arrazoiak eta giza arrazoiak eztabaidan jartzen zituan eta idazkiz emandako elkarrizketa berriaren hasiera izan zan, kexu eta saminezko literatura lekuko”, “jakinduriaren mintsoa, izadikoa berere, amatar izanik eta umeen heziketaz hasten delakoa euskarakgino aitortzen du, atsotitzen eskolabidea atsoen ahotan edo bertsolarien kantuan ipintean. Jakinduriazko mokauok, ahoz-ahozko hizkuntzetan berere, oroitz-ariketak dira. *Jainkoa eta gramatika*: gaurko erakuskintza gramatika erregelak jarraitzen saiatzen da, antxinakoa, ostera, izadiko sinboloetan agertzen diren jainkozko eta giza arketipoei lotzen zan eta harekiko analogiaz garatzen”, “gramatika arketipoen logika ezeze, jainko arrazoi eta giza arduren arteko poetika eta mitologika ere bada. Gramatikak berak dino giza mitozaleak oldozpen ardatz lokarriak zeruan eta lurtean ondo erantxiak zeuzkala eta euskara logika horren lekuko da”, “oihuzkoak izan ziran lehen deierak eta erabat otoitzak. Jainko izena aitatur gero, bera zen deia, oroitza, opa, otoitza eta esankizuna” (ikus 57 or.).

Ondore orokorretan ideia hoiek biltzen nituan: “Mitoak antxinako harrigarrien kontakisunak ezeze, fede eskola eta otoitz gunea izan dira”, “giza jainkozalearen teologia izadiko eta gizarteko jakindurian oinarritzen da eta gizakiak berak hasieratik Jainko nortasunaz eta giza zoriaz egin galdeketen erantzunetatik osotua da”, “euskara mitoaztertua, beraz, giza jainkozalearen asmoak eta herriaren barne kondaira ezagutu nahi duenarentzat antxinako iragarkizuna ezeze, gaurko gizakiarentzat mezua eta misio-mintsoa da, Jainkoaz eta gizakiaz hasieratik honainokoa aztertzeke hermeneutika aparta denaz landa”, “harrigarri ere bada, gizakiei Jainko oroitza urritzen dioakien aldi honetan euskararen oroitza finkatzea eta hako Ino/Inko/Jainkoaz eta gizakiaz dakiena guretzat gaur giza jainkozalearen misio eta mezu gertatzea”, “euskara lekuko, ba dago euskal teologia eta euskal antropologiarik, baina jakiteko dago, hitzetik ortzera, gaurko euskalduna zenbaiteraino den horren aitofle”.

Jainkoa eta gizakia euskararen oroitzan lanak 1001-an ikusi zuan argia. Eskura eraman nien teologiaz, hizkuntzaz aritzen diren

hainbat maisuri. Begituko zutelakoa eman zidaten, baina oharririk ere ez didate egin batek ere. Berriak arin doaz gaur, baina "euskararen berri onak" astiro dabilta gaur ere. "Alemanez-edo argitaratuez gero" esan zidan Instituto ezagunen katekesiaz arduratzen den lagun batek. Eta nik esan behar, "aleman batek-edo idatzi izan bazuan, ausaz". Bestalde Bachelor frantzesak eta Jung suizarra, eta handik onako zientziak ez dabilta abiada handiko trenean. Teologoren batek Alemanian-edo *Jainkoa eta gizakia Euskaren oroitzan* idatzi izan ba zuan, arrakasta izan zezaken, baina posible al da halako tesirik Alemanian? Han hango dotoreen bidetiko gaiak eta metodoak jarraitu beharko dira eta zergatik ez Euskalerriko Unibertsitateetan euskaldunen gai bizi eta metodoak? Euskara dugun hermeneutika baztertu behar al dugu sekula santan, geu bakarrik garela-ta euskaldun? "Denboraz helduko da" inostan hako lagunak eta egia da, baina nik nere bizi epeari begiratzen diot eta euskara ama ere preminean dago eta ez dago onartzerik, norbaitek esan duen bezala, aldiz aurretiko arrazoia erratu modua denik. Teologo bateri eritzia eskatu nion, "ez daukat astuta" esan zidan geroago baten, baina haraz gero urteak dira.

4.4. J. M^a. Satrustegi eta "Mattin Motela"

Ibaizabal argitaletxeak hiru libururen aurkezpen batera gonbidatu gintuen. Autoreetariko bat, J. M^a. Satrustegi, aurkezpen horretara joateko zela jakin izan nuenean, baiezkoa eman nien. Etnografoarekin egon nahi nuen eta ordenadoretik harako eskuartean neunkan *Euskal mito erritoak eta euskara* liburuaren alea emon nahi nion maisuari, haren aipamenik ere ba zuela-ta. Jose Maria Van Sarkisian armeniar hizkuntzalariarekin zetorren. Hizkuntzalari zela jakinik, eta gazelania ba zekiala ikusirik, *Vascuence y mitoanálisis* liburua eskeini nion. Gogotik hartu, gain begiratua egin zion, omenduak mahai-aurrekora prestatzen ziren artean eta Armeniako aldizkari berezian haren agiria emongo zuela agindu zidan. J. M^a. Satrustegik *Mattin Mottela* liburuaren aurkezpena egin zuan: "Mitogaien hurbilekoa da, norgehiagokan apalak handi-mandia edo ahulak indartsua garaitzen duen kon-takizuna (...), indarkeriarik gabeko garaitze soilean datza ipuin

hauen interes nagusia (...), Sakana, azkeneko jentilen kokagunea delako usteak, hareagotu egiten du herri-jakintzan irudimena (...) bertan jasotako beste zenbait pertsonai bitxiren pasarte ernagarriek ere sartzen dira bilduman". Autograforako *Mattin Mottela* liburua aurkeztu nion, lege denez, eta gogotik amoregin zidan.

Urrengo egunean *Mattin Mottela* irakurten nindagoela *Tolosako feria*, *Sasi-mediku* eta *Koplaria* jarraiko ipuinetan *El pobre de Nippur* ipuineko gaia eta egitura berdinekoa zela konturatu nintzan. Baina Nippur edo Nuffer Sumerren zegoen eta izengoitiz *Duranki* "zeru eta lurraren lokarri" zan milaka urte lehenago eta *Mattin Mottela* pertsonaia, berriz, Nafarra edo Nefarra zan. *El pobre de Nippur* testo zaharra 1956-an argitaratu zan lehendabizi eta gaztelaniaz, berriz, 1996-an *Sabidurías de Mesopotamia*, Doc. en torno a la Biblia, n° 26, Ed. Vervo Divino (Estellan). Nondik sortu zan halako lotura, euskal ahoz-ahozko literatura antxinako sumeriar idazkizunekin bateratsu etor zedin? Jose Mariari deitu nion eta harrituta gelditu zan bera ere. Testoa eskatu eta faxez bidaldu nion. Halako bitxia *Fontes Linguae Vasconum* aldizkarian agertu behar zuela-eta, lan bat prestatzeko eskatu zidan eta 89 zenbakian agertu zan, *El pobre de Nippur y Mattin Mottela* izenekin. Halako ondorenak atera nituan: *Mattin Mottela* ("asmoz eta jakitez txikiak handia bentzuten" esakunean bezala) herri jakinduriak mito eredura jasotako pertsonaia da. Bere ohorearren bereak eta bi ekintzak egozten zaizkio, halatan bai dakus herriak justiziaren osapena. Jakinduria honek Euskal Herriak bere soinean jasotako atzerriko indardunekandik jasotako hainbeste erasoren isladapena da, sumertarraren "Nippurreko behartsua" bezala. "Nippurreko behartzua" *Mattin Mottelari* begira, euskal kulturak -euskara bera lekuko- Antxinako Sortalde Hurbileko herri kulturarekin duen beste bateratze seinale ziurra da. Hizkuntzalari eta etnografigile argi askoren eritzietatik hara, euskal ahoz-ahozko literatura oroitzak antxinako herrion idazkizunetako mito eta jakinduriarekin zubi egiten du, euskara ere hango hizkuntzen arketipoekin bat bai-dator".

Gainontzekoz ez zuan gehiagorako emon J. M^a. Satrustegi jaunarekiko harremanak, nahiz ni, ahoz-ahozko edo izkribu literaturatik hara, euskara beraren zadorretatik ibili, haiekin zubi egin nahiez.

4.5. *Euskal mito erritoak eta euskara*

Euskara *Eleiker*-eko lanak hasierako *Vascuence y mitoanálisis* barneko hermeneutikaren jarraipena dira. Han orokorki oratzen dudana, gainerakoetan monografikoki ematen dut, batzutan erderaz, bestetan euskaraz, argibide bakoitzean pedagogia ardurara dudalarik. Liburu bateko azalpenak beste baterako gaia prestatzen zidan eta lan bata amaitu orduko, ordenadorean neunkan hurrengoaren tituloa eta gaiaren hasikina. Eta hurrengoa *Euskal mito erritoak eta euskara* izan zan. Halegin handiaz ekin nion testoaz eta testoa argitzeko irudien lekukotasuna handik hemendik oratzen nuela, tesi formatoa apurtu eta irakurle arruntagoen begiramena lortzearren. Azala koloretan, gaia: Udala mendia, Zornotza aldetik ikusita, negu mugako eguzki lainotsuz koroatu, hako asaben Jainko agerpena bai-litzan eta azal ostean azalpen hau: "Sinboloez jabetu, mitoak ezagutu, erritoak ospatu...Erritoen azala bai, baina haien edukin diren sinboloak eta mitoak ez dira hain ezagunak; euskara dugu, ordea, haiek azaltzeko gei den mito bizia". Balioko ote zuan gazteen irakurgaitzat? Honetan suertea izan nuan Ibaizabal argitaletxearen babesa lortu ahal izatea. Egunkariak eta kulturari eman horriak liburuaren azal osteko hitzak errepikatzen zituzten. Ez euen beste ziurtasunik buruan, ez tokirik paperetan. Idaztean etnografoak baino hareago nuen etniaren jabe den herria bera gogoan, eta erabat herri festak eta dantzat gertatzen dituzten taldeak. Agian etnografoei etnografiaren forma den euskara hizkuntzaren bidea erakutsi nahi nien, baina batzuk edo euskararik ez dakitelako edo hizkuntzan arituak ez direlako, aukera ezetzi zuten. Busti, bai, egiten dira uretan, baina uren iturria nondik datorren jakite hori antxinakoen jakinduriak bilatzen zuan. Asaben jakinduarria haren eskasiak gauzka nonbait oraingo Aitorseme-alabak.

Azterlana zenarren, literatura antza eman nion zabalkunderako gidatxoan: "Euskarak euskaldunon hasieratik eta honainoko segetu guztiak omen dakizki... Inoiz ausartu al zara, hala ere, "amari" etxekoan berri hasieratik eta hara eskatzen? Amari bizi daino eskatu behar zaio segetuon azalpena.

"Euskal ohiturak, jaialdi berezi edo eguzki mugetako errito ohi-

kunak berere, etnografia zaleei esker, ezagunak ditugu eta euretan inoiz halako atseginez parte hartu ere egin dugu. Gure jokabidearen zergaitia inork eskatuez gero, "ohitura delako/euskaldunon ohitura delako" erantzuten dugu, baina, XXI gizaldian dagoeneko, geure buruari eta galdetzen digunari erantzun argiagorik eman ordua dugu, "geure amari" familiako izkutukoak galdetzekoa, arean. "Zer balio digu, bada, ibaian bustialdiren bat hartzea, ura nondik harakoa den ez badakizu?" -ohar egiten digu jakinduria zaharrak.

"Horixe duzu, ain zuzen ere, *Euskal mito-erritoak eta euskara* ikerketak eskeintzen dizun abentura, uren sorburua non dagoen adierazten dizuna. Euskararen eskutik aldian Port Aventura baina haragoko atetik sartu urten ahal izango duzu edo eta euskara untzian Uliserena baina bidaia zorgarriagoa egitera gonbidatua zagoz".

Ondoen landutako sailak *Erritoen toki sagaratuak*, mendien izenak jainko zaharren izenekin lotzean, *Erritoen une garaiak Ononzaro, Inote, Subilaro, Jote, Olentzaro*, etab. ze jainkoren omenezko ospakizunak ziren azaltzean eta *Erritoen une arruntak*, bigarren belaunaldiko jainkoen zenbait mito bizi aztertzean.

Ondorenetan, nahiko labur, baina zehatz: "Arkeologiak joanen arrasto bikainak erakusten dizkigu, baina aldi beretsuko literatura zaharra, Sumerian eta Egipton bezala, argitaratzen denean, idatzia ematen digu arkeologiaren azalpena eta historia-aurrekoa zena historia mailara erakarten. Arrastoen biltzaileak hitz idatziaren testigutza idoroten duenean, bere eritziak joaneko eritsiekin topo egin eta halako lotura ziburra egiten du: antxinatea gaurkoaz lotzen da", "Euskal Etnografiak arrasto biltzaile onak izan ditu. Ohikunen edo arkeologia-arrastoen azalpena bermatzeko garaikide zen hitz idatziaren testigutza behar zuten eta ezpaere, aldi bereko hitz ahozkatuarena: euskararena, alegia. Zer dino honetaz euskarak? Eta euskararen zurrumurrua sakonean ulertzean, orduan eskuratzen da Hermesek min gordetzen zuen giltza". "Euskara ez da, beraz, gure etnografia edo antropologiaren bereiztasuna soilik, euskal gizartea eta antropologia antola eta gidatu duen erritoren bihotza baizik: beraz jabetzea denaren segetua jakitea da eta prehistoriaren ilunpea gaurko argitan ikustea", "gure mito eta erri-

toak Sortalde Hurbileko Neolitikoan dute oihartzuna eta gure hizkuntzak eurenarekin lehengusutasuna, eurekin batean ditugun arketipoak egiten bai gaituzte lehengusu. Euskalduna ez da umezurtza, bere arketipoak orokorrak eta unibersalak bai-dira”.

Eskerrak Ibaizabalen eraginei, liburuak oihartzuna izan zuan, Azarotik 2002-ko otzailera *Argian* eta *Egunkarian* berere.

4.6. Astarloa apologistaren ospakizunean

Gerediagakoak Pablo Pedro Astarloa euskal apologistaren Bigarren Ehunurte buruko Ospakizuna antoltu zuten 1001-ko Liburu eta Diska Asokan. Ramon Labaien, Ludger Mess eta Felix Zubiaga mahai-aurreko batera deituak izan ginan. Leen biak gende ezaguna ziran, Ludger Mess, gazte alemana, Historian Dotore eta Euskal Unibertzitateko irakasle dena eta ni mahaingurua antolatu zuteneariko baten ezagun, Gerediagako bazkide eta haraz gero nire euskara ikerlanen jarraile den Anton Mari Otalora.

Mahiburuak egin zigun galderetan bat: *Gaur euskarak behar al du apologiarik? Zetariko apologia?* Baike erantzun nuan nire txandan eta urak neure ikerketara eroan: “Euskararen kontrako kanpainak sortzen direino, euskaldunok haren defentsa gertu euki behar dugu. Kanpaina hoietan bat hau da: “euskarak gaur zertarako balio digu, bere buruaz ere ez bai-da akordatzen?” Argi erantzun behar zaie holakoei “akort” ez dagozenak hizkuntzalariak direla, baina euskara bere buruaz eta jatorriaz ondo akordatzen dela. Astarloaren garaian ez zegon euskarari zientzia mailako apologia egiteko baliabiderik. Orain bai, orain antxinako kulturak *Bibliak* baino sakonago argitzen dituen *Sumeriologia* eta *Egiptologia* edo *Erlejioren Historia*, etab. bide eginak dauzkagu, *Azkueren Hiztegi*az landa. Astarloak hain baliabide gutxirekin egin zuen ahalegina, baino gauza hoberik egin dezakete gaurko hizkuntzalariak. Zergaitik dihartute metodo antzuei lotu, euskararen jatorria aurkitu ezinik? Kontura beharko lukete metodo antzuak ez direla inoiz ere benetan zientifikoak. Hizkuntzalariak ere gure asaben pentsamoldea nolakoa zen eta hitza nola analogizatzen zuten aztertu behar dute, euskarak zelan erantzuten duen jakiteko. Holakoa da, beraz, gaur

Unibersidadeak (edozein Unibersidadek, eta euskal Unibersidadeak bereziki) egin behar luken/duen euskararen apologia”.

Bigarren galdera: *Euskal kulturaren gorralpena eta haren berezitasunak azaltzea euskararen apologia al da?* Baietz nik: Norbaitek esan zuenez, “kilometroko euskararen galpenak beste hainbeste galtzen du gizabidean, euskal anaitasunean eta fedean...” eta arazoa sikologiaren zientziaz egiztatua izan daiteke. Baina ba dago euskarari lotzen ez den gizabide edo federik. Hagatik gaurdaino salatzen dena zera da: “Euskaraz ematen dena bakarrik al da euskal kultura?” Ala erderaz ere parte hartu ahal daiteke, adibidez, Tolosako Inauterietan? Bai, baina ez da egoki “ezer ez ta festa” egitea, “ez da nahiko, errekan bainua hartzea, uraren sorburuak nondikoak diren ere jakin behar da” jakinduria zaharrak dinonez eta festaren liturgia, oikuna eta errittoa ezagutu behar dira euskarak hatarako ematen digun argibidez”.

Hirugarren galdera: *Ardurazkoena euskal literatura ona egitea da, horrek euskararen gaitasunak erakusten bai-ditu.* “Bai, ta onenean norbaitek esan dezake orduan: “Hain literatura bikaina sortu duen autorearen hizkuntza jakinduria berezikoia izan behar du”, edo txarrean: “Nongo iturri gazietan edan ote du beronek halakorik?” Eta funtsean, baliozko euskal literatura erdarara aldatzen da behingoan eta, alderantziz, Sofokles eta Virgilio hizkuntza modernoetan edo euskara zaharrean irakurten dira Unibertsitatean. Euskal literatura, argumento ona delarik ere, euskara amaren baratzekeo frutua izan behar du, ez urruneko merkatuan erositia. Bestalde, literatura ona nahi duenak baratze eta lorategi asko ditu, eukitez, euskara, ostera, bakarra da eta bera den bitxia da gaurko apologiak erakutzi behar duena”.

Ondorena: *Etorkezunari begira proposamenak.* “Euskal Herria, politika mailan normalizatzekotan, herriak berak “presoak etxera” deiar egiten duen bezala, euskarak ere beste hizkuntzen artean heintasan prestigioa lor dezan, baztertuta daukaten ziega ilun iraingarritik askatzea eskatzen du, ots, hizkuntzan adituek haren errugabetasuna frogatu ezeze, haren baloreak eta gaitasunak erakus ditzatela. Iraina honetan bai-dagoke: euskararen jatorria

ezezaguna delako ustetan, euskara ez dela burujabe. Eta horra salapena: "burujabe ez denak, edo norbere jatorria ez dakianak, ze jakinduria iragar dezake gaurko Unibersidadean?" Euskara, ama, oroit da, ordea. Unibersidadea bera da gaur "incosciente colectivo=talde ohargabetuaren parekide dena euskara arazoan. Galde diezaiotela euskara amari gure asaben aburuen eratarata eta ez gaurko arrazionalisten aurreritsien arabera edo auzimahikoen erderaz eta euskara amak ulertzen duen eratan erantzungo du. Euskara asaben gizabidea ezagutu eta edozein giza jakintzan sakontzeko dugun hermeneutika bakarra dela ulertu eta frogatu behar du hizkuntzalaririk, eta euskal Unibersitateak eta orduan Unibersidade mailako azterlariak euskara-giltzaren irrikan mugituko dira. Eta dinodana profetagitza baino hareago da erronka. Gaur herriak kalean euskararen alde egiten duen mugida edo ikastolan ari duen heziketa lana euskararen aldeko erronka bezala. Profetagitza eta euskararen alde euskara ez dakiten gurasoek egiten dute, umeak ikastolara bidaltzean, euskararen alde apostu egiten dutelako. Euskal maisuek, euskera erakutziar landa, zuzenbidearen izenean, euskararen aldeko apologia egin behar dute mailarik gorenean; profetagitza jadanik gero jaso behar dutenen iragarpena eta erronka bai-da".

Neure erronken frogatan esku artean nuen liburua agindu nion Ludger Mees Historian Dotoreari eta tituloa aurreratzen nion *La onomástica, oído de la prehistoria (o el vasco-europeísmo)*. Handik ile batzuetara, 1002, ekainean-edo, Theo Vennemann alemanaren teoriak ots egin zuan lehenengoz egunerokoetan: autore honek, onomastikari jarraiki, Europa gehiena euskarak kolonizatua izan zelakoa aldeztu du. Hori buruzko artikulu gartsuren bat ere agertu zan Deian. Nire liburuak uztailen urten zuan eta, azalean ez bada ere, internetean (*o el vasco-europeísmo*) eta guzti agertu zan.

Astarloa apologistaren mahai-inguruan entzulego eskasa eta jakintza mailan ezaina hauteman nuan, *Garak* eta *Deiak* haren berri eman zuten Kultura Sailean. *Garakoek* eskatu zidaten nere eritzien laburpena jada aurretiaz argitaratua zuten.

V. EUSKARA IKERKETAN *ELEIKER* II

5.1. *Diru-laguntza bila Aldundiara*

Urte buruan hiru liburu barri argitaratzeko asmoa neunkan eta diru aurrekontuak ez zidan hirurentzako babesik emoten. Aldundiara jo nuan laguntza bila, dagoeneko argitaratuen ereduak eramanez. "Hauxe ta hauxe egin behar dozu laguntza eskatzeko -esan zidaten- Euskaltzaindiaren eta Labayrukoen oneritzia behar dozu, liburua laguntzarako gei izan daiten". Txosten bat prestatu eta, aurretik argitaratuen ereduekin batera, argitaratzeko neuskanen asmoa eta, haraz gero, *Eleiker* neritson egitasmoa azaldu nien honelatsu: "a) *Eleiker* asmo orokorra: *Eleiker* ele-ikerketa da, ots, hizkuntza-ikerketa eta behenipehin 1) euskararen ikerketa eta 2) euskararen argibidez eginiko filologia-lana. Eleikerketaz euskara aztertu nahi da, euskararen egitura zertan den eta, beraz, euskararen jatorria nondiko eta nolakoa den. Behin euskara aztertuz, haren hermeneutika bereziaz jabetu eta edozein giza arloko ikerketak burutzeko baliatu, hatarako euskarak ematen duen baimenaz eta argibideaz.

5.1.1. *Egitasmoak: Euskararen egitura eta jatorria ikertu*

Ez da gauza bera euskararen egiturak ezagutzea eta bere jatorria ezagutzea, baina funtsean batak bestera daroa, ADNeak ezagutzeak gurasoen nortasuna ezagutzera daramaken bezala. Hatarako bide berria proposatzen da: mitoazterketa eta gramatikaren zatia den analogia sakonean ezagutzea.

5.1.2. *Mitoazterketaz euskararen jatorria azaldu*

Euskara, beste hizkuntza asko bezala, Neolitos garaian sortua denez, orduko gizakiaren pentsakera aztertu behar da, haren aburuez euskara aztertu ahal izateko eta ez gaurko hizkuntzalarien metodologiez. Metodoak bideak dira eta ain baligarriak helburua iristen laguntzen diguten heinean, bestela bidegalduzat jo behar dira, adibidez, euskara hizkuntza ezezagunen gelan baztertzen duten analisiak edo linguistika teoriak. Neolitosko gizakiak jarraitu zuen bidea ibili behar da euskara elearen asmoa eta

egitura zertan den jakitekotan. Nola pentzatzen zuan hako giza-kiak, nolatan adierazten ideiak? Keinuez, marrazkiez, ots ahozkatuez? Bide guztiok erabili zituan, harean, gaur bertan ere erabili ohi ditugunez eta guztiotan agertzen da gizakiaren artea eta artezia, baina arterik bikainena ots ahozkatuak taxutzeko asma-kizunean erakutzi zuan eta ots ahozkatu bakoitzaren bidez ideiak berezi eta bakotx azaltzean eta otsok elkarrekin jostean, burutu ahal izan bai-zuan hizkuntza, monosilabismotik hasi eta aglutinaziotik zehar, hizkuntza zaulian osatzeraino.

5.1.3. *Mitoazterketa metodoa*

Neolitos sakoneko mitoak azaltzen digute antxinako gizakiaren pentsamoldea eta, haraz gero, gizakia jatorrizko ideia haien pentsutan dagoke, sikoanalistek dinotenez, gaur bertan ere, jakintzan heldutako gizakia antxinako gizakia harrigarritzen zuten izadiko ikuskizunen lilurapean dagolako. Hori dela-ta, gaurko gizakiaren eta gizarte arloko ikerketak mitoazterketara joten dute, haria hasieratik hartzeko asmotan eta, halatan, frutu onik ere eman dute erlijioen historigileek, Bibliako exegetek, antropologoek, teologoek, sikoanalistek, filosofoek, filologoek, etab. Filologook, ordea, texto zaharrak edo berriak bakarrik aztertzen hasi baino ez dira egin eta oztaz mitoaztertzen dituzte hizkuntzak eurak, ots, mitoak azaltzeko sortu zituzten "mito biziak". Lan hau, agian, hizkuntzalari edo linguistentzat uzten dute, baina hizkuntzalariek ez dute mitoanalizatzen, ausaz, euskararen gela ilunean eguno ez direlako sartu edo sartzeko bildur direlako. Bestalde, oraindino antxinako "mitoa" ipuinaren pareko edo atzerapenaren ikurtzat daukate estrukturalistek eta arrazionalistek, antxinako gizakiaren jakinduria, pentsakeraren lorpenak merketxo gutxiesten dituzte-larik, mitoaren jakinduria zertan den ere galdetu gabe. Hizkuntzalarien jokera horrek euskara, "mito bizia" saldu egiten du gaur bertan, inobre baloratu beharrean.

5.1.4. *Euskara mitoaztertu*

Euskara, Neolitos sakoneko hizkuntza denez gero, ikerketa hone-tarako inon denik hizkuntza jaiocna da. Euskara sakonean ulertzeko, Neolitos kultura sortu zeneko unera jo behar da eta hango

mitoak eta jakintza ezagutu, sumeriologiak, egiptologiak eta sail bereko beste ikerketak egiztatzten eta hatarako bidea egiten digutenez gero. Besteen ikerlanak uztiatzea dagokigu, euskararen sorburua dugula helburu. Baina euskarak bai al du Sortalde haretako hizkuntza zahar edo oraingoekin ezelako senidetasunik? Hizkuntzalariek baietz dinoe. Historiak ere Sortaldeko Iberia eta Sartaldeko Iberia kultura bereko alderditzat jotzen ditu, Megalitos aurretik, Megalitos artean eta ostean, indoeuropearren sarrada eta erromatarren eraso bano leheago.

Euskara esparruak, bestalde, antxinatetik du Ainamendi inguru honetan bere kokagunea edo, hobeto esan, aspaldidanik gordetzen da Euskal Herrian. Lur honetako onomastikak bai ote du hako beste lurraldekoekin zerikusirik? Lurraldien onomastika, tokizenak bereziki, orduko jainkoekin topo egin ahal izateko biderik artezena dira, ez bakarra. Mendiak jainko santutegiak zirela jakinik, Euskalerriko mendiek ba ote dute Sumeria edo Egiptoko jainkoen ohiartzunik? Eta baiezkoan, hortik has daiteke mitoazterketarako bide bat. Asaben jainko nagusien izenak ezagutu: *Ainamendi/Montaine*, *Ainomendi/Montaño* egituretan, adibidez, eta horrela, *An/Anu* sumeriar-akadiarren edo ibar bereko urartiarren *Inu* edo hurriten *Eni* "Zeru" Jainko nagusia aurkitu. Haraz gero, exegetek ere ederki mitoazter bai-dezakete "gure Aita, zeruetan zaudena" otoitza.

Antxinako santutegien izenetik *An/Anu* "Zeru" jainkoa ezagutuez gero, euskal mito-erritoei ere galdegin diezaiekegu. Ba ote du *An/Anu*, *Ino*, *Eni* jainko horrek euskararen oroitzan ezelako otoitz-asperenik, oihuzkorik edo erritoetan inolako ospakizunik? Euskararen umetzaroko lehen otoitz urrumak *ene*, *enei*, *ino*, *ainü*, etab. aurkitzen ditugu, eta ospakizunetan, berriz, ospetsuenak *Inote*, ots, "Inoren garaia", hau da, Sumerian bezala, *inoak* eta *aie-neak* abesteko aldia. Nork abesteko? *Ino*soek, *inudeek*, *unaiek*, *anutuek* eta *en*⁽⁶⁾ "naüna naüsiek". Zeren *antsiz* edo *Inogandik*¹ zer *antxitu* ahal izateko? Urteko=*annu*⁽⁷⁾, *una*, *anoa*, *anho*a, *anoia*, *anonna*⁽⁸⁾. Beste ospakizun bat *Ononzaro*, babiloniarrek *Anum.zaro*

1 Urartiarrek (antxinako armeniarrek) ere *Inu* deitzen zuten *Inkoa* eta >

“Anuren naza” izenaz ospatzen zutena eta euskaldunok Kristoren jaiotza esateko erabili izan duguna².

Euskara mitoaztertzeko bide guztiak dira onak: euskal onomastika, toponimia, gramatika eta bere parte bakoitza, etnografia, antropologia, herri jakinduria³, etab., denetan duelako euskarak ohar onik. Bide batzuk aztertuak izan dira, eta bere frutua eman dute, beste batzuk azterbidean doaz eta denetan ere euskara aholkulari ona ezeze, liburu idekia dager.

5.1.5. Euskara, hermeneutika berria

Neolitos Haroko jakinduria berrian gizakiak jainkoekiko harreman-errittoa berrizatu zuan eta harremanon itun-agiria erritualki bertaxutu hizkera da. Euskara errito honen gordailu zintzoa eta aparta da eta, bere burua eta inguruko beste hizkuntzen egitura aztertzeko giltza du. Euskara, adibidez, gerquera eta latina aztertzeko gei da, amakideak ba dakilako alabakoak nolatan jaio eta nondiko erropaz jantzi ziren.

5.1.6. Euskararen jatorrizko oroitzaz jabetu

Euskararen oroitza hitzaren sorbururaino heltzen delarik, hitza

senide hurritek, berriz, *Eni*. Euskaldunek ere *inoka* ospatzen zuten *Ino* eta *inkezaz enoiatzen* zuten *Inko=Inka* euren *inkoniaduran*. *Inko* egituraz. *Inoren* semea da, *amako* amaren alaba den bezala, eta *Xainko etxeko* (santu> tegiko) *Jainkoa* da, *xandre* “*etxeko andre*” eta *santera* “*etxe-tenploko andere*” den bezala. *Ino=umnou⁽⁹⁾=himnu⁽¹⁰⁾* apaizen gorespen kantua da, *aiene* emaztekien alamen kantua “antxinako kanta” Azkuengan. Sumeriar jakinduria izan zan literatura mota biotan lehenik gailendu zena.

2 Honetan euskara eta euskaldungoaren jakinduria arteza izan da, bere “itun zaharra” ez duelako alboratu “itun berriari” bide ematerakoan, ez *Inu=Ino* jainko seme izen zaharra atzindu, jakinduriak aurrera pauso eginala, hizkuntza arketipoak ornituz, uanean uneko argitara egokitu baino. Euskarak ez du *Jainko* izenekaitik eta, beraz hizkuntza arketipoekaitik, burrukarrik egin, heberkerak, beranduko hizkuntzak, bezala, hagatik hasierako mitologikak zaintzen du euskaren logika, ezelako tirabira edo etenik gabe.

3 Babilonia eta Egiptoko apaizek euren jainko nagusien izenak arketipotzat harturik egin zituzten orduko jakintza guztiko onomastika zerrendak eta eurak izan ziran ele ritualizatuaren ereduak. Ele ritualizatua bide berezia bai-zen gizakia jainkoekin harremanetan jartzeko, hitzak “esan eta egin” artezia lor zezan, eta oker-esanak gizaki eta jainkoen arteko ulerbidea eragotz ez zezan .

arketipoz-arketipo aztertzen daki, aditza atalka urkultzen dakian bezala. Arketipo bakoitzak kontsonante batek eta haren alofonoek ordezkatzeko dute, hagatik antxinako idazkerak konsonateak bakarrik markatzen zituan, ahozkerako bokalak arketipoen kantitatea soilik eta nolabait semantikaren gehigarria jasotzen zutelarik”.

Euskarak ez du testo zaharrik, nahiz Megalitos garaiko minoiakoak eta iberiarren hilerriko idazkizunak euskararen antzeko izan eta hitz asko euskararekin bat datozen. Ainamendi alderdiko megalitikoan ez dago euskal idazkizun nabaririk. Triku-harritzarrek gorpuzkinen gordailu sendo ziran, baina euskara bera da oroitza gordailu ziur. Euskaldunak ez du idazkizunaren beharrik nabaritu izan, haren eredu eta arketipoak nabariak eta betikoak direlako izadian eta norberagan. Gizaldietako lainoek, ostera, euskararen agiria ilundu egin dute, arketipoen argibidea galdurik, euskararen barne-muina ez bai-dugu ulertzen jadanik euskaldunok. Euskara jakin ezeze, haren barne-muinaz, ots, euskara mito biziaz, jabetu behar dugu, euskararen jatorrizko gurasoak eta haien jakinduria ezagutu ahal izan eta euskara ta haren hermeneutika Europako Unibertitate mailara jaso ahal izateko.

5.2.1. Helburua: Euskararen giltzaz baliatu

Euskararen giltzak historia eta prehistoriako ate asko idekitzen ditu eta ez du antropologia sailean edo hizkuntza arlotan jakintsuaren oharrik egiteko lotsarik. Ahoz-ahoz jasotako oroitza jabe izateak ere hatarako eskubide berezia ematen bai-dio, sortzetik eta hona ez duelako izan idazkizun zurrunduen galgarik, bihurtzerik edo ezulertzarik.

Gure unibersitariak giltza honez jabetuz gero, linguistika mundua (euskararentzat gaurdaino mundu antzua benetan) irauldu ezeze, ikerketa jakingarriak egiteko gei izango dira.

5.2.2. Euskararen europeartasuna ozenkatu.

Lotsagarria da benetan bai euskaldunontzat eta bai europearentzat euren hizkuntza zaharrenaren jatorria eta, beraz, balio osoa ez ezagutzea. Europa jaio zeneko, euskara jakinduariaz beteko hizkuntza zan. Europa Antxinako Sortalde Hurbilak eta orduko Asiak (Anatoliak) Orube berritzaletako lurraldea zan,

hagatik *Orube*>*Europa* dator gerkarren ahozkeran ere.

Geroago baten indoeuropearrek sortu nasteeek ez zuten dena atzindu, euskararekin batera, euskarak hein batean uler eta azal dezaken bere garaikideen azpiegitura zabala gelditzen bai-da. Baina, lehengo barbaroen sarradak European indarrez egin kaltea bera egiten diote euskarari orain bertan indoeuropeismoa bezalako hizkuntza-teoriek. Benetako jatorriaren ezjakinak egiten duen eta diguten kaltea da, noski, eta salatzea eta egia argitzea dagokigu.

5.2.3. *Asmoak eta lorpenak*

Eragozpenen gainetik lorpenak ematen digute aurrera jarraitzeko adorea eta frutu hobeen itxaropena. Hitzak aparte, ametsak agintzari hutsak ez direla esateko, euskararen hermeneutika noraino den baliagarri jakiteko, beioa titulu batzuren frogagarria. Zazpi dira dagoneko argitartuak eta beste batzuk bidean datoz. Hona behin-behineko *Eleiker* zerrenda. Argitaratuak: *Vascuence y mitoanálisis, Euskararen ereduak, Jainko eta gizakia euskaraen oroitzan, Euskal mito-erritoak eta euskara*, aurton 2002-an argitaratzekoak, berriz: *Apellidos y nobleza, La onomástica, oído de la prehistoria (o el vascoeuropéismo), Analogía, arte del lenguaje, según el vascuence*. Azken hiruen argigarri eskatzen zikidaten puntuei erantzuki: a) Helburua, b) Azterbidea, c) Edukina.

5.3. *Apellidos y nobleza*

a) *Helburua*: Abizenei buruz jakin-min handia dago Ameriketatik eta honaino: ea norberaren abizenak euskaldunak diren, ea zer esan nahi duten, armarririk ete daukeen, eskudoan agertzen diren sinboloak zertan datozen abizenarekin, etab. Funtzean asaben historia eta haiengandiko noblezia baino hareago, familia bakoitzaren ohorea bilatzen dute gehien bat, “zu baino ni handiago” grinak bultzatuta-edo. Jakin-min horri erantzuteko liburu asko idatzi dira, bihotzeko prensalako egiten direla sarritan. Barregarri den beste, lotsagarri ere ba da, euskara eta euskaldungoa artean sartzan direlako. Ikerketok herri etimologia mailatik gora bururik ez dute jasoten eta onenek ere ez dute filologia

lan nahikorik. *Apellidos y nobleza* abizenak orokorrean hartzen ditu, euskaldun usteko hutsak eta gainerakoak berezi gabe, bada, izenaren ahozkerak edo igadurazko aldaketak ez ditu funtsean batabesteengandik bereizten, azaletik bereizgarri egiten baino. Abizenaren noblezia izenean bertan dago eta errege eta handikien agiriak edo armarren arrandiak ez dio abizenari ezer gehitzen. Abizenaren izena sakontzen da ez zer esan nahi duen jakiteko bakarrik, izen-abizenak ezartean, asabek ze asmo izan zuten jakiteko baizik, hau da, ze itu edo arketipo begiratzen zuten izenaren soinua asmatu eta osatzean.

b) *Azterbidea*: Oraingo gurasoek bere aurretikoen abizenak ezartzen dizkie euren seme-alabei, eta noiz edo behin artista edo santu handiren baten izena edo izen zerrenda. Abizenak ere maiz luzeak dira eta konposatuak, azkenak, beti ere, aurretikoen izen soinu zerrenda luzeagoa eroan behar. Hasierako jakindurian, ostera, gizakia jainkoen familiako sentitzen zan eta amatasun-aitatasun ohorea jainko sortzaileei egosten zitzairen, beraz, erritokak eskatuta, jainko sortzaileen izenak edo haiekiko aglutinatuak analogikoki ezarten zizkien seme-alabei eta familiak lantzen zituen barazkiei eta hezten zituen abereei. Jainko sortzaileen izenak konsonante bakarrak ziran. Halakoxeak dira, izan ere, abizen zaharrenak. Jainkoen bigarren belaunaldikoak konsonante bikoitzak ziran, aglutinatuak, alegia. Eskontza jainkoen artekoa baldin bazan, izena ere jainkoen heineko arketipoduna zan, baina jainko eta gizakien artekoa izatekotan, jainko eta giza arketipoen aglutinatzeaz osatzen zan izena. Giza seme-alaben arteko eskontzek ere lege berea jarraitzen zuten. Arketipoak, edo izenak konpontzeko itutzat hartzen ziren soinu-konsonanteak, zenbat diren eta zeintzu diren azaltzen da. Jainko arketipoak eta giza arketipoak zeintzu diren, giza arketipoek jainkozkoekin lotzeko zuten grina, mitoetan ezeze, izenaren erritoan agertzen da, izena bera bai-zen etorkizuneko eta geroko bizi zoriaren agiria, izenak izana artez zekarrelakotan. Gizakiak jainkoekiko errito ezkontza egin ondoren jakinduria berriaz jantzia agertzen da eta inoiz hitzaren egituran giza arketipo hilkorra jainkozko arketipoen

aurretik ezartea ogen larri eta zigorgarritzat emon zan.

c) *Edukina*: Gizakiak izadiaren partekide zekusan bere burua. Zeru lurra jainkoen eskuko ziran. Gizakiak, Sumerren adibidez, lurra lantzeko agindua hartu zuanean, jainkoen eskutiko baratzea lantzen eta berekotzen hasi zan: bere zuin barruko tokiari izena ezarri zion eta jabetun bakoitzak izen horrekin berdintzen zuan burua. Horrela, mendia jainkoen lurra izaten jarraitzen zuelarik ere, ibarraldea gizatasunez janzten joian apur-apurka. Tokizenak lurra ahalik zehatzen deskribatuz bereizten du, izenetik igarri zeiteken non kokatzen eta zein zen, era berean, abizenak norbait bere egoitzaren tokia deskribapenez ezagutzen du: berak bai-dino nongoa eta zeren jabe den. Abizenak ez du abereen edo landaretzaren izenik hartzen, abereak eta landareak ere jainkoen eskuko zirelako berez. Gizakiarenak berak ezitako abere eta menduriko edo jainkoen baimenaz maiz ustitzen zituen zuhaitzak ziran bakarrik. Izenak abere eta landare baten antza izateak edo berdin etorteak ez du esan nahi gizakia abereen edo landareen eredutik ezer jasoa duen, gizaki, abere eta landare jainkoen eta giza arketipoen ereduko zirela baino. Beraz, abizena gizakiak berak landu lurraren izenetik dator eta izen hori jainko eta giza arketipoez osatua dago. Gizakien duintasuna jainkoen unetik sortu dela ustean datza eta abizenek adierazten duten noblezia jainko izenekin erritox nastuko agiri bezala agertzean.

Izenaren egitura aztertzen da: monosilabismotik hasi eta aurrea izendengiak duen eratorrien bidea adierazten da. Izenen egiturari arketipo bakoitzak duen nortasuna eta tokiz aldatzeko baimena eta deskribapen berdinez ots ezberdinak sortzeko duen jokera.”

Abizenetatik akatz hoiek baztertu nahi izan nituen, edozein toki-zenetatik bezala: herri etimologia, aberetza eta landaretza sartzen bai-ditu deskribapenekin naste, edukinetan erratuz. Ondore hauek atera nituan: Abizenen leinargia bere arketikoetan datza eta ez inongo erregek nolabaiteko morrontzaren orde, prestaturiko agirietan. Agiri guztiok galduko balira ez legoke ezelako gaitzik, baina abizen bakar bat dezagertuko balitz, gure hitoria edo historia-aurreko agiri bat faltako litzake edo euskararen jatorria argi dezaken ots/hitz bat.

5.4. La onomástica, oído de la prehistoria o el vasco-europeísmo

a) *Helburua*: Historiak tokian eta unean eman izan diren ekintzak begiztatzen ditu eta kondaira idatziari ematen dio garrantzia: Historigileen ustez, kondaira idatzia hasten deneko, hasten da historia ere. Erljio gonbaratuen historigileek, ostera, herrien hizkuntzei jara ematen die, herri bakoitzaren hizkuntza aztertzea eta haien erlijioa aztertzea ondore beretzat hartzen dutela. Beraz, herrien prehistoria hizkuntzak erlijioen historia egiteko balio die erlijioen azterleei. Historigileen ustez, bestalde, ezin daiteke sakondu prehistorian arkeologiaren aztarrenik eskuratu ezik. Aztarren bidez antxinakoen eskuz egindako lana eta teknika aztertzen da. Aztarrenon artean antxinakoen idazkiak ere agertu izan dira Sumerian, Egipton eta Ugariten. Orduan harrizko edo bustingi ondakinen lekukotasuna bigarren mailan gelditzen da, haren literatura edo historia idatziaren ondoan. Bestalde, historia asko handikien belarriak gozatzeko idatzia izan da eta maiz ezin daiteke berezi egia ala gezurra den. Hala ere, "historia" deitzen da. Baina akatzik gabeko historia nahi duenak herrien hizkuntzen mezua bilatu behar du. Prehistoriako hizkuntzak prehistoriaren berri dakite, eta antxinakoen historia egiteko nahiko da hizkuntza hoienez jasotzea.

b) *Euskara, azterbide*: Hizkuntzak herrien barne-historiatzat jo dituzte zenbait jakintzuk, historia idatziak baino egiaren muina hurragotik jarraitzen dutelako, hareago, egiaren berezko adierazpen direlako eta prehistoriako hizkuntzak, berriz, "beste paleontologia" direlako. Historia, beraz, norbaiti edo zerbaiti izena ipinten zaionetik hasten da. Izenok bustingi erreak baino aztarren ziurragoak dira eta antxinako prehistoriaren berri ematen digute. Aztarren bidez antxinakoen kultura antzematen da, onomastikak, ostera, antxinakoen burubideak argitzen ditu. Historia idatzia hitzlerro jarraituez egin-kondaira da. Ahoz-ahozko onomastika entzunak, ostera, hitz banatuez egiten du historia. Hitz jarraia errazago lerratzen da erratura, onomastikaren hitz banandua baino, idazleen helburuak bihurritu dezakelako. Onomastikak aldi eta unean zehatz deskribatzen du lurra, herrien eta pertsonen ondare unea eta euskara deskribapen hori ulertzeko lain da. Beraz, ono-

mastika ahoz-ahozko kondairaren zatia da. Onomastika hainbatean igatua ager daitekenarren, jatorrizko eredura erakargarria da eratorrien teknikari eta arketipoen legeari jarraiki.

c) *Edukina*: Antxinako Sortalde Hurbileko, Ipar-Afrika eta Europako tokizenen lehengusutasuna egiztatu, mapa bereziet azaldu. Lurreko tokizanak: *une, ate, atari, arte, ibai, ibar, mendi, muno, landa*, etab., gizakiak eraikitako urien izenak: *uri/iri, uli/ili, ud/us, torre/dorre, ortu/orde*, etab. edukinen bidetik eta mapen lagungarriaz. Tokizenen deskribapen zehaztasunak arketipoz-arketipo azaltzen dira.

Giza sendiaren eta laborantzako lanabezen eta emaitzen izenak: basalandare eta basapistien izenek, barazki eta abere etxekotuen izenekin konparatu eta bereziz. Neolitosko arte eta erlijioa paleolitoskoarekin gonbaratzen da eta sinbororaino soilten den artearen eskematasuna idazteko letren egiturara hurbiltzen. Hizkuntzaren ots-gaiak arketipoen izenei begira azalzen dira. Hizkuntzaren kronologia oroitza, eta beraz, onomastikaren kronologia, hitz arruntea bezala, arketipoen bidetik argitu daiteke. Megalitos Haroko artea eta erlijioa, grafitoetako sinboloen teologia gure hilerrietako Eguzki Sainduei begira aztertzen da, edukina izenetatik jasotzen dela. Europaren jaiotza, herria, kultura eta izena aztertzen da. Onomastikaren eratorriak eta forma igatuen edukina forma osoen argitan ikusten dira. Onomastikako eratorriak izen arruntent igatasunaren eredu agertzen dira. Onomastikako hitzen arketipo itzuliketa, aurrizkiak atzizki eta alderantziz ahozkatzean, izen propioak ugaritzeko era berezia eta izen arruntent itzulikera eredu bezala agertzen dira. Izen itzuliketa hizkuntza bereko izen arruntak deberdintzeko jokera eta hizkuntzen izen arruntak bereizteko hizkuntzen artezi zahartzat ematen da.

Euskararen europeartasuna onomastikan ezeze, hitz arruntent eta erromanikar sintaxiako zenbait kasutan agertzen da indoeuropeismoaren gainetik. Euskara europear gainerako hizkuntzen jatorria aztertzeko gai edo ezinbesteko lagungarri da, tokizanak lekuko.

Liburua argitara eman ondoretan hauek aipaten ditut: benetako historia herri batek toki bateri izena ezarten dionean hasten da. Herriak ba doaz, kulturak aldatu egiten dira eta izena gelditzen da,

2° laburgoa: TOKIZENEN DESKRIBAPENERAKO KONPOSAGAIK

ANU	UTU	RA	ILU	BA	KA	AS
une/on/uin	ota/oxa, oya	ara/era	ola, uli, ul	ibai/ibi/vi/be	goi/goiti/guen	esi/es
ana/an/ume	ate/atx/ax	arru/ru	alde/alto	ibar/val	gane/gibel	zelai
ain/in	zu/so/sub	aran/arain	larre/lur	ber/vera/buru	kana/gain	zehar/zier
naba/mun	terra/derry	erri/eria	leze/losa	barru/barren	kaba/cave	sakane
ante/and	zuma/sumo	riva/rio	landa/land	barri/berry/feria	kara/gara/garai	sare/sarre
aind, amil	tras	ur/aurre	alto/alda	beiti/bajo	colle/gaila	zabale
ondo/ando	oste/usta	arte/arda	leku/loc	boste/post	guen/guren	senda/zena
mendi/monte	otero	oru/orbe	laun, llano	bide/vado	coto/cota	sar/sarria
marra/mar	atari/atar	urte/urda	albo/alba	barrio	kata/gotor	sarale/sel
musu/motx	solo/sola	rio/roca	loma/lama	portu/puerta	garra/guerra	exitu/ejido
muru/mira	soro/sora	erota/rota	loizun/lizun	hortu/huerta	campo	estu,seto
mallo/mala	zulo/zilo	uru/ur	alde/aldea	barruti/prado	ekur/gorta	eskuri/segura
meta/malda	zubi/sub	erial/real	elge/elkor	baso/paso	koro/gorri	saroi
mortu	soto	eremu	legar/lugar	barda/verde	karkaba	zelai

izenak tokia deskribatzen duelako”, “arkeologiako aztarrenen ondoan, euskarak onomastika bidez, Sortalde Hurbileko Europa eta Goi-Afrikako kulturen batasuna ziurtatzen du”, “beraz, arkeologia ez da historia izkribuaren aurretiko argibide bakarra, onomastiken euskal edukinak ideak bai-dira eta tokizen deskribatzailea, tokian bertan argitu daiteken egia”, “eta, beraz, berak emendatu ditzake antxinako izen jatorren ezaupideak eta Greziara eta Erromara begira historia idatzi dutenen zurrunkeria asko”, “Europa Antxinako Sortalde Hurbilaren ekonomia eta kultura orube berria izan zen *Orube>Europa*, izen eta izan”.

5.5. Analogía, arte del lenguaje, según el vascuence

a) *Helburua*: Hizkuntzak arketipoengandiko analogian du oinarri eta eurgandik datorren argi errainuez ustiatzean datza hizkuntzaren ordena, logika eta mitologika. Beraz, hizkuntzen jatorria eta garapena analogian datza eta bera da hizkuntza lantzeko artea. Euskarak logika honen jakinduriari jarraitzen dio hitzetik ortzera eta hein baten berari zor dio, hizkuntza bezala, sorrera eta garapena eta analogiak agiriko sinboloekin duen loturari, hainbat gizalditako oroitzen akorduan irautea. Hasierako jainkoen izenari, ezelako etenik gabe, zintzoro jarraitzea, beste barik, hizkuntzaren hazkundera bide beretik osatu duelako seinale da, ez ostera, historian zehar jainkoen izenak nastau eta aldatu izan dituzten hizkuntzena.

b) *Azterbidea*: Euskararen eredia eta hizkuntza erromanikoena. Hizkuntzen egituran eta izenen sorkuntzan euskara aurretik doa, eta gerkeza eta latina maiz euskararen eta bere garaikide eta auzokide izan ziren hizkuntzen ikasle dira, sinonimian eta hitz bihurrituetan maiz agertzen denez. Onomastikaren hitz egitura eta bere gorabeherak hizkuntza arruntaren aurre-saioa bezala dager sorburutik eta aurrera. Analogia hitzen jatorrian ezeze, gramatikazko zehetasun txikerrenean azaltzen da, hizkuntzaginen erritoaren arteziak uneko giza apetei bidea eragosten diela. Analogiaren mitologika erritoaren giroan bete eta ospatzen da, erritoak ematen bai-dio hitzari hako "orazioen" artezia eta zeru eta lurraren arteko ulerbide argi eta aproposa egiaztatzea.

c) *Edukina*: Sinboloen eta hitzaren sorrera, errittoa eta hitzaren artezia, gramatikazko zati, perpauesen eta elementuen analogia azalpenez eta eskeman. Analogia aurrizkien eta atzizkien emagina bezala azaltzen da arketipoz arketipo, bakoitzean eskema lagungarri duela. Toki eta une izenen analogia arketipoz arketipo, azalpenez eta eskemaz. Jakinduriaren azalpena (ohar, entzun eta adierazpideko hitzak) eta eskola analogizatu. Sintaxiako aurrizki, atzizki eta artizkien analogia, arketipoz arketipo eta eskeman. Sinonimiaren eremua Antzinako Sortalde Hurbileko hizkuntza hilen edo bizien eta euskararen artean eta mediterranean hizkuntza hilen edo bizien eta euskararen artean arketipoz arketipo. Onomastikako izen eratorrien arazoa eta hitz arruntaren igaduran duen errepika arketipoz arketipo. Hitz bihurrituen jokera onomastikan eta handik hitz arruntetan izan duen eragina arketipoz arketipo. Ondorenak eta Bibliografia".

Esan bezala, Aldundiak eskatu txostena Labayru eta Euskaltzaindia erakundeetara bidaldu nuan. Labayrutik behingoan erantzun zidaten, ez zegokiela eurai halako azterlanen eritzia emoterik, laburki esanda, eurena *Eleiker* barik, ETNIKER zela. Euskaltzaindiatik lana azterlarien eskuetara bidaldua izan zela ziurtatu zidaten, baina ez dut azterlarion erantzunik izan gaurdaino. Geroago jakin ahal izan dudanez, euskararen sustapenerako lan berezi batzuk dira aipatu erakundeen oneritsia behar dutenak. Edozelan ere, niretzat

euskararen alde beste esparruetan egiten den lankideen arnasea nabaritzeko aproposa izan zan egitasmu txostenon sarrada.

Txosten ber-bera bidaldu nuan Aldundiko Kultura Zuzendaritzara haren *Kultur ikerketa eta garapena* sailak nere lanarekin zerbait izango zuelakoan, baina oker nenbilela erantzun zidaten, Euskara Sustatzeko Zuzendaritza Nagusira jo izan behar nuela. Ordurako, baina, berandu zan, aurkezteko epea joana zan-eta.

5.6. *Theo Venneman eta Europa euskaldun-ohia*

La onomástica, oído de la prehistoria, o el vasco-europeísmo argitaratu eta handik bost hilabetera *Correodigitalak* eta *Deiak*, ostera ere, Theo Venneman, Peter Forster eta Elisabeth Hamel hirukotearen teoriak haizatu zituzten, zorionean. Berria "Scientific American" aldizkaritik hartu zuten. Zientzilarion ustez, Europako toponimia neurri handi baten euskoeuropearra da eta ez indoeuropearra, *Euskoeuropear* hitza neurea da, baina kasurako, berdin dio, euskal erroko izenak direla dinoe. Eta zera gehituko nieke neure kabuz: Europako historia ordu hartantxe jaio zela, euskaldunek eta bere antzeko hiztunek *Europa* < *Orube* honeri izena ipini ziotenean. Ez utzi dena eurari asmatzen, ez daitela euskaldunoz hako jakinduriarena esan "*kanpoko intxaurrak hamabost, etxera etorri eta bot*", ez Euskal Unibertsitate Kanpusari "*kanpo eder*". Ako hiru aleman jakintsuak, guk beste euskararik jakin gabe, halako eritzira etorri direnez gero, guk ere zerbait esan genezaken. Euren uztez "prehistoriako europearren hizkuntza euskara zan" eta bildur barik jarraitzen "ez dinogu larregirik, europear denak euskaldunak zirela esatean". Tira, Alemaniak oraingoz neure tesiaren alde urten du, eta ez dakit gure hizkuntzalariek zer esango duten. Ausaz ohargabetu dagokez orain ehun urte beste aleman batek irazitako teoriiez, ots, indoeuropeismoaz, indogermanismoaz edo konparatisten eritsiekin. Gure euskara ama umezurtzat hartu eta baztertu zutenekin, algia. Jo! Orain golpean teoria berriekin has-tea, aztoragarria da, gero. Hala ere, "Euskal Unibertsitateak" ardu-raz jasoko zuten hiru alemanen teoria berria, ez dut uste lehengo-en "que inventen ellos" errepikatu eta lasai geldituko direnik, gai-

nera hizkuntzalarien arteko genetistak ere euren aldeko direla jakinik. Euskoeuropeismoaren teorien oinarriak aztertu beharko dituzte, teoria zaharrak baztertuz.

Ni Elisabeth, Peter eta Theoren teorien berri bigarrenez jakin nuenean, ostera ere poztu nintzan. "Euskaldungo honi gogoko zaio berri hau eta berria igazko frogaz bermatu behar diegu" esan eta *La onomástika, oído de la prehistoria, o el vasco-europeísmo* ale bat bidaldu nuan Deia-Kultur Sailera, Berripaperak eta beste arrabotzetara, baina *Deiak* bakarrik erantzun zidan eta halatan, ez nago ziur euskaldungo honi benetan berria atsegin zaionentz. Ausaz berri bezala atsegin zaio, ez ikasgai bezala, forofoei fubola lez. Kultura sail arduradunekin ames larregiak egin nituan. Elkarrizketa paratxaratsua izan zeitekena, edurraren erruz, telefonozko harreman otza izan zan eta horrek ez dizu elkarrizketatzailearen arpegia ikusteko ere betarik ematen, gutxiago alemanen teoria utsa etxeko tesi frogatu batekin gonbaratu ahal izateko.

Theo Vennemanen-eta teoria Neolitos Harotik hara doa eta Europako euskalduntasuna hamazortzi mila urte K. a. joten du, eta euskarak, Barandadiaren ustez ere, K. a. zortzi mila urte aurretikoa da eta giza jakinduriaren garaiak ez doaz Neolitos garaitik hara eta kultura eta jakintza uneok Antxinako Sortalde Hurbilean nabaritu ziran, hain zuzen ere, Europako ibaiak eta itxaso barrena haien ibaia eta itxasoekin topo egiten duten unean. Ainamendiak euskaldunen gordeleku eta santutegi izan dira, euskararen babes, ez sorleku; euskarak ez duelako zerikusirik koba iluneko gizakiarekin.

Zoritxarrez Theo Venneman beraren ustez teoria honek bide egin daino hamarkada joango omen da eta euskarak darabilen *korrikaz* nola jasan abiadaren keldoa?⁴.

4 Theo Vennemann Deustuko Unibertsidadean izan zan bere teoriaren *Europa Vascónica*; Durango (2009) MILA SALTERAIN ETA LAGUNAK gaztelaniara aldatu liburua aurkezten (txaloak emakumeoi). Durangoko Azokan ikusi ahal izan gendun eurei esker. Medioek ez zuten aipamenik ere egin ez bezperan eta ez biharamunean. Izan ere, Theok iragarri "hamarkada" ez da igaro oraindino.

VI. EUSKARA IKERKETAN *ELEIKER III***6.1. Urteko (2003) egitasmoetarako urtebarrikari**

Euskera ikerketa geldiezineko arazoa nuenez, igezkoak bezala, aurtengo *Eleiker III* asmoek ere argia ikus zezaten, laguntza eskatu nien Aldundikoei, ea oraingoan suerte hobarik itxaro nezaken. Hatarako *Eleiker* asmo orokorra aurkeztu nien, titulu berrien, azterbide eta edukinak laburki, bada ere, azaltzen nizkiela. Eskabidea erakunde baten izenean egiteko erantzun zidaten, erakunde horrek irabazteko asmorik ez izatekotan eta orduan gure erlijioso erakundeaz eta bederen neure fraide elkarteaz oroitu nintzan eta Nekaldiko Kongregazioaren Konstituzioak bidali nizkien beste dozenardi egiztagiriekin batera: Aldundiarekiko eta Seguro Sozialekiko zorrak kitu, fraideok Zornotzako auzo honetan ia gizaldi erdi garelakoa, etab. adieraziz.

Diru laguntzarako puntuak lortzeko txanda hartu beharko nuela, tokiko euskara, hezkuntza, komunikabideak sailen lehentasuna bete zedin. Puntu bereziak zituzten teknologia berriek, umeentzako jarduerak, gazteentzako jarduerak, edonorentzako jarduerak. Egitasmoa Eusko Jaurlaritzak Euskara Birpizteko duen Plan Nagusiarekin bat etorri behar zuen, 25 punturako. Erakundearen iraunkortasuna, egonkortasuna, esperientzia eta bermea eta beste erakunde batzuekin lankidetzan jarduteak 25 puntu izango zituan. Jardueran parte hartzen dutenen kopurua 10 puntuz baloratzen zan. Proiektua aztertu ondoren, epaimahi kalifikatzaileak gutxieneko puntuazioa ezar dezakete, eta hortik behera geratzen den izakunde eskatzaileek ez lukete diru-laguntzarik jasotzeko eskubiderik izango. "Aurten lortuko ete dut?" ninon neure artean edo "lortuko ete dugu?" Kostuen kopurua eta abar ere ohartzekoak ziran.

Urtebarrikaria hainbat ondoen abesteko, eskakizunak bete eta 2003 urteko egitasmoa ahalik zehatzen azaldu nizkien:

6.1.1. "Antiguo Testamento del Vascuence" egitasmoa

a) *Helburua*: Herri guztiak dute Jainko ezaupide bat eta Euskal Herriaren Jainko ezaguera, berezia delarik ere, Antxinako Sortalde Hurbileko Jainko ezaupide ardatzari lotuta dago, mediterraneanar

kultura bezala, Lehen Neolitos Harotik hona. Israeldarrek alboko Sumer, Egito eta Ugarit herrien kutsuko mitoetatik jaso zuten Bibliako altxorra eta idatziz aditzera eman etxekoei: munduaren sorkuntza, gizakiaren eta jainkoen arteko aserrea, zigorra eta salbame-nari dagozkienetan, beti ere euren profeten gidaritzapean. Euskaldunek, ostera, ahoz-ahozko literaturari, euskarari, gomendatu zioten Jainko ezaguera horren oroitzua, belaunez belaun iraun zezan.

Euskal ahozko literatura euskarari lotua dago eta euskarak bere egituretan, forma eta edukinetan gordetzen du Jainko ezaguera horren gomuta. Hagatik, euskarak teologiazko edozein sail eztabaidatzeko eta azaltzeko gai da, heberkerari edo hizkuntza klasikoei mailebaturik eskatu gabe. Euskalduna beti arduratu izan da gizakiaren sorkuntzaz, bizitzaz, heriotzaz eta salbamenaz eta arazook jainko eta giza arketipoetatik analogizatu izan ditu.

Jainko ezaguera zaharrari mitologia deritzaio, beraz, mitologia da asaben teologia eta euskara bera da hori azaltzen digun mito bizia, euskararen hitz bakoitzak jainko edo giza arketipo zaharren eruedetatik asmatua eta ahozkatua izan delako. Ez dago beragan hots bat huts denik, erritoz jasotako izenak ematen bai dio izana lortzeko ahala hizkuntzari.

b) Azterbidea: Azterbidea euskara beraren egitura mitoaztertuetan oinarritzen da, bere hiztegiko edukinak mito bizi eta adierazgarri gertatzen direlako. Horrela, Sumerren edo Egipton gertatu zen jainko ezaguera euskararen egituretan jasotzen da, Kristau Dotrinean kristauen siniskagiak bezala, baina, testo jarraituan barik, hiztegiko edukinetan edo gramatikan artezi sotilagoan bildurik.

Nondik norakoen ingurunea egiteko, beharrezkoa dugu Neolitosko lehen kultu uneak aztertzea, Sumer eta Egipto bereziki. Zeintzu ziren euren jainko nausiak, hizkuntzaren arketipo izatera heldu zirenak. Euren mitologiak bai al du euskal errito zaharrekin zerikusirik? Egia al da euskarak Antxinako Sortalde Hurbil haretako hizkuntzekin lehengusutasunik duena, hizkuntzalariek dinotenez? Nondik datorkie bestela kutsu hori?

c) Edukina: Zortzi kapituloren arian gaiok azaltzen dira: herme-

neutikaren jakinbidea, jainko-izenak eta giza konplexuaren ize-
nak hizkuntzako arketipoen sailean. Analogiaren iturriak eta exe-
gesia. Giza sorkuntzaren mitoak: Anuren unetik umatuak, Erraren erraietatik erdituak, Kinguren odolelan gaindituak. Baradisuko Baratza, hondamenaren mitoak: jainko gazte eta giza-
kien marmarra eta arramanatza jainko nagusien aurka, harroke-
ria eta jainkoei gainartu nahia, jakinduriaren puzmina. Zigor-
penaren mitoak: Ugoldearen galarrena, erritozko zigor eta herio-
epaiak, Miel Otxin, Markitos, etab. Salbabideko mitoak: Utu eta
Ziusudra Tulubioan, Erraren eta Errensugearen arteko burruka,
salbabideko seinuak: etsaigoa, Maitiarri eta Sansonarriak, mega-
litis motik hilerriko gizonarrirainoko egonarrria, *ekur/arroka*,
zigurata eta piramidea. Abrahamen lurraldea. Antxinako Sortalde
Hurbileko ezaupideko hordukoen ezagueran eta Biblian. Izendegi
argia euskararentzat. Asaben Zapatua eta Larunbata, hebraiera-
ren eta euskaren aldeak. Jainkosa amak eta Andre Maria: lehen
sorkuntzako ama jakinkosak eta Maaten eta Mariren aginduak,
Mariren osa-ahalmenak. Andre Maria eta Jainkoaren azken sor-
kuntza, Andre Mariaren herri tituloak: Andre, Dame, Dona, Lady.
Jakinduria eta hizkuntza arteziak: ahozko jakinduriak eta jakindu-
ria idatzia, jainko arketipoak eta izadiko jakinduria, giza arketipo-
ak eta gizarteko jakinduria, hizkune soiletik esakunera doan gra-
matikazko lotura. Tokizenen ezaupiderako hiztegia, teologiazko
analogien azalpenerako hiztegia.

6.2.1. *Antiguo Testamento del Vascuence*

Titulu hau argitara ematean eta ondore hauek ateratzen nituan:
“Liburudun erlijioak testo sakratuaren hizkuntzarekin eta eduki-
nekin bat egiten dute eta horrek ematen die batasuna eta iraupena
herri bezala. Liburu gabeko herriek, ostera, antxinako oroigarriak
aldioroko ospatuz eta, ahozko literaturari gomendatuz oroitzen
dituzte hasierako aldiak: santutegietan edesi inoak, aieneak eta
otoiak, hoiek gordetzen bai-dute hasierako oroitza eta Jainkoare-
kiko hitzarmena. Liturgiako ospakizun hoietan jaio, heldu eta
garatzen da ahozko hizkuntza, ezelako letren laguntza gabe: aldian
aldiko herri esakerak, jakinduriazko esakunak, atsotitzak, ipuinak

narratzeko artea, bertsolaritza eta edotariko abestiak osatzen baidute edukinen oroipena ahozko herri kulturadunetan.

Ahozko literaturak entzunera ikasten ditu mitoen kondairak eta jakinduriatzko esakunak eta betiko eta gaurko soinura ezagutzen ditu gizaldietan zeharreko tokien izenak, tokiok direna deskribatzen baidute eta izenok hiztegi-ideekin bat datozelako. Euron babesera egiten da *Euskararen Itun zaharra*, gaurdaino zazpi giltzaz itxia, eta argitara urtetan ari dena exegeten etab. elezaleen iker lanerako.

Itun Zaharreko salbamen mitoen agintzariak eta ahozko jakinduria dastatu zuten herri askok, Ituna onerako edo txarrerako liburuan idatzita zutenek baino, hobeto ulertu zuten Berrionaren espiritua, letrarekiko morrontzak espiritua ito egin bai-zien, aldien osapenean Jainko seme-alaben askatasuna Kritogan gogoz eta bihotzez jarraitu ahal izateko fedearen peituz.

6.2.2. Labayrukoei goraintziz

Urte haretan (2002) Paul Poupard kardinala Labayruko Etniker ikerlarien antropologia lana gorestera igarao zan hemendik. Haren gidaritzapean egin da nik erruz erabili dudana *Diccionario de las Religiones* liburua. Han herri txiki eta handien kulturaren berri ematen da, batez ere Jainkoari buruzko haien siniskerak gonbaratzen. Memoria haiek autorre zaharren eta berriek antolatuturiko txostenak dira. Herri zaharren artean han agertzen dira mesopotamiar eta egitiarrak, han attitarrak, minoikoak, etruskoak, galorromanoak, iberiarrak, britaniarrak, keltarrak, etab. herri. Ene ustez Euskal Herriak ere ba du zer esanik, kultura zaharron garaikidea delarik. Idatzirik ez duela? Hori zan Unibertsitateko Erljioen Maisuak ere esan zidana. Berak idazkietatik bakarrik atera zezakela halako edo bestelako ondorenik. Euskararik ez zekian. Uste dut erlijioen gonbaratzaile M. Müller maisuak ikerketetan inobre gorai-patzen du hizkuntzen lekukotasuna gainerako zehaztasunen ondoan, "lekukoetan berak bai du sinisgarritasun beheinena", bere gardiz, Euskara bezalako, ahoz-ahozko hikuntza batek eta aldameneko literaturatik garbi iraun duenak memoria

aparta izan beharko luke papiro zaharren pentsudan diharduten exegeten munduan. Geurea aztertu eta bestei jastarazten ikasi behar dugu, gure jatetxeak turistekin egiten duten bezala. Kinka honetan Labayrukoei idatzi nien, euskal memoriak ere *Erljioen Historian* parte izan zezan. "Guk prestatu beharreko txostenean gure etnografoen eta euskara beraren oroitza bateratu joan beharko leukee, batak besteagaz egiten daben lotura sendoagoa ezeze, bi-txiagoa eta sinistagarriagoa izan daiten. Gure Etnografiak erakutzi dau bere ondarea, gure Euskarak hitz egiten du." Ordua zela aipatzen nien, baina *korrika* honetan ez nituen lagun izan.

6.2.3. Euskararen jakinduria

a) *Helburua*: Berbako kultura landu duten hizkuntzak hitzaren analogian bertan dute jakinduriaren oinarria. Eredu edo arketipoak aurretik jartzen direnean eurek antolatzen dute hitzaren forma eta edukina eta haren izenaren soinuaz idearen nondik norakoa nabaritzeko nahiko da arketipoen gida, arketipoak direlako ekintzan edo jasanpenean betiko itu eta ereduak.

Hitzaren sorkuntzan arketipo-izenak soinuaren gida ematen dute, ots, konsonanteena, eta, idazkizunik ezean, karpetaen gordailua egiten dutela oroimenarentzat. Arketipo batak edo besteak, bitzuen edo gehiagokoen andanak bide egokia egiten diola ideari. Euskararen jakinduria hitza sortzeko artezian ezeze, hitzaren antolapenean oinarritzen da. Hitzen multsoa nola sailkatu? Balore berdintsukoak elkarren ondo ezarri idearen hazkunderan edo kontra-jarri elkarri, berdinketa eta bereizkera arteziaren bidez: *nahi/nahia* bide bereko irrika eta irrikatua zeinalatzen du, adibidez, arketipo berdina, zehaztasun bokalak bakarrik bereizten dituela, baina *nahi/neke*, *nahitu/nekatu* dinonak, bata bestearen kontra jartzen ditu, ots, giza arketipoa jainko arketipoaren aurka, *-ka/-ga* arketipo gehituaren arteziaz.

Hizkuneen mokauetan, orobat *mentu/mendu* formek idea beraren hazkunderan doaz, batak bestea dakarrela, elkarrenak bai-dira, arketipo ber-bereez emanak, *t>d* ozendurak bakarrik bereizten dituela. Hizkuntzaren arteziko mokauok, jakinduriaren onuran

datoz hitzak zehazten eta euskararen jakinduria adierazten.

a) *Azterbidea*: Aipaturiko jainko santutegietan ezeze, antxinako kosmologiaren elementuetan idoroten ditugu jainko arketipoen sorgua: *uin/su/aire/loi* (lur) jainko berezien izenak bai-dira: *Inu/Utu* sumeriarrak, *Erra* egitiarra eta *Ilu* ugaritiarra. Jainkookin harremateko oihuak *ino*, *otoi*, *arren*, *hel* bezalako deiak dira. Oihuzko otoitzok gero "orazione" paradigma heldu bairan erritoaren arian.

Mendiak jainko santutegi ezagunak zirela, *Ainameandi/Montaine*, *Otamendi/Montoto*, *Erremendi/Monteré*, *Ilumendi/Mendilu* bezalako izenak jainko arketipoei eskeini santutegiak ziran. Jainko arketipoez osatzen zan hasierako hizkuntza eta jakinduria zaharra, baina goitik jakinduria lortu zuela-ta, zeru eta lurra-
ren arteko auzian gizakiak bere ordezkaritza hizketan sartzea erabagi zuan, bere burua mitoraino jasotzen zuela, hitzaren erritoan.

Gizakiak, kosmoaren partekide zelakotan, soineko konplexua hartu zuan mikrokosmotzat eta *Ka*, *kai* denetik, *Ba baita* duenetik eta *As asa*/arnasa hartzen duenetik aurreratu zituan arketipotzat. Giza kosmo elementuok Sumeriako eta Egiptoko kosmologia-teologian agertzen dira eta *Gamendi/Mendiaga*, *Bamendi/Mendibe*, eta *Asmendi/Mendas*, etab. santutegietan eta euskal hiztegian.

Harrezkero gizakiak jainko arketipoen batzarrean parte hartzen du otoi edo hitz egiten dueino edo haiekiko erritoan parte hartzean. Gizakia jakinduria berriaz argituala, hitzari arketipo berrien nabardura ezarriaz, ideia berriak azaltzeko modurik izan zuan.

c) *Edukina*: *I. Hitzaren analogia*: Hitz multsoaren prestakuntzan (historikoki ezagutua izan da bai Sumerren eta bai Babilonian eta Egipton) arketipo bakoitzak bere esparrua hartzen du, izadiko sorkuntza, tokiak eta aldiak jainkoenak direla, eta gizakiak bere lanaz ekoiztuak eta bizi duen tokia eta epea berekotzen dituela.

Euskarak iturburutiko analogiak ezagutzen ditu, ots, monosilabismotik harakoak, beste hizkuntzak ostera, gizakundearen garaikoak, bigarren edo hirugarren mailakoak bakarrik. Kapituloan arketipoz-arketipo azaltzen da eredu bakoitzaren esparrua.

II. *Hitzaren antolapena*: Monosilabodun edo aglutinatu direlarik, hitzak hizkunea antolatzen dira, bataren edukina bestez ornitzeko eratan, euren arteko gramatikalizaziozko loturarik gabe. Arketipoz-arketipo azaltzen dira hainbat adibide. Izenak eta izenlagunak euren artean duten lotura antzekoa da: *Anu/anho*, *ama/eme* hizkuneak dira eta *ama laztana* esakun bat, ostera, *gure ama* bezala. Ez dute beste lotura beharrik, *NOR ZER/ZELAKO/NOREN* den adierazteko.

III. *Hitzaren arteziak*: Hitzak arketipoengandiko bizia dauka eta arketipook konposizioan ere nortasuna gordetzen dute, aurrizki edo atzizki doazela: *Atamendi* edo *Mendata*, *Anielarre* edo *Larraine*, etab. edo hitz arruntetan *babes/besape*, *Inko/ikono*, *timere/metuere*⁽⁹⁾, etab.

Hitzaren artezi honetatik sortu ziran aurrizki, atzizki eta artizkiak eta sumerierak, euskarak eta ingurko beste hizkuntzak soinekoz jantzi zituzten. Atzizkiok arketipoen arrobi beretiko tresna dira eta hitzen arteko lokarritzat, kasuena adibidez, erabiltzen hasi ziran eta, gramatikalizazio honen bidez, hizkuntza monosilabodun eta aglutinatu izatetik zauli izatera heldu zan.

IV. *Esaldien joskera*: Euskaran alde gutxi doa joskera soiletik esaldi konposatuaren joskerara bietan ere atzizki berberak agintzen dutenez gero. Sintaxi honek bereizten du euskararen eta greko-erromanikoen arteko joskera, euskarak atzizkiz egiten duena, besteek aurrizkiz edo preposizioz egiten bai-dute. Hala ere, sintaxia azaleko aldea baino ez da, funtsezkoa da, ostera, analogia mailan duten kidegotasuna.

V. *Hizkuniket esakunera*: Hizkunaren mokauak bere jarraipena izan behar zuan esakunetan, ulerbidearen osapen eta jakinduriaren azalpenerako. Hala umeari aldioro ematen zaizkion mokauak ez dute kentzen bazkaritan oparago ematen dena. Eta esakunak dira hizkuntza osatutzat ematen duten adibideak. Mokauak ez dira gramatikalizatzen, esakuna bai ordea. Adibidez *izena/izana* hizkuneak behingozko indarra du eskolabide eta oroipen mailan. Hareago gai bizia balin bada, jarraipena izango du esakunetan eta nolabait azaldua edo aztertua izango da era batera edo bestera, adibidez: *izena*

duen guzik ba du izana/izena da bat eta izena bestea, etab.

Ondore orokorretan hizkuntzaren sorrera eta euskarren hermenetika aipatzen ditu: "Jainkoak, gizakia bere irudira sortzean, ezerezetik sortzen du gizakia, "Inuk in" ohi bezala, baina gizakiak Jainkoa bere asmakizunera irudikatu eta azaltzean, izadi agerpenetako haren arpegia mintzoz eta imentzioz imasimo antzetzten du, "gizakiak egin" ahal duenez, ahozkatzen duen berbak entzumenean duela hotz eta edukinaren harrera zehatz. Beraz, horra esakuna "Jainkoak in, gizakiak egin".

Euskarak, jakinduria zaharretik jakinduria berrira doan kultura saltoaren lekuko denez, aurreistoriaren berri daki eta antxinateko zoko ilunen argitzeko hermenetika aparta da.

Euskarak monosilabismotik zauliraino egin duen bidaia jakingarria da euskararen eta hizkuntzen sorrera ulertu nahi duenarentzat. Monosilabismoan hurragotik aurkitzen dira hizkuntzen arketipoak eta analogia beheinenaren sorguak.

Ahoz-ahozko euskal jakinduria honek eman dio euskaldungoari, klasikoen garaitik honaino, inguruko hizkuntza izkribuz landu eta ikasien ospera ez lerratzeko nahiko argitasun eta "euskaldunei euskaraz" asmoa burutzeko eritzia. Euskararen jakinduria honek jasoko du egunotan bera baztertzen duen hizkuntzen zientzia edo linguistika. Zientzia honek bere arloa argitu zezaken suzia, ots, euskararen giltza, hizkuntza ez ezagunen gela ilunean gorderik euki bai-du gaurdaino.

Harrigarria ere ba da bere jatorria aztertu eta izen eta abizenen edukina erakus dezaken hizkuntza bakarra horrela baztertzea, eta susmogarria ere bai kulturaz guraso aberatzen seme-alabatzako burua daukaten erromanikoek gurasoengandiko altxorra nondikoa den eta nola pilatua izan den jakin nahieza.

6.1.5. Euskara mito bizia

*Euskara, mito bizia*⁵ liburu egitasmoa berezia izan nuan hasieratik: umeentzako irakur liburua egin nahi nuan, gure umeek, maiz ipuin

⁵ Jung sikologistaren arauz hizkuntza "mito bizia" da eta nik egia hori euskaragan ikusten nuen gero eta argiago.

3° Laburgoa: GONBARAKETAREN ANALOGIA ARKETIPOEN ARABERA

AN	UTU	RA	ILU	KA	BA	aS
ain/ein/oin	duin	aren	lain	gain	bein/bai	asina
-en/-ino	edu'uti	arean	ala'ola	cuán	bezala	zelan'selon
ansi'antzoz	zoin/ite/ide	are	lez	gino	veluti	jas'yes'ez
onan	idem'adin	orrela	olan	gisa'guisa	bardin	sic'así'sí
nola	oso'total	eratan	alaen	kide'equale	bezain	sano
muy'anitz	txit'sumo	real	aulan	kia'quia	behinen	sane, zein
inobre	super	areago	alyn	cual	presque	ya'según
ainbat	tanto'tal	urreean	alako	como	harto, bien	semeios
máxime	thusto	urreez	lar	guzti	parecido	aski'asko
nahiko	doi, soil	erruz	alaso	igual	poxi'poco	aseki'assed
minus	ttantta	ralo	labur	geitago	vere, bai	eskaz
noski	utique	real	alegia	gutxi	vix'apenas	certe
ante	tint'edo	ordea	aliter	egiaz	bestela	txit, xit
nahiz	todavía	or	alor	agian	baina'pero	zehatz

bidez dakiten etxeko eta inguruko mitologia, asaben jakinduria bezala uler zezaten, ots, mitoen kontakizunak, ipuinenak bezala, ematen dion argiak sinistagarri egiten da.

c) *Edukina*: Euskal mitoak hogetamahiru emanalditan, *Miel Otxinen* osin beltza, *Laminen alamina*, *Mari Yonagorriren koba*, *Markitosen marka*, *Erensuge gosetia*, *Olentzaroren orena*, *Aitoren seme-alabak*, etab. bezalako tituloak burutzat dituztela, gazteengan irrika sor dezaken, azaleko pasadenporan gelditu barik, errorraino joteko kuxidadea izan ahal zezaten:

a) *Helburua*: Aditza urkultzen dakinak hitzaren errorrainoko analisia egiteñ daki. Halaber, arketipoen berri dakianak, arketipoen gidaz edozein hitzen konpongaiak azter ditzake. Teoria mailan barik, mitoen azalpenean gazteei emandako eskola da, ots, mitoaz baliaturik, euskera den mito bizian sakotzeko literatura berezia da.

b) *Azterbidea*: Mitoa aipatzen da eta, bide batez, euskaren hermenetikaz azaltzen da mitoaren izena eta haren analogia inguru. Mito bakoitzak analogiarako bide zabala ematen du, mitotako pertsonaiek hizkuntzako arketipoekin duten lotura argitzen da eta, ez delakoan ere, euskararen hermeneutika zadorretan eskuartzeko aukera ematen du eta mito azalpenetan euskarak. Titulo bakoitza eskolako ikasgaia bezala ematen da. Gaia aurkez-

ten da eta entzulegoan kezka sorturiko galderei bide ematen zaie. Batzuetan galderak berak oratzen dio gaiari, bestetan gaiaren azalpenak dakartzki galderak. Galde-erantzuna edo *itaun/ituna* bai da ikasgaiaren azalpen era, mitoa bera dela ikasgai eta mitoaren bidez euskara eta, alderantziz, euskararen bidez mitoa. Testoaren ulerbiderako hiztegi berezia darama azkenean.

Euskararen maisuak oso lanpeturik dagozanez, haiekiko estiloa utzi eta katekesiko, *itaun/itun* eratako xedea hartu nuen ikasle gazteentzat eta, maisu ohiaren gisan eskola idekia antolatu nien, "método interactivo" delakoari bide eginik. Euskara berari buruzko gazte literatura egin asmoa izan nuen, maisuek ulertzen ez dutena gazteek antzeman dezaten.

Artean norbaitek esana dik, nire "inventoak" aldiei aurea hartu diela, baina aldiak bere bidea daroe, geu gara, geure postuen zain, geurean zirkinik egin gabe, atzean gelditzen garenak. Ez dut asma-tu, bestalde, polborarik. Euskara bera da polbora, bai politikari-ahotan, bai hizkuntzalarien eskuetan. Nik polbora honi joko eginik, su egiten badu, argirako zuzi izan daitela, baina bai eta ere itxitu-ren eta utzikerien galgak etetzeko astina.

Max Müller maisuaren "*Filologia eta mitografia gonbaratuak geure historia ulertarazten digute*" harakoaz lema eginik, aurkeztu nuan liburua, eta horixe zan nere asmoa: mitoak ipuinez esaten ziguna hizkeraren azalpenaz bermatzea. Hatarako hiztegi labur bat ere ba daroa lagungarri.

Gure etnografoek ahalegin bikainak egin dituzte aspaldidanik gure asaben espiritua iragarri nahirik, baina herriaren errito, ohikuna zahar eta oroitzapenetan gelditu da euren ahalegina, ostaz iritxi direla beste herriekiko ohiturekin gonbaratzera edo argigarritan euskarari galdetzera. Hizkuntzalariek mitoa aipatzen ere bildur dira, mitoa arrazoiaren eta, beraz, ustezko argiaren kontra dagoelakotan. Eta hona, arrazoiaren mitoak, disziplinaren mitoak, metodologiaren mitoak, konstituzio mitifikatuak demokrazia-ri baino, kalte gehiago egin diote euskararen azterpenari.

Mitota eta hizkuntza batera jaio ziran eta batabestearen lekuko dira. Sumerrek eta Egiptok idatziz eman zituzten euren mitoak

4 ^o Laburgoa: IZENRODEEN ANALOGIZATZEA ARKETIPOEN ARABERA						
AN	UTU	RA	ILU	KA	BA	AS
en'ni/no	tu'tou/you	era/ar	auli'lui	ego/eketa	ber'ba	txe'je
mi'me	to'txo'zu	eurak	le'la'eli	gu'kau	beste	txeia'che
nor'inor	ti'ti'hi	ura	ille'él	qui'quién	bat	zein'is
eni'mihi	tui'their	ari	lo'los	cui'cuyo	vobis	ze'zer
nos/noster	ode'zoin	ori	allelon	gure/ekeien	vos'vester	se/shi
nemo	deus'tis	urlia	alter	ekeinos	hic'hoc	sfeis'sfon
neure	tuyo'zure	euren	illius'leur	kori'que	vôtre	ése'éste
mengano	zutano	urlain	ulain	ako'cosa	fulano	si'sibi
nada	uts'todo	rien	alako'algo	quaedam	pan	sandia
aina	autos'tal	eren	alguien	aquel	bera/hera	zerbait

Ohar: euskerak, latinak, grekoak, ingelesak eta erromanikoek iturri beretik edaten

eta jakinduriak. Geure sukaldetik urten eta geure kultura hurbil-
len ditugun beste kultura zahar haiekin gonbaratzean ikusiko du-
gu, ea gure euskararen ereduak euren jainkoekin zerikusirik du-
ten, ea *nomen/numen* "izena/jainkoa" den, edo *iño/in*, *esan/izan*,
izan/izen hizkuneak hitz hutsak direnez gure asaben jakindurian.

Historigileek esandakoak maiz arkeologiak jaso idazki zaha-
rragoko edukinekin adosten dira, era berean gure etnografoek
aztertu gaiak euskararen hitzak egiztatu behar ditu, ohikunak eta
hitzak biak gorputz bat bera osatzen bai-dute errito beraren mui-
nean. Euskararen lekukotasun hurbilaz argitzen ez den hetno-
grafia lana material ona izan daiteke, baina formaren aldetik
harri moxor landugabea.

Bide batzuk urratu ditugu behenipehin eta lezioari hasiera
eman. Bide honeri jarraituz, aipaturiko Max Müller, erlijio gon-
baratuen azterleak aspaldi esana errepika genezake orain: "egu-
nero eta ezagunagoak egiten zaizkigu hizkuntzaren segetuak
eta ezbaigabe gramatikazko analisiak kimia analisiaren pareko
arrakasta izango du halakoren baten". (R.M^a AZKUE, *Dic.* XXVIII)

VII. EUSKARA IKERKETAN *ELEIKER IV***7. *ELEIKER-2004* urteko egitasmoak**

Berriz ere diru laguntza lortzekotan, aurreko urtean bezala, egitasmo berria aurkeztu nuan Bizkaiko Aldundegian. Oraingoan beste titulo bi nituen argitaratzeko, bata erderaz *1) Origen y desarrollo del lenguaje, según el vascuence* eta bestea euskaraz. *2) Zuzentza eta eskubideak euskararen oroitzan*. Aurrenekoa, euskaldunek ezeze, erdaldunek ere jakin beharreko gaitzat nindaukan, bada, erdal azterleen esanez, euskara ezezagun jatorriko hizkuntza da.

7.1. *Origen y desarrollo del lenguaje, según el vascuence*

a) *Helburua*: Euskara omen da hizkuntzetan jatorri ezezaguneko hizkuntza bakarra. Ez ete da oso bestelaz: euskarak ba duela bere jatorriaren berri eta gainerako hizkuntzak direla hizkuntza ama ezagutzen ez dutenak? Euskara, hizkuntza amak, bere erraietan umotuta dauka sorreraren berri eta horixe frogatzea dut helburu. Euskara barnetik ez ezagutzeak ekarri du hain kaltegarri izan zaigun erratua.

b) *Azterbidea*: Euskararen egituretan silaba edo kontsonante bakarreko hitzetara joaz, euretan aurkitzen dira arketipoengandiko lehen analogiak eta gainerako hitzen hasikinak. Handik hara doa hizkuntzaren hazkunde guztia, *Utu/doi*, adibidez. Euskara bera da azterbidea, berak duelako sorkuntzako eta hazkundeko itunbenaren berri. Hain egoki taxutu hizkuntzak bakarrik iraun zezaken ahozahoko hizkuntetan, oroibiderako beste laguntzarik gabe.

c) *Edukina*: I. *Hizkuntzaren jatorgunea*: monosilabismoa, sinboloak, jainkotiar sinboloak, giza sinboloak, arketipoak, kontsonanteen zeregina, bokalen laguntza, oihuskoak, lehen hizkuneak, *Anu/un* bezala, hitzen berdinketak, elkarren jarraian doazela, elkarkide eginik, hitzen berdinketa lokarriaz baliaturik, izadiko jakinduriatik gizarteko jakinduriara. Ondorena

II. *Hizkuntzaren lehen hazkundera*: mitoa, hizkuntza bera den mito bizia, jainkozko hitzen multsoketa, mendi santutegiak, izena eta espazioa eta aldi sakratuak, aditza eta espazioa eta an-

txinatea, hitzaren lehen gizakundea, *su+be>sube* adibidez, hitzaren bigarren gizakundea, *be+su>butzu* bezala, ahalduna, ezina eta ukapena den *Ka* arketipoa, menpetasun eta baimen seinua den *Ba* arketipoa, giza jakinduria. Ondorena.

III. *Hizkuntzaren bigarren hazkundea*: errittoa, *As* arketipoa eta hizkuntzaren hazkundea, *As*, santutasun sinboloa, errittoa eta aditzaren pertsonak, errittoa eta aditzaren aldiak, hizkera zauliaren seinuak: artizkiak, *An/Inu* arketipoaren aurrizki eta atzizkiak, *in-+autsi>inautzi* adibidez, *Utu* arketipoaren aurrizki eta atzizkiak, *at-+oratu>atoratu* adibidez, *Ra* arketipoaren aurrizki eta atzizkiak, *ar-+batu>arpatu* adibidez, *Ilu* arketipoaren aurrizkiak eta atzizkiak, *al-+egin<ahalegin*, adibidez eta berdin geroago giza arketipoekin ere: *Ka* arketipoaren aurrizki eta atzikiak, *ek-+ortzi>egortzi*, adibidez, *Ba* arketipoaren aurrizki eta atzizkiak, *be-+ezi>bezatu*, adibidez, *As* arketipoaren aurrizki eta atzizkiak, *ja-+urt>jaurti*, etab. Ondorena.

IV. *Hizkuntzaren hirugarren hazkundea*: Adizkeren aurrizkiak preposizioak dira eta hoiek ere euskaragan dute zorrera, ez gerkeran edo latinean, arketipoz arketipo azaltzen dira, lehenengo jainkozko arketipoak eta urren giza arketipoak, aditz zahar eta maiz monosilaboak indar bereziz bermatzen dituztela... Ondorena.

V. *Hizkuntzaren azken hazkundea*: aditzizenaren eta konjuntzioaren sintaxia, oihuzkoetatik gramatikazko esaldietara, esaldi menperatuak *An* arketipoan, esaldi menperatuak *Utu* arketipoan, esaldi menperatuak *Ra* arketipoan, esaldi menperatuak *Ilu* arketipoan, esaldi menperatuak *Ka* arketipoan, esaldi menperatuak *Ba* arketipoan, esaldi menperatuak *As* arketipoan. Ondorena.

VI. *Hizkuntzaren artezi berriak*: artizkien itzulketak eta hitz mailatuak, *An* arketipoko hitzuliketak, arketipoz arketipo aztartzen dira, tokizenetan hasi eta hitz arruntetara: *Anakabe/Cabanna*, *Inko/goien*, *murru/orma*, etab. Ondorena.

VII. *Analogien analogiak*: hizkuntzetatik esakuntetara doan bidea da lehen analogietatik, analogien analogiara: *Ilu/hil* edo *Iluno/ilun*, etab.; haiek lehen oharpeneko hizkuneak dira, baina *Iluna leza*, *abasteko ona*, nahiz *Ilargia ijitoen eguzkia* oharpen sakonagoz

sortu esakunak. Ondorenak, Monosilaboen Hiztegia.

Ondoren hoiek ematen ditut: Jakinduria zaharra jainzoko arketipoei lotua doa eta giza jakinduria giza arketipoei loturik dago. Harakoa izadiaren ardurak dauka eta bestea, aldiz, gizaki beraren zoriak. Exegetek egiten duten azterbide hau argi ikusten da euskara monosilabismotik aglutinatuzera aztertzen denean.

Euskarak izadiko sinboloak jarri zituan begien aurrean eta eurak izendatu sekulakoz hizkuntzaren eredu eta argibide xumetik handira, zuhaitza bezala, haz zedin errotik goi zabalera.

Euskarak, lehen Neolitosko sinbolo eta mitoen garaiko arketipoei jarraiki, ehuntzen du hitza eta hoiek ditu benetako gurasoak eta atzizkiak eta aurrizkiak benetako inudeak, heurak ematen baidote hitzari hazkundera eta osapena.

Gizakiak izadiaren edertasuna ohartuz eta ausnartuz sortu zuan haren eta bere mitozko azalpenaren hizkuntza ahozkatua eta beraz, mitoaztertzea zegokion bere jatorriaren ezagupideari.

7.2. Zuzentza eta eskubideak euskararen oroitzean

a) *Helburua*: Euskal gizarteko arau eta foruen historia berandu eta erderaz egin zan, nolabait euskara beraren magaletik urten zuelarik. Bai al dago euskararen, hiztegiaren aparte, historia horri sakonean eta kronologikoki jarrai diezaioken biderik? Jakinduriaren esakun eta hizkuntzan gordetzen den euskararen oroitza, ain zuzen, eta hareago, euskal egiturak eurak, arketipoen arketipo aztertutak. Hori dugu helburu, Zuzenbidean lege maisuek euskal geinuz jabe ahal daitezten.

b) *Azterbidea*: Aipatu euskara bidez aparte, gure araudi eta foruen gizarte kultura Neolitosko beste herrien urratzekin gonbaratzen dugu, haiekiko argi izpilatuz bakarrik azaldu bai-dezakegu gurea gizartearen sorrera eta azkundera.

c) *Edukinak*: I. *Euskararen hermenutika*: Hermes eta hizkuntza, jainko izenak eta hizkuntzaren arketipoak, kosmologia zaharra eta jainko arketipoak, kosmologia zaharra eta giza arketipoak.

II. *Jainko zuzentza eta jatorritasun legea*: jainkoen auzia

Sumerren, emakumea eta bizi eskubidea, Gilgamesen bizi-burruka, jainkoen auzia gizakiei egotzia, nekatuaren auzia bere Jainkoarekin, lan eskubidea, eskontza eskubidea, jainkoen auzia Egipton, Erra jainkoaren arrazioak, Erra eta Errensugearen arteko auzia, Maat eta Mariren aginduak, Horus eta Seth anaien arteko epaia, zuhaitza eskubideen sinbologia, jainko nausi eta jainko gizatuaren auzia Ugariten, euskaldunen jatortasuna. Ondorena.

III. Giza jokabidea herrien jakindurian: Sumerreko gizabide eskola, Sumerren edupeko *eduba* eta jakinduria, Egiptoko idazkolaria eta jakinduria, Ondorena.

IV. Giza zuzentzako legeak eta foruak: Sumer eta Akadeko lege-gileen aginpidea, zintzoei ta biurriek zegokien saria edo zigorra, Sumerreko Legeen edukina, errege-Legeen aurkako herri-erabakiak, auzilarien kexuak Egipton, norbere eskuz hartuneko "zuzentza", Ondorena

V. Hitzen analogiazko jakinduria: An analogia sorguaren magala, *Utu* analogia sorguaren soloa, *Erra* analogia sorguaren arloa, *Ilu* analogia sorguaren alorra, *Ka* analogia sorguaren kaizua, *Ba* analogiaren barrutia, *As* analogia sorguaren esparrua, Ondorena.

VI. Hizkunea eta hitzaren hermeneutika: An arketipoko hizkuneak, *Utu* arketipoko hizkuneak, *Erra* arketipoko hizkuneak, *Ilu* arketipoko hizkuneak, *Ka* arketipoko hizkuneak, *Ba* arketipoko hizkuneak, *As* arketipoko hizkuneak, Ondorena, Ondorenak.

Zera erakutsi nahi nuen, mitoazterketa eta euskal kultura beste herrietako kulturekin gonbaratuz, lorpen onak egin zintezkela.

7.3. Elkarteko egitasmoa eta Eleiker

Gure pasiotar Elkartek urteko egitasmoa egiteko, kide bakoitzari bere egitasmo berezia eskatu zion eta honako hau prestatu nuan:

1) *Eleiker* asmoa, euskara mitoazterturen bidez, euskararen sorrera eta hazkundera azaltzen dau hamalu-edo tituloren zabaleran. Titulo bakoitzaren neurria 160 horrialde ingurukoa da batz bestea eta gaiak Linguistikaz, Historiaz, Teologiaz eta gainerako giza zientziez euskaraz eta erderaz eginak dira, gaiak duen garrantziagatik.

Hamabigaren tituloa aurten (2004) kaleratuko da eta eurretan, bi izan ezik, besteak autorearen aurrezkiez eta Bizkaiko Foru Aldundiaren mozkinaz (%ko 20) ordainduak izan dira. Beste bietatik bat Ibaizabal argitaletxeak eta bestea Pasiotar Alkartek. (Tituloen zerrenda doa) Seigarren titulotik aurrerakoak internetean dagoz, paperetan 200 aleko direla bakoitza.

Eleiker eta apostoladutza: Mitoa dinonak gure asaben Jainko mundua eta erlijinoa dino, mitoaztertzea antzinako jainkoen nor-tasuna gure asaben jainkozaletasuna ezagutzea delako. Izadi jainko familia izan da giza ulerbideari sinboloak eta hizkuntzari arketipoak prestatu deutsezana. Izaki jainko egileen arketipoa gizaki beraren arketipoekin lotzen da hizkuntzaren azkundean, bide hau jarraitzen dauenak gizaki erlijiosoaren dinamikan sartzen da. Teologo eta sikologista batzuk gizaki barnean egozten den harreman hori gizakia aztertzeko aintzat hartzen dabe eta giza zientzia gehienek mitoaztertzen dauen metodoa. Hizkuntzalariei, ausaz, euskararen lekukotasuna falta izan yake edo jainko zaharrekin topo egiteko bildur izan dira, baina bidea egiten joango da.

Apostoladutza bidea: Sinistedunentzat bidea eginik dago, baina fedetik aldendu edo sinisbako direnentzat, euskarako egituretan azaltzen den asaben teologia jastatzea, bihotz gogorturen izotza urtutzea bezala da eta Jainkoa umetzaroko begiekin ikustea. Gero eta aurrerago doan euskara zaletasunak, bata besteagana daroake.

3) *Eleiker eta abade lana:* Jainkoekiko erlijioa herri mailan antolatzen ebenak abadeak ziran Mesopotamian eta Egipton, eurek antolatu bai-ebezen jainoekin otoiitzteko eta gai orotako lehen onomastikak. Exegetek egin-bidean abiatu eta euskara beraren hermeneutikaz, hau da, bere egiturek daukeen ulerbidez baliatzea izan da bidea. Hagatik liburu batzuetan tituloagino aipatzen da Jainkoa, hala *Jainkoa eta gizakia euskararen oroitza* eta *Antiguo Testamento del Vascuence*. Beste titulu batzuk, *Euskara mito bizia*, adibidez, estilo eta guzti dotrinako gai asko astintzen ditu edo *Euskal mito erritoak eta euskara* liburuak antxinako ospakizun diren Inote eta beste jaiei oraingo etnografo edo folkloristek daukeen baino eskolabide helduagoa emoten deutse, ospe handiko apaiz etnografoek edo herrian bildu epunte-

ez egina euskararen barne jakinduriaz osatzen bai-da.

4) *Euskara ohoratuz, Jainkoa ohoratzen*: Euskara ohoratuz berez giza sena ohoratzen da, izakia aintzan sortzeko gai izan delako, eta gizakiaren sena honetan da, gizakiak izadiko jainkoei egin deiaz eta haien izenekin lortu ebalu erritoari egokion aintzan sartzea. Beraz, hizkuntzak, euskarak batez ere, gizakiaren jainko sena agertzen dau bere egituretan eta euskal asaben jainko sena gaurko euskarazaleen jainko sena iratzartzea da, asaben jainko mitoak Espirituren gidaritzapean gero gerta beharrezkoen igarkizunak zirelako.

Euskara, Jainko goralpoena: Hizkuntza gizakiak egundo sortu dauen arterik bikainena da. Artegileek ona, egia eta ederra gorai-patzean, hein baten ona, egia eta ederra berez dena eta gizadian sortu dauen Jainkoa frogatzen dau eta horretan agertzen da arte lana. Hizkuntzak eta eurentan hizkuntza zaharrenetarikoa den euskarak ona, egia eta ederra aitortu eta jarraitu egiten dituela bere egituretan. Zeozergaitik esan eban Euskal Herriko lehen misiolari modernoak "Euskarak burua jasotzea nahi dau Jainkoak". Eta Kardaberaz, misiolaria ezeze, igarlea izan zan honetan".

Fraideen Elkarateak Eleiker lanerako baimena ezeze, hatarako lanabes egokiez ornidu nau.

7.4. *Internet Foro unetako lana*

Ahal bestean *Eleiker* asmoa iragarri eta aditzen emateko sartu nintzan Foruetan. Gaiez ugaria eta neure arazorako aparta aurkitu nuan *Celtiberia.net*. Neure helburua beheinena historiako ikastunei euskara den hermenautika aparta aditzen ematea. Bestalde galdeketa asko dago norbere abizenei buruz eta ehundazak erantzun emanak ditut dagoneko. Euskarazko halakorik balego edo sortuko balitz, gustora parte hartuko nuke.

"Euskera" ezizenez parte hartzen nuan eta, antza, norbaiti go-gaitgarri ez egin zitzaion "Euskara"k ematen zituan eritziak eta euskararen kontra inon diren irainak urtikatzen hasi zan. Hortik hemendik hartutako orriak eta orriak. Nik ahalik eta zehatzen erantzuten nion: "El vascuence no tiene tampoco la culpa de que no muera de una vez, como todo ser vivo singular. Como pertenece a

una comunidad de hablantes, vive y se desarrola por derecho propio, como algo vivo con discusión y sin ella. Tiene derecho a vivir en libertad, sin que ninguna fuerza externa le tape la boca y tiene derecho a un sitio de honor por decana y que no la silencien, como lo hacen los diccionarios etimológicos de reales erratas y menos de ser tergiversado por dómines interesados.”(Celtiberia.net)

Domine horrek iraintzeko domiña berezia zeukan. Euskaldun motxak Gortean ohi bezalako Aholku Handiaren eskubideak non-bait. Euskara helburuko une guztietan aurkituko dituzue. Foroaren kudeatzaileak ezin izan zuan arazoa onean konpondu eta Foruko ateak itxi egin zituan aldi baterako. “Euskera”ren errua izan eta zan, ala “Euskara”ren etsaiena? Oraindino euskaraganako aurreritzi eskaseko jarkera dagoela susmo dut eta Espainia mailan eta 2003 politika giroan estatuak aurreratu antieuskara morroien kontra erantzunak eman ere bai. Forunak bildurrez-edo ateak itxi behar izan zituan urte haretako Gabonaldian, 2004 auteskunde ostean barriro idekitzeko. Berriro atera deitu nuan, ea nere kontra ezer zuenetz. Garbi neunkala neure jarduera. Esker mila Silverio Cavia Foruko “Celtiberia.net-ko alma mater” jaunari, harakoan bere dirua eta ohorea ipini zituelako euskararen aldeko borrokan ere.

Niretzako arnasbidea da eta egunkari eta beste medioetan lortzen ez dudana abotza, euskararen abotza. Batek jakintsuen gorrieriaz aparte, medioen mututasunaren aurka ekin behar dio eta hona urtenbidea: Interneteko Foru uneak. Asmakizun paregabea. Bera izan ez balitz, pentsa nezaken nere *Eleiker* asmo guztiak ganbara zokoan edo euskararen gela ilunean gelditi zitezkeela, baina Internet horrek aparteko egoak ditu eta nahiz noiz kalera urteteko aukera ematen dizu. Uzkuertuen nagolarik ere, aurrera ekiteko gogoia ematen dit.

Bide beretik geroago *Blogari.net/Eleiker* kaleratzeko aukera izan dut eta hari ere auspoa eman nahirik nabil.

7.5. *Euskararen jatorriaren I biltzarra* (20.11.2005)

Arantzazun egin gendun topaketa. Patxi Alainak dei egin zidan eta dozena bat inguru autore elkar ezagutzeko aukera izan gendun, eurretan B. Kapanaga *Euskara, erro eta gara* (1978) idatzi

zuen eta geroago aipatuko dudan A. Arnaiz eta beste batzuk. Aurkeztu ezina izan zutenek, euren txostenak bidaldu zituzten. Kide hoiei buruz zerbait gehiago jakin nahi duenak Gogelera jotea baino ez dauka. Nik *Eleiker asmoa* handi handiki aurkeztu nien (ikus or 72-77) eta liburu batzuk erakusteko abagunea izan nuan.

Haraz gero, urtero biltzen gara *Euskara Jatorriaren* zaleak eta, nahiz eta ez ibili bide beretik elkar, baterantzako pausoak ematen ditugu. Idea hoberik duena aurkeztu dadila. Artean darabilgun gaia ez da errexeta eta hagatik medioak laban egiteko bildur dira, Unibertsidadeko maisuak bezala. Hori dela eta, ez dugu gauza handirik aurreratzen, baina luzaroan, euskaldungoa satanizatzea desager dadinean, "biltzar hoiek" bere arrakasta izango dute.

Hurrengo hiru eta lau urteetan Langraizen bildu ginanez, ezin ekidin Iruina Veleiako arazoa, hain zuzen ere, urte haietan gertatu bai-zan euskal ostraken kontrako eraso. Iada eraso aurretik izenez bermatzen genituenak, hurrengoan urtean Juan Martin Elexpuru eta Koenraad Van den Driessche maisuen azalpenaz geure fedean sendotuta urten gendun eta, haraz gero, Iruña Veleia euskararen aldeko arma bikaina gana zorrozten ari da.



LEKUAN LEKUAN MALOAK

Lekuan lekuan maloak

Bizkaiko Aldundiaren 1990 Eleberri Saria

Atsotitzaren forma osoa "Lekuan lekuan maloak, gurean handiagoa" da, "herri txikiak arazo handiak" adierazteko. Aurradan mozorroa egiteko era Behenafarrako antzezlariek Lohitzuneko Uda-Unibertsitatean erakutsi zigutenez. Mesfidantza handia somatu nuen Lohitzuneko kalean. Taberna baten sartu eta kuriositatez herriko euskaldungoaz galdera egin orduko, izpitzat ufaka hartu ninduten eta karnetaz gain bizkaitarraren euskaltasuna erakutsi behar izan nien, anaikidetasuna lortzeko. Kidetasun horren utza leportu nienean, hain zuzen, orduan amoreman zidaten. Muga beroa zan Lohitzune ordua haretan. Era berean arpegian mozorroa jartzeko ordua zan. Alderdi batak eta bestekoak mozorrotu egiten ziran, ez-ikusia egin edo norbere geriza itzuritearren. Hala ere, *Lekuan lekuan maloak* ez du poliziaka asmorik, nahiz eta gure bizitza osoa poliziaka eratara biziarazi gaituzten.

VIII. EUSKARA IKERKETAN *ELEIKER* V

2005 urteko egitasmoan hizkuntzaren parte den sikologia urratu nuan eta lan bi aurkeztu, bata euskaraz, bestea erderaz:

8.1. Euskara bere baitan (psikoaztertuz)

a) *Helburuaz*: Hizkuntza giza adua ala giza artea ote da? Edo eta gizakiak odolean edo burmuinean ote dakar hizkuntzaren soinua ala gizakiak izadian sentzuez jasotako harrigarrien irudikizuna eta berak ikasi eta eskolaz hartu artezia ote da? Orain hizkuntzari askok, *nativistak* adibidez, gizakia hizkuntzaren disketea soinean duela jaioten omen da eta psikolinguistikaz eta psikogramatikaz ari dira. Funtsean arazoa pentsamendua ala hizkuntza den lehenago da eta zehatzago esanda, gure aurretikoek *asmoz eta jakitez* burutu ote zuten euskara, ala halabeharrez onartu?

Euskarak ba al du *bere baitan* era batera edo bestera gertatua izan zelako aztarrenik? Bai, euskara sinboloetan oinarritzen da eta euskaldunak izadi-gizaditik hartuneko iruditeria du. Euskarak, beraz, baliabideotan sostengatzen delako seinalea dauka.

b) *Azterbideaz*: Psikologistek gizakiaren barrena aztertzeotan, ez diote iguinik egiten sinbolo eta mitoei, ez mitoaztertzeari, bai ostera, onuragarri ematen, euren arazoa behingoz gainditu ahal izateko. Azterketa honetan gure barne iruditeriaren harrobiak idoro dituzte eta nor bakoitza nola iristen den adinera, eta norbere eta Bestearen arketipo ereduaren arteko tirabiran, nor bakoitz izatera heltzen diren, unean uneko mintso-mito biziaren egiaztatzen dituztela aurrera pausoak. Euskararen barne irudieren harrobia izadiko lau elementuetan datza: “*uin, su, aire, loi*” eta euskaldunak ere handik jaso izan ditu bere nortasunaren osagarriak: “*kai, ba, as*”, ots, gaitasuna, barnea, eta arnasa, zazpi ots eta edukin izadian eta gizadian, zazpi kontsonante hizkuntzan.

Baliabideotan jakinduria eta eskola dago, beraz, eta hatarako gure asabek lau elementuok begiz joz, sentituz, aztatuz eta arnastuz izadia aztertu behar izan zuten eta euren burua ere nolabait haiekandiko nor oretua zela hauteman. Handik hara, musikan bezala, zazpi soinuak joz, zeru-lurren ulegarri zen hizkuntza sortu eta burutu ahal

izan zuten, gizakiak eguno sortu ahal izan duen arterik baikainena, Sapir autorearen gardiz. Izadiko eta norbere elementu diren sinbolo eta arketipootan onarritzen da gure azterbidea ere.

c) *Edukinaz*: I. GIZA IRUDITERIAREN ESPARRUA: Irudia eta irudimena, iruditeriaren soloa eta harrobia, sinboloak hitzaren ordeko eta otoitz leku, Jainko izenak sendian, arketipoak antxinako ereduak, norbere arketipoak, norbere arketipoen esparrua. Ondorena.

II. OROITZAREN ANTOLAPENA: Ospakizuna eta oroitzza, hitzen arteko loturak eta oroitzza, hizkuntz artezia eta oroitzza, hitz kidetuen egiturak eta oroitzza, hitz monosilaboen loturak eta oroitzza, Jainkozko hitz aglutinatuen loturak eta oroitzza, hitzaren lehen gizakundea eta oroitzza, hitzaren bigarren gizakundea eta oroitzza, hitzaren arteziak eta oroitzza, *Ka* ahal eta ahalke arketipoa, *Ba* apalگو eta baimen arketipoa, *As* askapen eta eskubide arketipoa. Ondorena

III. HITZAREN HAZKUNDEA ETA OROITZA: atzizki-aurrikiak eta hazkundeko gaiak, atzizki-aurrizkien jatorria arketipoz arketipo azterzen dira. Ondorena

IV. GRAMATIKA ETA HITZEN JOSKERA: Gramatika legeak eta “berezko gramatika”, izenen eta aditzen atzizki-aurrizkiak, Jainko arketipoaren mendea atzizki, giza arketipoak atzizki, hitz-aditzen aurrizkiak, Jainkozko arketipoak hitz-aditzen aurrizki, giza arketipoak hitz-aditzen aurrizki, NOR-NORI-ZER jokua aditzean, aldien jokua aditzean, gaitasun ahala eta beharra aditzean. Ondorena.

V. ADITZIZENDUEN JOSKERA: Hizkuntza ala pentsamendua den lehenengo, aditz izenduen joskera, ohiuzkoetatik “gramatikazko orazioetara”, aditzizenduen joskera An arketipoz, eta gainerako arketipoez banan banan. Ondorena.

Ondorenetan “*inor ez bai-da jaioten ikasirik*” esakuna neure egiten nuan eta zera ebasten: Euskal jakinduria antxinakoen kosmologia da monosilaboetako bere hizkune soiletan eta antropologia eta psikologia, bere konplexuko ordezkari diren arketipoen bidez jainkoekiko ezkontza egitean, oroitzapen eta bizi eskarmentu erritoetan eta teologia, bere nortasuneko arketipoen baloreak goi jakinduria mailara jasotzean.

Euskararen hermeneutika bere iruditeriaren oroitza ondo kordatuan datza, asabek halako asmoz egin bai-zuten, ondorengook halako jakitez akordatu ahal dezagun. *Innatismo* teoria, ots, hizkuntza gizakien berezko zerbait delakoa, bestalde, mito galduen errepikan lerratzen da, hizkuntza jainkoek asmatua izan bailitzan edo euskara Jainkoak gure lehen gurasoei Baradisuan erakutsia.

Euskara, beraz, ez da genetikaren ume, giza artearen ondorena baizik. Genetikak ehunetik 95-gino xomorroen lehengusu egiten gaitu eta euskarak, inolako morrontza barik, buruan “asmoz eta jakitez” landurik duen oroitzapena jarraitzen du, eta beraren magalean garatu den kultura baten ume egiten gaitu eta jatorrizko askatasuna amets eta helburu dutenen herkide.

Euskararen jarraipen hori ezinbestekoa da euskaldunen heziketarako eta euskararen jarraipenak euskara baitaraino ezagutzea eskatzen du, asaben hasierako asmoa ezagutu ahal izan eta “euskara asmatu zutelako, euskara lantzen asmatzen dugu” esakunera geure kulturaren jarraipena hitzetik ortzera egiztatu ahal izateko.

Hizkuntza modernoak, asaben asmoen ezjakinean, hortik hemetiko harri pilatuez bezala, jaso zuten euren hizkuntzen deskribapena eta gramatika eta hainbeste hotsetan sailkatu zuten. Euskara idatziak hizkuntza modernoek eskola jarraitu du bere hiztegia eta gramatika azaltzean, maiz eurekiko jarraipenagatik edo, aurrizkien kasoan, ustezko jarraibidea ihestearren, oztopoak izan ditugula.

(Jarraian doan MONOSILABOEN HIZTEGIA arketipoz arketipo antolatua da, hotsen soiltasunari baino, hareago hotsen sorguari jarraikiago).

8.2. Vascuence, inconsciente colectivo

a) *Helburuaz*: Hizkuntzalariek hizkuntzen “sustratoz” ari ohi dira, hizkuntza moderno baten egituran aurretiko hizkuntzen kutsua adierazteko. Psikologistek sakonago joz, “gizaki ohargabetuaz” ari dira, bakoitzak edo taldeak ohartu gabe zerbait barnean aztuta duen korapiloa akordatu eta gainditu ahal izateko. Euskara beste hizkuntzen “sustrato” objetiboa baino hareago, taldeak barne ilunpean duen arketipoa, ots, bere iruditeriako mamu ilun edo argitsua da. Askok maite dute ezagutu barik eta askotxok gorroto, ezagutu gabe.

Euskararen aurrean jarkera egokia hartu ahal izateko, arketipo mamu hori psikoanalisian bezala, korapiloa askatu eta azaldu beharra dago eta hori du asmo titulu honek.

b) *Azterbideaz*: Psikologoek "konplexua" deitzen diote norbait ohargabeturik duen barne atezuari eta "arketipoa" berriz, talde ohargabetua oratzen duenari. Hizkuntzak ere "arketipoa" deitzen die bere eredu zaharrei. Batean eta bestean "eredu zaharrok" kulturak gizaldietan giza gogoan egositako iruditeria eta norabidea dira, hizkuntzan objetiboki ematen dena eta psikologian, aldiz, subjektiboki eta bata bestearen azalgarri direla.

Herrien kulturak, hizkuntza bide, sortu ditu jainkozko arketipo "eredu zaharrok" eta mitologia eurretaz mintzo da, gizakiak irakinean dituen indar guztiak, goitarrak eta narrazak, jainkoei edo giza jainkotuei egozten dizkiela. Eredu zaharrok aztertzea hizkuntza bera azaltzea da eta hizkuntza azaltzea, berriz, herri kulturen arketipoak ezagutzea, gizakiagan objetiboa dena barneratu egiten delako eta barneratu duena hizkuntza egiturek objetibatzeke era dutelako.

c) *Edukinaz*: I. *Talde ohargabearen arketipoak*: ideen ordezkari diren sinboloak, mitoak, siniskizunen ipuinak, norbere arketipoak eta Bestearen arketipoak: An, amatar mantu anila, ama mendea; Utu, zorkatuaren sustatzaile eta juez zuzena, aita mendea; Ra, eroi arranpalo eta ar eraila; Ilu, halabeharraren legeko, Ka, eketa kolpatua, Ba, bale abala eta As, ats askea.

II. *Jatortasuna eta arketipoak*: Norbere abizenak eta jatorria, harmarrietako ametsak eta heraldisten irudimenak bezala, talde ohargabearen partekide. Arketipoz arketipo aztertzen dira.

III. *Herri jakinduria eta talde ohargabea*: Hizkuntetan hizkuntzaren estiloa dagoen bezala, erromantze-pean euskara dager. Zenbait hizkune aztertzen dira arketipoz arketipo.

IV. *Memoria u olvido del vascuence*: Euskara talde ohargabearen aurrean borroka galdutako Unamuno: Miguel Unamunoren arketipo ezkorrrak: oroitza eta oroiteza orekagabeko borrokan Unamunoren ni=eketa eta euskara aztua, Kain eta Abelen arteko

arketipoak, talde ohargabea ohartuaren aurka, herritasun arduratsua eta "estatu arrazoia", arketipo emea, baketsua eta arketipo arra, eraila, euskara maite kantuz edo sapuzkeriaz aipatua.

V. *Euskararen normalkuntza*: Euskal Gobernuren zeregina gizarteko erakundeen laguntzaz, Erdiguneko Gobernuaren arketipo ezkorren aurka. Ikastolen argibide apala, euskal gizartearen erantzuna, euskal kultura erakundeen aurkako jasarpena, *Egun-kariaren* aurkako erasoak, herri erantzuna. Ondorenak.

8.3. Antonio Arnaiz ikerkide

Neretzak garrantzitsua izan da Antonio Arnaiz ezagutu ahal izatea, bada, bide ezberdinetatik ibiliz, helburu beretsura joten gendun eta bere bidea besteontzat ezezaguna zan. Hiru ziren nere aipameneko bideak: a) euskarak ulertzen duen toponimia batetik, b) euskara eredu en mitoazterketa gonbaratua bestetik eta c) harrilobietako iragarkizunen irakurketa eta euskera bide ulertua.

Bide bakoitza burujabe da, bere baliabideak bai-ditu eta hiru bideok helburu berera jotzen dute: euskara, usko-mediterranean hizkuntzen artekoa dela, Sumerretik eta Guentxeraino edo Sortaldeko Iberiatik Sartaldeko Iberiaraino. Alor bateko baliabideak besterako erabilteak, deigun toponimiarenak harrilobiko iragarkiak azaltzeko, edo alderatziz, arriskutsua da, bada hitz bakoitzak bere saretik kanpo aldatu egiten du edukina. Semantika sare bakoitzak helburu ezberdina du eta toponimian, adibidez, tokiaren deskribapen fisikoa da, etab. eta hilerriko iragarkiena zenden asagako siniskera eta haiekiko erritoak azaltzea.

Antonio Arnaiz Madrileko Complutensean dotoratua da. "Linfocotos B-en lepra" tesia amaitu bezain laster, Londresera jo zuan. Han "Genética de poblaciones" gaian, hizkuntza ez berdinen arteko fonologia zela-ta, euskaraz arduratu zan, antxinako mediterranean eta Sortalde Hurbileko beste hizkuntzekin gonbaratzean. "Así que, con un método de fonología comparada y presumiendo una temática principal religioso funeraria y administrativa, a comparar el euskera, con muchos ejemplos de lenguas del Mediterraneo y de Oriente Medio".



Felix Zubiaga eta Antonio Arnaiz euskara mundua aztertzen. Bizitzako bideak edo euskaraganako zaletasunak adizkide bitxiak, eta ez arrisku gabekoak egiten ditu. Zuk, zeureen mesfidantzaz-edo, lagunak galtzen dituzu, baina, misiolari bateri bezala, berriak sortzen zaizkio Euskal Herritik ate. Eta ez ene kasuan bakarrik, gauza bera aditzen eman didate beste batzuk. Euskara al da errudun?

Harazgero hizkuntza familia honeri “usko-mediterranear” arikoa deitzen dio hizkuntzak eta ondo deritsot, genetika ere gure tesien alde bilakatzeari. Ez dira metodologia erratu edo zientziatik ate doazenak helbururako bidea urratzen dakitenak, bai ostera, igarobidean kate eginik, bidesaria eskatzen dutenak⁶.

⁶ Autore honek, J. Alonso García kidearekin batera, hiru mila hitz aztertuz, *Diccionario Iberico-Euskera Castellano* argitaratu du (2007) Euren da, besteak beste, *Egipcios, Bereberes, Guanches y Vascos* (2001) ikerketa liburua. Ez dira irudimena txakur argiz astintzeko liburuetarikoa, honek, folklore mailan, dirua egiteko izaten bai-dira gure artean eta azterlan sakonak, ostera, maiz “arerioak” sortzeko, Antoniok ere zihurtatzen didanez. Larria da, izan ere, taldea ohargabetik esnatze ordua. Yada folklore liburu lokarren argitalpenak amaitutzat emon ditzakegu, bada euskal jatorriari buruz zientziako lana egiten ari da. A. Arnaiz izan da neure lanean adore eman didan autore bakarra.

VIII. EUSKARA IKERKETAN *ELEIKER V* (2006)

ELEIKER ariketan maiz gai bat amaitu orduko, beste batera notak hartzen nituan, edo ezusteko tema berria sortu, sorrarazi Celtiberia.net Forum eztabaidetako ziriak egin zidaten bezala. Euren irainak akulagarri izan zitzaizkidan hurrengo titulu biak prestatzeko: bata mitoen neurrikoa, bestea giza barnea sakonean ezagutzekoa.

8.4. La antigua religión de los vascos

a) *Helburuaz*: Erdaldun askorentzat mitoa dena gaua da eta euskaldunen erlijioari buruz Aymerich Picaud eta halako testoen barregarriak aipatzen dituzte (neuri Celtiberia.net Forumean gertatua) gure asaben kultura itxurgatzeko. Euren argibiderako asmatu da batez ere, baina bai eta gure gazteen jakin mina atximurkatu eta euskararen zadorretatik jakin ditezkenak aztertzeraz bultzatzeko. Bestalde, gure etnografiatik dakiguna Neolitosko beste kultura zaharrekin gonbaratzea dagokigu, gure lehengusuen jainkoak bisitatu eta gureen jatorria eta etxea ezagutu.

b) *Azterbideaz*: Etnografiaz dakiguna euskararen argibideaz hazi eta osotu, euskara hizkuntza bera ere jainkoen ituez eta harei egindako otoiez abotz ulergarria izaten hasi bai-zan eta holako azterbidetan batak bestea eskatzen du. Exegetek ere, Bibliako arazoa ulertu ahal izateko, alboko kultura zaharragoetan aurkitu zituzten iturburuak eta orduan erabagi: "halako hau Sumerreko edo Egiptoko mitoetan edo kultura haietako jakindurietan idatzita dago". Euskara den ahoz-ahozko mintso eta jakinduria ere idazten lehen kulturatu ziren herri haietan ditu lehengusuak. Gure asaben jatorria argitzeko haiekin zubia egitea dagokigu.

c) *Edukinaz*: I. *Hasimiasiak*: Neolitosko gizakiaren pentsamoldea ezagutu, kultura uneak jarraitu, exegeten arabera: izadiko jakinduria, gizarteko jakinduria eta Jainkoarekiko jakinduria.

II. *Kosmoaren jakinduria*: *Inu/An* eta izadiaren sorrera, *Inu/An* gizakiaren sorrera, *Inu/An*, *ama* arketipoa eta bere *aiene* ohikunak; *Utu*, *Utu/aita* arketipoa eta izakiaren sorrera, *Utu/otoi* eta sutegiko txera, *Iduzki* saildua eta sorospen erritua; *Ra*, *eroi* arketipoa, haren *ira* eta *errukia*, haren *harrien* arrandia (megalitis-

8^o laburgoa: MATTE IZENDEGIA ARKETIPOEN ARABERA

AN	UTU	ERRA	ILU	KA	BA	AS
ama	aita	arriba	alaba	kutun	aba, biloi	seme
nahi	autu	eroo ⁽⁹⁾	love ⁽⁹⁾	gura	bil	estimatu
maite	tatan	irrikatu	laztan	querido	feel ⁽⁹⁾	espe
amatu	totil/dod ^(h)	oratu	lera	cupio ⁽⁹⁾	fileo ⁽⁹⁾	zaletu
nahitu	tulikatu	arrobatu	liluratu	agapao ⁽⁹⁾	vollo ⁽⁹⁾	

Ohar: zuriunean doaz etxean maite direnak, familia bai-da maite eskola behinena

moa), *harrigizona*, eta hari egin *orhoak*, *Ilu* jainko leinuaren *laia*, uleiaren *aldia eta* gramatikazko legeak. Ondorena.

III. *Giza jakinduria*: *Inu+Ka>Inko* dator lehen gizakundez, *Ka+-Inu>Ekain* dator bigarren gizakundez; *Utu+Ka>Utuku>Iduzki* dator lehen gizakundez, *Ka+Utu>Katu/Kutu>kutsu* dator bigarren gizakundez; *Ra+Ka>Arkhe⁽⁹⁾/Iruzki* dator lehen gizakundez, *Ka+Ra>Akar/Gar* dator bigarren gizakundez; *Ilu+Ka>Luki/-Logou⁽⁹⁾* dator lehen gizakundez, *Ka+Ilu>Okelu* dator bigarren gizakundez. *Inu+Ba>Neba/Nabi^(a)* dator lehen gizakundez, *Ba+Inu>Bena* dator bigarren gizakundez; *Utu+Ba>Sube* dator lehen gizakundez, *Ba+Utu>Butzu* dator bigarren gizakundez; *Ra+ba>Araba* dator lehen gizakundez; *Ba+Ra>Bera* dator bigarren gizakundez; *Ilu+Ba>Alaba* dator lehen gizakundez eta *Ba+Ilu>Balio* dator bigarren gizakundez. Ondorena.

IV. *Jainkoarekiko jakinduria*: Jainkoari santu izatea dagokio eta santutasun zehatz seinalea As arketipoa dager hizkuntzan, *etxe* erakundeak ere hala beretzat jaraunsia. Beraz, *As+Ino>Sino* dator eta *As+Inko>Xainko* osatzen da, *As+Anu>Jaun* eta *As+An>San* bezala, *San+Utu>Santio/Santu/Santxo* eta *xanso/janso* dator, *As+Ra>Zahar/Esharra^(bab)* dator eta orobat *As+Ilu>sel/txal*. *As+Ka* jainkozko beste arketipoekin lotzean *eskanu/eskain*, *esku-tu/eskatu*, *eskar/eskera*, *sagara*, *eskala*, *eskila*, *eskola* hitz eta egi-turak sortzen ditu *etxe* labelaren inguru eta *As+Ba* baitan *espen*, *zapatu*, *zabar*, *jabal*, etab. Ondorena.

V. *Eraskina*: Egura, mitoaren tokia, ots, jainko basatien gunea, mitoaren pertsonaiak eta Sumer eta Egiptoko kulturen mitogra-

mak, tokia ikuskatu eta geure etnografia beste erkideen kulturekin gonbaratuz hobeto ulertzen bai-dira gure asaben erritoak. Ondorenak. Teologia Hiztegia.

Ondore hauek baitipat atera nituan: Euskarak berak azaltzen digu ondoen "euskaldunen antxinako erlijioa" zertan zen, hizkuntza delako sinisgarritasun gehein duen froga, erlijio gonbaratuko maisuen gardiz. Halako siniskerak halako hizkuntza sortzen bai-du.

Gure kultura Antxinako Sortalde Hurbileko kulturekin gonbaratzean, euskararen ereduak agertzen dira, haiekiko sendia egiten bai-du. Harrigarria ere bada, euskarak bazter haiekin batera arketipo monosilaboen oroitzatza zaintzea eta giza arketipoekiko gizakundez eta haiekiko aglutinazioz hiztegia zabaldu eta erritozko santutasun seinuaz osatzea.

Gure asabek apurka duindu zuten Jainko irudia, hasi sinbolo materialetatik, aberetasunetik (*Luki* izatetik *Leku/Logou*, lekuko jainko izatera, adibidez) gizatasunean heltzeraino, ekurako santutegitik, giza eskuz landu tenploraino. Une honetan gizakien egoitz den *etxe* egiturak ere, suaren erritoz, jainkoen bisita izan zuan, etxeko andrea haren santutasun santera bihurtzen zela.

Asaben erlijioa ez dago kristau erlijioaren aurka asmatua, edo alderantziz, haiek mitoz ulertzen zutena kristatasunak eginiko iragarkizunak bat datoz, Lege Zaharra, Lege berriaren aurrean beazala, euskaldunak euren mitoetan dutela "Lege Zahar" ordezkioa.

Teologiazko aburua guztiak: jainkotiar uneko sorkuntza orokorra, Jainkoarekiko elkargoa eta gizakiak haren aginduetatik jaregin nahia, ordezkio zigorra eta damua, Jainkoa beraren bitartekotasuna, errukia, barkamena, grazia eta salba itzaropena, antxinako mitoetan emanak dagoz eta hitzez hitz adieraziak. Asaben iragar-kizunak aurretiaz, Jainko gizatua gizartean agertu zenerako, historikoki emanak zeuden, Espirituaren gidaritzapean.

8.7. Gizakia, Hirutasun irudia

a) *Helburuaz*: Sorkuntza, antze lana, Jainkoaren giza sorkuntza, "bere irudira sortu zuan", amatar eredu: ama mendea, aitatiar eredu: aita mendea, espiritu eredu: herri mendea. Ondorena.

4° laburgoa: IZENORDE ETA ERAKUSLEAK ARKETIPOEN ARABERA						
AN	UTU	ERA	ILU	KA	BA	AS
ni/nik	tu/tuus	era/harek	illu/illa ⁰	ego ⁰	bera	txe
ene/neuk	to/tto/txo	hura	aulli	gu/geu	bere	txeia
nire	thou (yu)	eure	el/ella	gure/guri	vou/vos	je ⁰
mi, mio	ti>yi>hi	eurak	lo/ello	eketa	potxua	txek
me/meu ⁰	zu/zure		la/le		vobis	se/si
moi ⁰ /nos	suyo/soi		loi/lui ⁰		vuestro	
<i>huna/uno</i>	<i>deus</i>	<i>hori/urli</i>	<i>ulain</i>	<i>kau/kori</i>	<i>batek</i>	<i>zer/zein</i>
<i>nor/inor</i>	<i>zoin</i>	<i>ara</i>	<i>alguien</i>	<i>haek/hoc</i>	<i>bera</i>	<i>ese/esa</i>
<i>nada</i>		<i>rien⁰</i>	<i>alako</i>	<i>que/quién</i>	<i>ipse⁰</i>	<i>sandia</i>

Ohar: Hirugarren pertsona *eRa* eta *iLu* arketipoen artean banatzen da, erro-manikoek, oroar, nabarmen *iLu* aldeko direla. Erakusleak beheko zerrendan.

b) *Azterbideaz*: Gizakia, nortasun idekia, nor naiz ni, nitasunean? Nor gara gu gutarkerian? Nor da bera edo lekukoa? *Etxe/je* subjektaren sorrera, Gramatikazko egitura hirukoitza. Bestalde, izadiko lau elementuak, gizakiaren hiru arketipoak, gnostikoen ezbaiek eta dualisten ametzak, kristau gnostikoen fedea, zazpi osotasunaren zenbakia, zazpi sakramentuak: Jainko bakar eta Hirukoitz.

c) *Edukinaz*: I. Maitasun hirukoitz, maitasunaren onomastika, giza familia hirukoitza, Jesusen familia hirukoitza, Aba, Jesusen baitako Aita, Jesusek baitan ezagutzen du bere Aita. Maite agindua. Elkarrizketa ere hirukoitza da, *No* ta *To* pertsonen arteko elkarrizketaren, *Era*>*Bera* dela Arartekoa. Hirutasuna eta elkarrizketa, Hirutasuna eta erlijioen arteko elkarrizketa, elkarrizketa, gizabidea, elkarrizketa batasun misterioa, otoitza elkarrizketaren hazimazia.

Hirutasunaren aldiak: Ama/Aita: Izadiko Jainkoa, Amaren etxea edo ekologia. Jesukristo, Jainko Berba. Jesukristo, Giza Seme, Jesus nazaretarra, Jesukristo, Salbamen teologia. Espiritua: Biziazen Jainkoa, Espiritua, santutasun zehatz, Espiritua, etxelagun atsegin, Espiritua, askatasun osoa. Ondorenak eta Teologia hiztegia.

Ondorenetan: Jainkoa ahal bestean ezagutzeko, norbere burua ezagu behar, "ezagutuko banintz, banenzagu" harakoan bezala. Izan ere, Jainkoak sorkuntzaren buruan gizakiongan ezarri zuan bere xeguna "egin dezagun gizakia geure antz eta irudira" esan

eta egitean. Ohargabe bizitzeak eragozten digu zertan den asma-tzea eta halatan *norbere barrena ezagutzen gaitzena* aitortzen dugu, herri jakinduriaz.

Nortzu ziran, beraz, gu euren irudira egin ginduzten nortasunak edo horren soila ote da gudan utzi zuten lorratza? Gizakiak bere buruaz jabetu eta bere egilea ezagutu ahal izateko, goi-beheak aztertuz, hizkuntza asmatu zuan. Hizkuntza baitaratu horrek ohargabe egotetik atera gindezke, agian, ohargabetik. Beraz, Jainkoari ots egiteko euskarak dituen ohiuzkoak aztertu, norbere buruari eta lagunurkoari deitzeko dituen izenordeak zenbatu, gramatikako egitura hirukoitza ikusi eta kosmologia eta antropologia mitologiak argitzeak berea lagun diezaikigu.

Jainko Hirukoitza *Ni, Zu, eRa* pertsonen arteko harremon edo armonian dagerke, horrela sortzen baida gizarteak bizigarri dugun maitasuna eta ulermenerako bilatzen dugun elkarrizketa eta hiruzkina. Maitasuna eta elkarrizketak adierazten digute geu garen eta bilatzen dugun egiaren berri, eta Jainkoak bere antz eta irudira egin gintuenez gero, geuk ere geure irudira antzematen dugu Jainko nortasun izkutua.

Euskarak hiru izenez ezagutzen du Jainkoa eta izenok hizkuntzaren aldiak dira eta erabak giza jakinduriaren hiru garaiak, alegia: Izadikoa, Gizadikoa eta Jainkozkoa: Jainko bera irukoitz eta bakar aitortzen dute, *Inu* dela izadiarekiko harrimenean, *Inko* deitzen dela gizarteko gonbitean eta *Xainko*, berriz, *As* santutasuneko arnasa ufadan: hiru izen eta Jainko bera. Izenak ez dira elkarren aurkakoak, elkarkide baino. *Inu/Inko*, izadia eta gizadia, *Ama/Aita* eta *Semea* antzo dira eta *Xainko* osatzeak, bizilagun atsegin den Espirituak, etxe-berean elkartzten ditu: Jainkoak giza mugak hartzen ditu beregan eta gizakiak, ordez, Jainko duintasuna eskuratzen.



Mapa honek ez du ofizialtsun baiezpunik, baina Theo Vennemann beste adizkideari opa izan nion ongiatorria da, aurreko toponimoen laburgoa bezala (81 or.) Nire medioekin mapak egitea zaila da: izenen soinu moldatuaz landa, artezia behar duzu alde batetik eta ausardia bestetik. Agertzen diren izenak adore abisariak dira, bada otzara beteko emaitzak dira benetako arrautzak.

IX. EUSKARA IKERKETAN ELEIKER VI (2006)

Urte bakoitzari bere ahalegina zor zaio eta begitan hartuta neunkan *indoeuropeismoari* emon nion txanda. Toponimian egin lanak eta Giovanni Semerano hizkuntzalariaren salapenak eman zidaten hatarako adorea.

9.1. Vascoeuropeísmo versus Indoeuropeísmo

a) *Helburua*: Indoeuropeismoa, oinarri bako hipotesia: Mitoa eta asaben deia. Europa: lurdia eta gizakiaren sorrera, Europa mitoz arrapatua, leinuen arbola eta jainkoen inda, ots, “bide goitarra”. Neolitosko gizakien morala eta guda gizonak. Arketipoak eta nortasun izenordeak gramatikan, izadiaren gizakundea eta gizakien santutzea, estrukturalismoa eta Jainko ukapena.

b) *Azterbideaz*: Tokizenak, aurre-historian entzuneko bozak. Tokizenak eta komunikabideak. An arketipoko bozak, *Utu* arketipoko bozak, *Ra* arketipoko bozak, *Ilu* arketipoko bozak, *Ka* arketipoo bozak, *Ba* arketipoko bozak eta *As* arketipoko bozak.

c) *Edukinaz*: I. Izendegia eta giza jakinduriaren oroitzak: *An* arketipo jakinduria izenak, *Utu* arketipoko jakinduria izenak, *Ra* arketipoko jakinduria izenak, *Ilu* arketipoko jakinduria izenak, *Ka* arketipoko jakinduria izenak, *Ba* arketipoko jakinduria izenak, *As* arketipoko jakinduria izenak.

II. *Artizkiak eta hitzaren antolaketa*: *An* arketipoko atzizki aurrizkiak, *Utu* arketipoko atzizki aurrizkaik, *Ra* arketipoko atzizki aurrizkiak, *Ilu* arketipoko atzizki aurrizkiak, *Ka* arketipoko atzizki-aurrizkiak, *Ba* arketipoko atzizki-aurrizkiak, *As* arketipoko atzizki-aurrizkiak.


III. *Gramatikazko esaldiak*: Lokarri soileko esaldiak, oihuzkoetatik esaldi josira. Izen-izenduen joskera eta josleak: *An* arketipoko josleak, *Utu* arketipoko josleak, *Ra* arketipoko josleak, *Ilu* arketipoko josleak, *Ka* arketipoko josleak, *Ba* arketipoko josleak *As* arketipoko josleak.

IV. *Maisuen eztabaidak*: Lisguistikatik kanpoko arrazoiak, Zientzia aurkako arrazoiak. Aurkalari bi: G. Dumèzil eta G. Semerano, mitokondrioaren lekukotza, Euskara beste roseta harria.

V. *Isilpekoen aurkikuntza historian*: sumeriar zibilizazioa: ikastolako *edupe-tik eduba*^(s) eredura. Sumeriar hizkuntzaren eta euskararen iraupena. Lehen kosmologia edo izadi jakintza.

Ondore hoietara iristen nintzan: Zazpi arketipoen jarraipenean burutu ziran euskara eta sumerera mediterranean inguruko beste hizkuntzak bezala, hizkuntzen familia bat osatzen zuten.

Euskoenpeismoak euskararen ahotsa dakus Europaren sorreran ezeze, beste hizkuntza askoren hasieran. Monosilabismoa bera eta hitzak monosilaboraino aztertzeke ahalmena duen hizkuntzak, jatorrizko hizkuntzaren seinuak ditu. Hitz monosilaboak berez beste monosilaboekin elkartzeke jokera du, batek bere kidearekiko hizketan ituna osatzeko duen bezala. Arketipo bata ez da desgertzen bestearekin elkartzean, dela jainkoso edo kidekoa, ituna egitean, ondarea osatzen baino. Hizketa uharia burutzeko aurrizkiak eta atzizkiak behar izan zituan, eta eurari esker, hizkera bizi eta zaulia lortuko ahal izan zuan.



Gizakiak zeru-lurren ikuski-zuna barneratu egiten du eta bere irudiko hautematen du burua: goian *iNu/uin* “zeru/ur”, *uTu/su* “iduzki”, *Ra/aire*, *iLu/loi* “lur”; behean, gizakia bera *no/to* bikotea “emakume/gizon”, *iNu/uTu*, izenez analogizatuak eta haien irudira edurtzan antze-tuak. *Ka* “materia” eta *Ba* “baita” eta *aS* “arnase” gizaki beraren arketipoak dira: goi eta beheko nortasunen arteko el-karrizketa antolatzeko sinboloak eta hotzak gertu dagoz, jainkozko eta giza arketipoak, alegia. Goi-behen arteko atesuak sortzen du hitza eta hizkuntza

Euskoeuropeismoak hipotesi utzaltzat jotzen du indoeuropeismoak eta etimologia erratuak hanarteko Hiztegietaoak, euskara hizkuntza ezezagunen gela ilunera egotzi zutenak bezala. Hori dela-ta, Unibertzidadetako katedra lagatera edo 180° graduko bira egitera behartzen ditu haien jarraileak, ez bai-da silegi lehentasuna sorzaion Europako hizkuntza zaharrenari mahai ingurua ukatzea.

Inperioaren batasuna hizkuntza lokarriaz ziurtatzeko apropoz eraturia izan zan latina. Ofizialidadeak idatziz erabiltzen zuan, herriak, ostera, artekeria gabeko hizkera arrunta erabiltzen zuan. Latinak izena deklinabide eskergaz pustutzen du, hiru sezu motako kontzertura behartzen duelarik eta bizi biologikorik ez duten gauzek ere halako dantzaz astintzen dituela. Izenari arpegi asko eta erro bat baino gehiagoz konpondutako aditza darabil, forma ekina, jasana eta nastua bereizten dituela eta letretan saiatuak soilik uler

zezaketena. Hala ere, latinari eta grekoari *hizkuntza klasikoa* deritzaie. Grekoak apalki aitortzen du hizkuntza barbaroekin zuen senidetasuna, latinak horixe ere ez. Aldiz Neolitosko hizkuntzek, euskara eta susmerera lekuko, jainkoen eta gizakien arduraz asmatutakoak izan ziran, ots, gizakiek jainkoekin eta elkarren artean ulerbide argia izan zezaten, baina Erromak, bere buruaz jainko eginik, enperioaren batasuna egiztatzeko volapüt halako nastea asmatu zuan.

Mitoak arketipoen sinbolo eta nortasunean oinarritzen dira, antxinako kosmologiaren arabera eta euren gainean eraikitzen da gizadiaren historia, hau da, gizakien kontzientzian ezezik, bai eta ere bere ohargabe orokorra oratzen dutela; gerkera eta latinezko literaturak, mitoak gogara ipuindu edo konponduz, agintea eta amets pustagarriak ditu helburu. Ez dute jarraitzen asaben errito zehatza eta itxurakerian dute funtsa, lilura eta iruzurra dutela asmo. Asabek euren jainkoak ohoratzen zituzten eta haien betiko bizia zuten egarri, beste hoiek, ordea, azaleko dizdira igarokorraz gozatzen ziran, eta oinarritzat zuten abea bezala erortzen.

Hizkuntzaren arketipoen mitoanalisiari zientzia maila ukatzea eta maisuak eskolan hipotesi bidez aipatuak zientifikotzak hartzea erratua da erratuaren gainean, Etimologiazko Hiztegi erromanikoak euren gertuko euskarari dioten erdeinua eta ardurarik eza euren politika maltzurtean dute azalpen nahikoa. Filologia barnean gutxi ardura hitzen etimologia zehatza, buru altxatu ziren erresumen aintzaren ondoan. Akademien eta herrigintzako jokerak batasun eta "arrazoizko" politika bera jarraitzen du, guda gizonen "eutsi eta ez emenda" lematzat harturik eta ler daitezela txikien salapen mingulinarriak arrano orokorraren arazoien aurrean.

9.2. Euskara, hermeneutika

I. *Hermeneutika lana*: Jatorrizko hitzaren bila, hermeneutek egiaren ikerle, hitzak sortzeko gizakiak egin zuen ariketa, hermetismoa eta hizkuntzaren magia, *eskera/euskera*, *iskiriatu/segeretu*, hitza erritoaren ararteko, hermeneutika, teknika eta hizkuntza, mitoa ta mintzoa: hasera eta azaga. Ondorena.

Esquema 6 ^o : AURRIZKIEN ANALOGIA ARKETIPOZ ARKETIPO						
AN	UTU	RA	ILU	KA	BA	AS
ana-/ama-	ato-/to-/da-	arra-/ra-	lo-/lu-	ak-/ik-	aba-/afa-	etxa-
ain-/am-	at-/atx-/ad-	erre-/re-	li-/lli-	oko-/co-	be-/efe-/epi-	se-/ze-
on-/un-	otia-/oit-/oiz-	era-/ere-	ale-/ela-	com-	ob-/upo-	ja-/jau-
in-/im-	txu-/xu-/su-	ar-/er-	el-/al-	oki-/ki-	para-	ez-
en-/em-	so-/oz-/uz-	ira-	ela-	oc-/ek-	buru-/pro-	as-
ante-	sub-/sup-	oro-	la-	kata-	ber-/per-	eis-
andi-	di-/dis-	uru-/ur-	al-	gana-/gain-	pre-	ex-/e

Aurrizkiak aditzean eta izenetan izan duen garrantzia ez da nabaritu izan euskarán, *preposizio* hori erderatiko-edo eman izan da. Nork nori kopiatua, gero?

II. *Izadiko elementuak eta gizakia*: Lehen kosmologia eta teologia, errittoa edo aldizko ospakizuna, Jainko izenak hitzaren arketipo, giza konplexua hitzaren arketipo, *aS* giza konplexuren osapiderako arketipoa. Ondorena.

III. *Onomastikaren sorgua*: hiztegi sareen emendioa, arketipoen kategoria, analogiaren gida, aditzaren erroak eta adarrak, sinonimien ugaria, hitzaren gizakundea, hitzaren garapena. Ondorena.

IV. *Tokizenak historiaren berri*: lurraren norabideak, arketipoen dantza izendegian, arketipoen igadura izendegian, Gory Ahagaretik Karakorun-era, gizenik gabeko indoeuropeismoa. Ondorea.

V. *Tokizenen egitura eta biztanleak*: *Inu/An* uneak eta endak, *Utu* tokiak eta etorkiak, *Erra* areak eta ariak, *Ilu* lekuak eta leinuak. *Ka* egoitzak eta kastak, *Ba* baitako biztanleak, *As* etxeo jendeak. Ondorena.

VI. *Hitzen osagarri atzizkiak*: *An* arketipoaren atzizki-aurrizkiak, *Utu* arketipoaren atzizki-aurrizkiak, *Erra* arketipoaren atzizki-aurrizkiak, *Ilu* arketipoaren atzizki-aurrizkiak, *Ka* arketipoaren atzizki-aurrizkiak, *Ba* arketipoaren atzizki-aurrizkiak, *As* arketipoaren atzizki-aurrizkiak. Ondorena.

VII. *Joskeraren lekukotasuna gramatikan*: Oihuzko esamoldeak, lokarri bako esamoldeak, lokarri soileko esakunak, aditzizenen lokarriak, ohiuzkotik gramatikazko esakunera, *An* aditzizen-

duen joskeran, *Utu* aditzizenduen joskeran, *Erra* aditzizenduen joskeran, *Ilu* aditzizenduen joskeran, *Ka* aditzizenduen joskeran, *Ba* aditzizenduen joskeran, *As* aditzizenduen joskeran. Ondorenak.

Ondoren hauetara heldu nintzan: Izadia edo unibertsoa ulertzeko modu berezitik sortu zan hizkuntza. Historiari begiratuez gero, asabek jainko sortzaileen arpegia ikusten zuten kosmologia zaharreko *uin*, *su*, *aire*, *loi* elementuetan, nor bizigarri zirela konturatu ziran eta haiei izenak ezartean, hizkuntzaren arketipo gidak hautatu zituzten eurengan. Izan ere, jainko sortzaileen izenak bakarrik ziran gizakien hitzari halako majia erantzi ziezaiketenenak, izadiaren ugazaba-jainkoek *ino/in* halako ahoz emaniko aginduaz sortu ahal izan bai-zuten *uina*, *sua*, *airea* eta *loia*.

Hitz bakan eta totelak izan ziran, aurrek lehen hitzak ahozkatzean izan ohi dituzten totelduraz, baina haietxek gertatu ziran hiztegiko beste hitz guztien erro eta lehen arketipoak. Euskarak eredu monosilabo hoietan aurkitzen du bere jatorriaren sorgua eta, hariak ehuna egiteko bezala, hazkunderako, behar duen eskoldea. Hizkuntza zaharretan, euskara-ama nortasun bedegarreko denez, berea eta beste hizkuntzen jatorria bilatzeko ezezen, idazki zaharretako hitzen balioak sakonki aztertzeke hermeneutika berezia du bere egituretan.

Grekar jakintsuek argi aitortzen zuten "barbaroengandik" jaso zutela hitza, baina latinak eta erromantzeak haien enperio garai-lea baino ez dute gogoratzen. "Barbaroen" mito zaharrak aintzat hartu eta handik aurrera ekin beharrean, gaurko linguistek Kratioren pareko berbaroan gelditu ziran, ez aurrera eta ez atzera. Behin hitzaren sorrera giza jakintzari barik, apetari emanez gero, haren edukina nondik analogizatu ezean gelditzen dira. Halako ezinaz, Analogia itzuritean, Linguistikak porrot egin zuan.

Latina ere hagatik da arima bako hizkuntza eta sustarrik bako pigtzin asmakeria gertatu zan eta sortu zuen enperioarekin, pot egin zuan Europan, enperioaren erakundea itzali eta herriek askatasuna lortu zutenean. Ezein herrik ez zuan berekotu, ez berekotzat landu eta, desagertzean, inork ez zuan dolutu.

3º laburgoa: HITZAREN GIZAKUNDEA ARKETIPOZ ARKETIPO

AN	UTU	RA	ILU	KA	BA	AS
ume		<i>haur</i>		kume	<i>bar^(h)</i>	seme
<i>ená</i>	ota			kota	<i>bena</i>	<i>espen</i>
üain	izi		leaena ^(l)	cane ^(l)	<i>bizi</i>	chien ^(l)
		<i>ar</i>		<i>akar</i>	<i>abere</i>	<i>chevre^(l)</i>
			<i>ele</i>	<i>kabale</i>	<i>abele</i>	<i>cheval^(l)</i>
<i>anate</i>	<i>ate</i>		oilo	gallo	<i>paita</i>	<i>txita</i>
	<i>utz</i>	<i>urruxa</i>	<i>ilotz</i>	<i>kaos</i>	<i>butzu</i>	<i>saputz</i>

Hitzaren gizakundea jarraitzeko berezi tipo makurrekoak besteengandik espazioa ustiatzearren, zerrenda bakoitzean izen bikoitzak jarri bai-ditugu.

Lurpean bilatu diren aztarrenekin eta giza kromosomen lekukotasunakin herrien historia berririo idazten hasi beharra dagoelako ahotzak entzuten hasiak gara dagoneko. Hareago esan genezake Linguistikaz: Itxumustuan eratutako Linguistikaren erratuak zuzendu beharra dago eta euskararen hermeneutikak bakarrik zuzen dezake Linguistikaren atzerapena eta bere helburu beheine-netariko den hizkuntzaren jatorria bilatzeko gai egin.

9.3. Origen del vascuence

Titulu hau aurkeztean, ikerkuntzen helburua jotzen nuela esan zezaken, bada ez dute izan beste asmorik aurretik joan diren beste ariketa guztiak. Atarira ezpada atalera behenipehin heldu gara eta titulu hau beharrezkoa da, euskararen jatorria bilatzeko bide bat baino gehiago agertzen direnez gero. Beste ikerketan aipatu gaiak errepikagarriak dira berez, baina bereziki *hitzaren gizakundeari* eman diogu gara. Ikerketa asmoak banaketa hau dauka:

I. *Hizkuntzaren oroitzapena*: Hizkuntzaren sinboloak, hizkuntzaren arketipoak, kontsonanteen edukina, hizkuntzaren analogia, mitoazterketa hizkuntzan, erritua hizkuntzan, monosilabismoa, sinonimiak eta semantika sareak, hitzaren gizakundea. Ondorena.

II. *Sorkuntzako mitoen oroitzapena*: *aNu/iNu* arketipoaren kosmogonia, *aNu/iNu* santutegiak, *aNu/iNu* erritoen ospakizuna, *uTu* arketipoaren kosmogonia, *uTu* santutegiak, *uTu* erritoan

ospakizuna, *erRa* arketipoaren kosmogonia, *erRa* arketipoaren santutegiak, *erRa* erritoaren ospakizuna, *iLu* arketipoaren kosmogonia, *iLu* santutegiak, *iLu* erritoaren ospakizuna. Ondorena.

III. *Hizkuntzaren gizakundea*: Norbere arketipoak, *aN* eta *Ka* arteko gizakundea, *aN* eta *Ba* arteko gizakundea, *aN* eta *aS* arteko gizakundea; *uTu* eta *Ka* arteko gizakundea, *uTu* eta *Ba* arteko gizakundea, *uTu* eta *aS* arteko gizakundea; *Ra* eta *Ka* artekok gizakundea, *Ra* eta *Ba* arteko gizakundea, *Ra* eta *aS* arteko gizakundea; *iLu* eta *Ka* arteko gizakundea, *iLu* eta *Ba* arteko gizakundea, *iLu* eta *aS* arteko gizakundea; *Ka/Ba* eta *aS* arteko bergizakundea. Ondorena.

IV. *Toponimiaren azalpena*: Tokizen konposagaien itzuliketa, tokizenen gizakundea eta eratortasuna, tokizenak eta herrien jatorri izenak, *aN* umeak eta medioa, *uTu* tokia eta hauzoak, *erRa* area eta arraza, *iLu* lekua eta lagunak, *Ka* okea eta kasta, *Ba* bizitokia eta biztanleak, *aS* etxea eta etxak. Ondorena.

V. *Arketipoen itzulketa eta artizkiak*: Artizkiak eta hitzen joskera zaulia, *aN* arketiparen aurrizki-atzizkiak, *uTu* arketipoaren aurrizki-atzizkiak, *erRa* arketipoaren aurrizki-atzizkiak, *iLu* arketipoaren aurrizki-atzizkiak, *Ka* arketipoaren aurrizki-atzizkiak, *Ba* arketipoaren aurrizki-atzizkiak, *aS* arketipoaren aurrizki-atzizkiak.

VI. *Gramatikaren lekukotasuna*: Hizkuntza erabateko egitura. lotura gabeko esakunak, lotura soileko esakunak, *aN* arketipoaren oste-loturak, *uTu* arketipoaren oste-loturak, *Ra* arketipoaren oste-loturak, *iLu* arketipoaren oste-loturak, *Ka* arketipoaren oste-loturak, *Ba* arketipoaren oste-lotura, *aS* arketipoaren oste-loturak.

Ondoretan ohar hauek agertzen dira: Euskararen ahozko lekukotasuna dago antxinako herrien lehen jakindurian eta jakinduria honekin bat datoz Sumer eta Egiptoko jakinduriazko idazkiak, hizkuntzako sinbolo eta arketipoek aitortzen eta mendi santutegieta-ko erromeriek erritoen ospakizunak gogarazten digutenez. Mito eta erritoon astinik gabe ez zuan iraun ahal izango hitzaren oroitzak.

Soin eta muin bizigarri ditugun lau elementuekanako atxikitasunak, baserriko ekologia eraginak bezala, mantendu ahal izan du

sorkuntzako mitoen hasimasiak eta jainko sortzaileen izenak, hitzaren *Ino/in=esan* eta *egin* magiarekin eta oihuzko otoitz hasikinekin batera. Bizi iturrian bidea ahazteak edo idazkiak ahozkoari egiten dion itzalak, ostera, izadiko itu diren sinboloekandik aldendu gaitu, oroitzapena, ahozko bizitik entzunari barik, idatziari sor bailitzaion.

Euskara ez da guraso ezagun gabeko hizkuntza isolatua, beste hizkuntza askoren jatorrian dagoelako, bai eta hizkuntza klasiokoen alaba ustea edo indoerupeisten kasta aitorten direnengan. Hala ere, Europako kristau erresuma antustek, euskararen etxe jatorria abizenetaraino sartuta dutenarren, ezeztatu egiten dute. Baina digitale garairaino iraun ahal izan duen lekukotasuna ez du ezaba ahal izango estatu jakobindar eta erakunde politizatu askoren amnesiak.

Euskara ez da guraso ezagun gabeko hizkuntza isolatua, beste hizkuntza askoren jatorrian dagoelako, bai eta hizkuntza klasikoen alaba ustea edo indoeuropeisten kasta aitorten direnengan. Hala ere, Europako kristau erresuma antustek, euskararen etxe jatorria abizenetaraino sartuta dutenarren, ezeztatu egiten dute. Baina digitale garairaino iraun ahal izan duen lekukotasuna ez du ezaba ahal izango estatu jakobindar eta erakunde politizatu askoren amnesiak.

Arketipoen eineko hitz soila gizakundez monosilabismotik zehar hazten doanak hitzaren sorrera argitu eta hazkundera aztergarri egiten digu euskararen laguntzarekin.

Giza jakinduriaren garaiko hizkuntza klasikoek ez zituzten ulertu hizkuntza zaharren erroak eta hoiek arketipoekin zuten lotura eta ez zuten analizatu ahal izan sakonean euren hizkuntza. Hizkuntza erromanikoek ostera, itxuan jarraitu zuten latinaren leterazko ganora eta ohorea.

Tokizenak dira jatorrizko kultura zaharrenaren aztarrena Europan eta Mediterraneo inguru guztian eta hizkuntza zahar haien lekuko berezia euskara da, berak egiztatu bai-ditzake gaurdaino izen ohien edukinak, tokian tokiko deskribapenez gonbaratuz.

Hizkuntza ez da izan gizakiak jokuz osatutako asmakizuna, ezpaere izadiaren ordena eta irudia bera barneratuz, edatu duen sorkari bizia baino. Hizkuntza ez da asabengandik odolez jaraunsi

adn-a ere, haien gogakizuneko jakindurian erritozko eskolaz taxutua eta heldu ondarea baizik. Hagatik hizkuntzaren jatorria gizarteko kultura beraren historia da sorreratik eta honaino.

9.4. *Ama Jainkoa*

Nire ikerketetan ez da bakana teologiazko titulorik aurkitzea. “Ze gaiari buruzko da?” galdetu zidan Inibertsidadeko bibliotekariak *Ama Jainkoa* aurkeztu nionean. Ale bi nekarzkion eta “egizu bata linguistika dela et bestea teologia” erantzun nion. Antxinako gizakia *homo religiosus* zenez, ostaz bereizten zuan bere burua jainkoen mundutik, beraz hitza eta hizkuntza ere eremu horretan orekatua zan eta *Ama Jainkoa* zuan baitik bat ama mendeko nortasun beheinena. Ez da arritzekoa, bestela, *Amarekin topo* Eleiker asmo orokorrean *Ama Jainkoa* alea ere agertzea. Honela banatu nituan gai honi buruzko kapituluak:

I. *Ur bizidun Ama*: Amun-aitun asabak, *Nut*^(k) Ama sortzaile eta inude, *Amatu*>*Antu*^(s)/*Nut* jainkoen Ama, *Ama.Ate*>*Ma.at*^(k) Jainko *Maitte*, (Hor *Mata* Kali induarra ere) Ama Jainkoaren anzea, “Ama belar ona”, *Ama.Ate* mendea eta maisutza. Ondorea.

II. *Ama Andere*: *Andere*>*Anderexo*, *Andre Mara*, *Marigorri*, *Marimontaiñe*, Ama Jainkoa eta *Amalur*, bizitik bizira, arrautzatik harakoa, majiaren arteziaz. Ondorena.

III. *Dama/Dona titulua*: Jainko gizakundea: *Sube* eta *Butzu*, *Damkina* eta hogenaren mitoa, *Andre*, *diantre*. *Marduk* mardotzen, *Marduk Tiamaten* aurka, giza sorkuntza berria, majiadun sorkuntza eta basa-gizona, Adam-en gerena, Ama mendetik Aita mendera. Ondorena.

IV. *Jainko bila*: Jainko gerlariak, *Zeruko Erregina*, Jainko terrorista? Ama Jainko utsunea, Ama Jainko bila, *Andre Mari*, Sexu gabeko Andre Mari? Sorkuntzaren ber-irakurketa. Ondorena.

V. *Kultura erasoak*: Lamien kontrako borroka, sorginen kontrako eraso, emakumeen kontrako bereizketak, emakumeen kontrako erasoak, aukera berdinak denontzat, bizi eskubidea denontzat. Ondorena.

VI. *Ekologia eta espiritua*: Emakumea irakasle, emakumea teologari, emakumea Jainko iragarle, emakumea bakegile, arra eroi eta eraile, emakumea ekologizale. Ondorena.

VII. *Jainko aintzaren lekuko*: Amaidiren medioak, Erraren arar-tekoak, Jainkoaren profetak, umetzaroko Jainkoa, azaleko itxura eta arketipoa, Jainko arpegi berria, emakumea toki sakratuan, etxandera>*santera*. Ondorena.

Ondorenetan oharrok agertzen dira: Izadiaren sorkuntzan Ama Jainkoa izan zan berezko eredu eta Izadiko elementuak eurak: ura, sua, airea eta lurra gertatu ziran bizidunen muin. Gizakia bizidun hoiere partekide da eta haren espiritutik jaso du jakinduriaren hasikina, berekautan Jainko Amaren seme-alaba burueritzidun izateraino. Jainko Ama da jakinduriaren hasieran ama mendea sortu zuena ere, beheko bizikizunak goikoei egitura ematen ziola, ots, beheko izenak goikoei analogiadun nortasuna eta otsa prestatzen ziena.

Umeek Ama Jainkoaren jakinduria ezetsi zutenean, elkarrekin burruka egin zuten eta, teknikak hobetuz, harma egokiez ornitu euren eroiak jainkoei mailako mendezin ospatuz, baina gizatasuna eta gizabidea murrizten zutela eta herriaren zoriona urritzen.

Jainko buztinlaria, jainko artista edo hitzaren magiadun jainkoa aita mendeko asmoa gertatu zan gizarte mendekari baten idoloa, eta gainera, erregea bezain, ahaldun bakar eta jainko burueritsiduna. Ama mendean, ostera, *Ama+Atta>maita* ulerbidetia hizkuntzan bultzatuz, maitasunaren erraia eta oinarria ezarri zuena, *Aita+Ama>tema*, berriz; eguneroko *dema* sortzen duena.

Biblia desmitologizatzeotan, aita mendeko iraultza salatzea baino ez dago, bada halako ereduak, halako ondorena ematen digute, Jainko seme-alabatzakoa ere ez baita jartzen dutela, umeentzako ere azalpen errebesak ez dutelako baliorik gaurko gizarte biologiko eta ekologia zalearentzat.

Jainko misterioa erabat "itzel eta liluragarri" dela esan ohi da, itzal, giza mugatetik hara gaituzten gaituzelako, eta liluragarri, haren sorkarrietan oharren dugun edertasunak minki tirriatzen

bai-gaitu. Publizidadeakino erabilten du emakumearen edertasuna eta amatasuna salmentaren gizenerako, baina eztelakoan, bere sortzaile den Ama Jainkoa ere goresten dute, haren eskutiko eta antzeko lilura onartzen denean.

Edertasunak maitasuna sortzen du, amaren sabelak bezala eta bizitza bere garapenera daroa igarri ere egin gabe. Izadiko eta gizadiko edertasuna, mundua eta gizakiak, bere antz eta irudira sortu gintuen Ama Jainko erraien sorkaria bai-gara.

Lurrak ere Unibertsoan du kokapena eta darwinismo utzak ez du ezagutzen gizakiaren mentu sakona, ez bai-du teologiarako oinarririk, ez eta lurrak, mendiak salbu, inorako bultzadarik edo gorakadarako eskilararik, baina eguzkiaren orbiak animaten zituan gure asabak, harek *Ama.Aita* topaketan zeru mako gailurrera egiten zituan eguneroko jautsietan.

Ekologiaren kontra eginiko ogenak ba du aita mendeak ama mendeari egin amarruez zerikusirik, harek bezala honek ere, Ama Jainkoaren arpegia itxurgatu bai-du izadi-gizadi sorkarrietan, nausi guraren tirria duela kausa, eta harrapakinak, benetako bere munstroak, direla helburu.

Sube eta *Butzu*, hasiera bateko *Mari* eta *Sugaar* bezala, elkarrenak eta ostarkua bezain ipuin zoragarri zirenak, aita mendean elkarganatzeko *zubia* apurtuz, maitasuna ostopatu eta antzutuz norkeria eta gaineria bultzatu zuten. Jatorrizko pekatu honek eragozten dio gaurko Elizari ere Nazaretoko Jesusen Espirituari lehoiak idekitzen.

Arkeologiak Ama Jainkoaren irudietan aurkitu du gaurdaino Europa Zaharreko ama mendea aipatzeko oinarria, gero sikologiak ere ohargabeko arketipoetan bilatzen duen susmo beretsua, baina ziurtasun gehiena hizkuntzaren testigutzak ematen diguna da, hizkuntzak gorde dituen arketipoak eta izendegia direlako denetan sinisgarritasun gehiena dutenak, erlijio gonbaratuen maisuek ohartu eta Europako hizkuntza zaharrenak, euskarak, erakusten digunez.

Euskara ama mendeko hizkuntza da, eta ama arketipoa mima-

tzen du, niniak *ama* izena bezala, eta gainerako arketipoak, amaren ahotik lehen arketipoari lotuez, desarroilatu ditu. Bera da “Zeru” Ama hizkuntza *ene, ena, ni, no, -n, -en* monosilaboz izendatu eta lotu gaituena eta hurren “Iduzki” Aita hizkuntza *to, tu, zu, you, hi* edo *-tu/-du, -di, -da* otara jasotzen gaituena, eta eurak dira euskara egituren ardatza eta hasierako teologia.

9.5. *Euskararen Jatorria Bilerak.*

Aurreratu dudanez, *Euskararen Jatorria* deritzaion bilera antolatatu zuten Arantzazun. Ilusio handia biztu zidan, neure asmoen izen beraz, kontuizu, izenpetutako bilerak. *Eleiker asmoa* (ikus 71-76 or.) egina nuan hanartean. Bera aurkezteari lezeegi eritziz, *Euskararen jatorrira hurbiltzeko bidea* laburpen hau eman nien:

- a) Euskararen mitoazterketa zer den.
- b) Filologia eta mitografia gonbaratuak edo euskoeuropeismoa.
- c) Metodo zahar antzua edo indoeuropeismoa.
- d) Medioak eta euskararen hermeneutika etorkizunean.

a) “Euskararen jatorriaz ezer ez dakigu” zinoan Mitxelenak eta, jarraian, lanera gonbidatzen gintuen: “metodoak berriztu beharra dagoke bilaketa honetan” esanez¹. Metodo zaharrak berriztu ala metodo zaharrak baztertu eta berriak asmatu ere esan beharko. Horrela erabaki behar izan nuen tesigai *Vascuence y mitoanálisis* aurkestu nuanean. Hanartean Unibertsitateko profesore banakak mitoaztertzen zituzten literatura textoak. Nik euskara bera mitoaztertzea erabaki nuan, artean neunkazan susmoak eta toponimiaren arrastoak hatarako bidea ematen bai-zidaten. Tesia aurrera ateratzeko maisu gidaririk ezin izan nuen lortu, ordea; batek ez zekiela euskera nahiko eta besteak mitoez jai zuela, edo askotxok bezala, mitoak ume ipuintzat ematen zituela. Izan ere, hizkuntzalaritza da oraindino, aurrera pausoak emateko, mitoaztertzen ez duen giza diziplinetan bakarra, bada, soziologoen, etnografoen, antropologoen, psikologoen, filosofoen eta erlijioen historiagileek mitoen azterpenaz baliatzen dira euren ikerketan sakontzeko: mitoak bai-dira, Neolitosko gizakiaren kontakizun beheinenak eta bere pentsamoldearen adibiderik argienak.

1 *Sobre el pasado de la lengua vasca*, p. 196.

Hagatik Neolitosko giza mitozalearekin mitozale egin nintzan, euskararen jatorria idorotzearren.

b) Euskararen genesen bilaka, hizkuntza senideekana joan behar omen da, gurearen edukinak eurenekin gonbaratzera, ea zer dugun amankomunean edo zer berezirik jakitekotan. Bagenekin aurretiz euskararen senideak Mesopotamia aldean zirela, hizkuntzalariek eta, K. Mitxelenak eurretan, esan zigutenez. Baina nola jo Neolitos sakoneko Sortalde haretara? Anartean biblistek sumeriologiaz eta egiptologiaz bidea urratuta zeukaten eta jakinduriatzko idazkiak azterturik: Bibliako testoak azaltzeko bide berak erabili nituen nik euskararen jatorria azaltzearren. Herri haien jainko nausiak zeintsu ziren jakin, haien izen monosilaboen egitura eta hizkuntzen hasierako monosilabismoa egiztatu eta gure mendien oihartzuna entzun, mendiak hasieran Jainko tenploak bai-ziran (eta talde ohargabeen oraindino ere hein batetan izaten jarraitzen dute) eta "mendi" tokizen osogarrietan lau jainko nausi monosilabodun idoro nituen: *Ainamendi*, *An/Inu*^(s) "zeru" jainkoarena. *Otamendi*, *Utu*^(s) "iduzki" jainkoarena, Erramendi *Erra*^(k) "iruzki" jainkoarena eta *Ilumendi*, *Ilu*^(u) "lur" jainkoarena. Lau izenok, hain zuzen, kosmologia zaharreko oinarrizko lau elementuen sorle zirela konturatu nintzan, hain monosilaboz euskarak ere, *Inu*>*uin*, *Utu*>*su*, *Erra*>*aire*, *Ilu*>*loi* ezagutzen dituenak.

Jakinduria zaharra edo protoeuskara azaltzeko naiko ziran lau jainko arketipo eta euren eratorriak, baina gizakia bere nortasunaz jabetu eta kosmo ikuskizuna osotu zuenean, norbere konplexuaren arketipopak aurreratu zituan eta jainkosko lau arketipoekin eztabaidan jarri, arketipo goitarren hizkuntza lauari norbere psikologiazko ñabarduak gehituz, ots, kosmologia zaharra antropologia berriaz ornituz. Zeintzu direla giza arketipook? Sumeriako eta Egiptoko jakinduria idazkietan aurkitu nituan eta, ostera ere, oihartzun bera susmatzen nuan euskararen ulermenean; *Ka*^(k), gihar fisikoa, euskarak *kai/gai* ganoraz ezagutzen duena, *Ba*^(k); egiptierak bezala, euskarak ere "ene *ba*" edo "ai *ba*" esakeretan aitortzen duena, edo *baita* forman osatzen, eta *Akh/Aj*^(k) egitiarra edo *Zi.d*^(s) sumeriarra, euskarak *As/ats* "arnasa" esateko erabiltzen duena eta santutasun errituala adierazteko erabilia, hala nola "aitaderak ats emon zaun aur koni" esakeran agertzen den bezala.

Horra, bada, zazpi arketipo, hoiekin eta euren eratorriekin astindu eta bere betera heldu zan euskara. Guztion zehetasuna *Vascuence y mito-análisis - Euskararen ereduak* liburuetan eman nuan eta, haraz gero, beste hamabi titulotan egin ikerketetan eman ditut.

“Filologia eta mitografia gonbaratuak gure historia ulertarazten digute” esan zuan Max Müller erlijio gonbaratuen historiagileak. Asmo honetan beste kulturekiko gonbaratze lanetan, argibide handia eman zidan baitipat, urartiarren *Inu* jainkoa topatzeak eta bertatik eman nuen: urartiarrek eta euskaldunek hasieera baten, monosilabismoaren garaian, alegia, Jainko bera izan zutela, oraindino ere *Inotean* “*Inu* Jainkoaren garaia” ospaten bai-dugu. *Inu* izenak “zeru edo zeru Amaren ume” esan nahi du. Aita Barandiaranek ere antxinako euskaldunen zerua *IN* dietu behar zuela ematen du², handik datozen zenbait sorkari: *intz*, *inatazi*, *inusturi*, etab. *in-* aurrizkia asten direlako.

Inu izenari jarraiki, ulertu ahal izan dut *Inko* “Unuren seme” agertu zela hizkuntza gizatuaren asieran eta *Jaun Inko*, berriz, *Jainko* burutu zena, erritoaren xit santu eragiteko *As* arketipoa aurrizkitu zenean. Horra, bada, *Inu/Inko/Jainko*, hitzaren eta hizkuntzaren hasiera eta osapena, bidean tutik ere galdu edo ezetsi gabeko hotsekin osatzen zuela euskarak.

Hanartean, Theo Vennemann hizkuntzalariak Alemaniako toki-zen askoren egiturako euskal erroak aipatu aurretik, *La onomástica, oído de la prehistoria* ikerketan frogatutzat utzi nuen Europako toponimia handia euskarak berea egiten duela eta, beraz, indoeuropeismoak edo indogermanismoak ez duela oinarririk eta euskoeuropeismoa dela, ostera, hizkuntzalaritzen bide jatorra.

c) “Bai, zure eritsia, besteak beste, hipotesi bat da” esan zidan pasadisoan Unibertsitateko lagun batek. Helbururako bidea egiten dakian metodoa hipotesi baino gehiagio da, ordea. Helbururako bidea egiten ez dakian metodoa, hori da hipotesi erratua. Hala, euskara baztertu zuan indoeuropeismoa eta gaur ere Unibertsitate mailan erakusten dena. Neurez barik, Giovanni Semerano, italiar hizkuntza-

2 *Mitología vasca*, p. 136.

lari saiatu denaren ahotik salatu nahi dut beste behin indoeuropeismoaren erratua. Autore honek *“Gli influssi delle antiche civiltà del medio oriente sulla prima formazione culturale dell’Europa”* ikerketan dinonez, “indoeuropeismoa ez zan egundo gertatu hizkuntzen historian: arbelera “a tavolino”-dino- jasotako asmakizun utsa izan bai-zan: alemaniar eta ingeles hizkuntzalariek Europa Erdigunea kulturazko argiez janzteko ahaleginetan, hain zuzen. Berari egindako elkarrizketan Unibertsidadea ere aipatzen da Celtiberia.net Forunean, Euskera ezizenaz: “Unibertsitatea bide berrietan sartu nagia da eta gainera ahalmen urriak ditu” -erantzuten du. Theo Vennemann-ek ere zerbait holako dino: “Nere eritziok bidea egin orduko hamarkada joango da”. Hagatik, gure asmoko den *Euskara jatorriaren I Biltzarrak* euskaren azterbide honi abiada bizkorragoa eman diezaiola opa diot.

d) Unibertsitateaz esana errepika dezakegu euskal medioez ere, Unibertsitateak metodo zaharrekin eskolatzten bai-ditu prensako bozeramaleak ere. Ez da asko oraindio gure egunkarietako baten irkurri dudala Vahan Sarkisian, armeniar hizkuntzalari eta euskalari denak euskeraz eta euskaldunez esana: “Nola jakingo dute nora doan euskara, nondik datorren ezpadakite?” Itxura bateko ateraldia da, holako beste susmo hau bezala: “Euskarak bere buruaz ezer ez bada ki, zertarako balio digu?” Hori da, hain zuzen, indoeuropoeismoak dagoneko ia bi gizalditan sartu digun zaldia: “hizkuntzetan euskara jatorri ezezagunekoa da” esan zuenean. Zaldi hori, oster, jostailu utsa zan, indoeuropeismoa, alegia. Beste zaldi bat da etorkizun laburrean irabasle ikusi nahi nukena: “Bai al da hizkuntzetan bere jatorriaz euskarak adina dakianik?”. Beraz, gero eta gehiago egiztatzen da Aita Barandiaranek esana: “Gure jatorriak erakutsitako bideak etorkizuna bideratzen lagun diezaiuke, berak markatzen baititu gure joerak eta helburuak”. Eta hemen euskara da bere eta gure jatorriaz eta beste askoren ohargabe orokorraz gehien dakiana.

Eta amaitzeko, hako txinar jakintsuak hiltamuan agertu irrika bizia gogoratzen dizuet. Heriotz orduan galdetu omen zioten gai-soari: “zein da zure gurari biziena ordu larri honetan?”. Eta honela erantzun omen zuan: “Itzuli diezaiotela hitzari bere egia”. Horixe

da nik ere biziki eskatzen dudana: Itzul diezaiotela euskarari ere, hain hizkuntza artesari dagokion maisutza, eta orduan hasi ahal izango dute hizkuntzalariek benetako etimologiak egiten”.

9.6. *Euskal jatorria bileren arrakasta eta kudeaketa.*

Gure bileretan arrakasta bilatu nahi izan da, ots, gendea biltzea. Eta gendea biltzeko autore entzutetsuen erakarmena. Txosten egile denak ez ziran ain baikor agertzen, norbatek bederen bizi dugun geografiatik kanpo atera ere egin gintuen euskal jatorria, ez Sirianedo jartzean, Sirio izarretan baino. Adar jote galanta, batez ere, euskaldunentzat bere lur-mugak errespetatzea ezinbesteko eskakizuna kale-kalean dela jakinik. Gure “siriarak”, ostera, guruen erri- toz eta guzti, nabarmenki halako txosten adarra entzutera behartu gintuen. Euskara nondik eta Sirio izarretik datorrela. Hori bizi dugun lurrean gu atzerritar garela esatea da, ez dela euskaldunona milaka urtetan landu dugun lurra. Zentzun handiagoz aipa zezaketen beste mitozaleek, euskara Jainkoak Baradisuan gure lehen gurasoei erakutsitako hizkuntza dela, edo oraingo genetista batzuek, hizkuntza gurasoen adn-az batera jaso dugun doaia dugula. Guk dakiguna besterik da: Euskarak atean bertan duela ateleka arerioa, lagunak ostera, ostaz kantari koruan. Harako siriotarra ez nuan behingoan salatu, batzarkideak ezagutzen ez nituelako eta talde gidariak halako patxadaz entzuten ziolako, nik nolabaiteko konplizidatea susmatzeraino, hatan ere ³. Nork bidaldu ote zigun *Euskal Jatorria I Bilerara* halako igarlea!

Bestalde, ene ustetan ez dira ondo kudeatu Euskararen Jatorri Bilerak, bada entzulegoaren kopurua gizentzekotan tituloak berak

3 Urrango II *Euskal Jatorria Bileran* Iruña Beleiako agerpena ospatzen gendun eta harako *siriotarra* bere aburuz hatarako sortu ikurri eta guzti agertu zan, alderdikari sutsu, askoren irribarrea sortzeraino. Handik laster, ez nondik eta ez zergaitik, Iruña Veleia satanizatzea gertatu zan. Agur askoren ametsak. Eta ikurriña? Siriotarra Euskaltzaindira joan omen zan eta han galdetu omen zuan Iruña Beleiako arazoaz. Hango norbaitek zera esan omen zion: “Euskaltzaindian, Endrike Kenerrek izan ezik, ez zuela Iruña Beleiaz holakorik sinisten. Haraz gero, ikuskariak ez zuan jaso ikurriñik. Agur, bada, Iruña-Veleia ikurriak salduz, negozioa biribiltzeko abagunea ere.

adieraten duen helburua alde batera utsi eta aldameneko gaietarako lehentasuna eman izan zaielako. Horrela Sos Veleia arazoari, hasiera hasieran. Han ezagutu ahal izan genitun Koenraad Van den Driessche eta Juan Martin Elexpuru, bata geologian eta bestea hizkuntzalaritzan dotoreak. Euren azalpenak begi-belarriz entzun eta aztatzeko aurkeztu zizkiguten frogak jaso eta Iruña Veleiaz egun haietan zabaldua ziren amaruak behingoan ahienatu zitzaizkidan. Iruña Veleiako altxorak bere bidea egingo du euskararen alde, nahiz eta albora begira eskolatuek kanpoko haizerari atea ideki eta, ohi bezala, arazoa judizializatzerara eramanez duten.

Euskal iberismoari buruz egin bileran, aipatu Antonio Arnaiz eta Bienvenido Mascaray ezagutu nituan bederen eta gaiari bere garrantzia ematen hasi nintzan. Egia esan, ordurako liburu honen aurradako Ama Jainko Damea aukeratuta neunkan.

Urrengo baten, VI Biltzarra (2011) Stephen Oppenheimer bezalako autoreen erakarmena lantzearen, hizkuntza genetikari buruzko bilera antolatu zuen Garesen. Andelosko erauzkinak ikuskatu genitun Mendigorrian eta Espainiako Estatuak Iruña Veleiako altxorarekin zer egin lezaken susmotan jarri. Erauskin haietan iberiar iskribu bakar bat salbatu zuen. Gainerakoa arras gelditu.

Euskal jatorriaren Bileretan gaia zuzenean landu edo lantzen duten adizkide bi ezagutu nituan: zaharrena Bitor Kapanaga eta garraikideago dudana Josu Naberan. Biltzarren tituluak agintzen duten gaia bilatzeko ez da zertan etorri bilerotara, baina tira, trenak bagoi asko irago ditzazke. Hala ere, nik Euskal Jatorriaren Bileretara joan asmoa dut, Webguneak argitaratu eta ematen didaten gainerako laguntza eskertzearen, nere bakardadetik urten, lagunak ezagutu eta liburuak erregalatzeko abagunea delako, eta, horrezaz gainera, zeure ikuspuntuaren berri emateko aukera duzulako.

Arketipoen teoria azaltzeko power pointen prestatu lana erabili nuen, antxinako mundura urbilduz entzulegoaren irudimena bizkortzearen. "Orain bai azaldu diguzula argi" esan zidan Josuk eta nik neure kautan: "bat behenipehin konturatu da, baina zenbat halako power jaurti beharko hainbat kaska ertzi etsitzekotan!".

Powerreko lehen filmak gaua antzezten zuan. Egipton *Nammu*



Argia sortzean, hain zoragarri agertu zan mundua *No* eta *To* giza-kien begietan (Ikus 117 or.) ezen *No* eta *To*, emazte-senarrek ortzian ikusten dutena mimatu zuten euregan: Ni INU naiz, - zinoan NOK - eta ZU UTU zara". Haraz gero, Mariren (eta Andre Mariaren) gona dundua da, eta *Ni, Tu>Zu* lehen pertsonak hizkuntzetan.

jainkoarena zan domeinu bakarra, hau da, *Amuma* euskaldunontzat. Izan ere, ipuina antxinatean jartzeko, "Amuma Marikastañas" edo "Marimontaine" garaira igoten bai-dugu irudimenaz. Aldi berean Amumaren domeinukidea *Atum* zan Egipton jainko orokor, euskaldunontzat *Aiton*, alegia. Garai hareri Bibliak *gaua* deitzen dio eta grekoek *kaos*. Euskerarentzat, berriz *kau>gau uts*. *Kaos* filmatik, hurrengo filmara, argia egin zeneko, sorkuntza harrigarria gertatu zan, (Ikus or.133). Eta hizkuntzen alorrean beste hainbeste gertatzen da. Euskara, ama denez, beste hizkuntzak argiteko gei dela, hizki bakoitza nondik harakoa den asmatzen bai-du. Guzti horrek etimologiazko hiztegi bat egitera deitzen nindun.

Bigarren filman hizkuntzaren arketipo denak agertzen dira begien aurrean (Ikus 117 or.): jainkozko laurak goian *Inu, Utu, Erra*, eta *Ilu* goi-behen egian eta *Ka, Ba, As* behean giza arteak edurretan antzetzutu: burutazinoa halakoa! "Zu hor goian, Ni hemen" esaten bezala, "ni neure arketipo ordezkariekin". Argazkia Japondik norbaitek emaildez bidaldua zan "Gabon zoriona" *Chrizomazu* opa eta gorde egin nuan.

"No hay en toda España un profesor que pueda defender esta tesis" esan zidanak bere arrazoiak zeuzkan eta eskertzen diot esatea, nahiz arrazoirik ez zidan eman. Arrazoiak, ukapenarenak alegia, bidera urteten dizkitzu usterik gutxienean.

Gero gu mitozale utsak garela esango dute gu, euskaldunok,

politikan orokorrean burunahiko zale agertzen garenetan, baina eurak, euskarari hesia ezarri eta eransugearena egiten diotenek, euskaldunok lotan gagozaino, eurak dira gure mitoen egiazta-tzaile. Askatasuna lortu beharko, geu eta geure euskara altxorra eransugearen amarruetatik jaregiteko.

9.7. *Eusko-iberismoa eta zeltismoa.*

Iberismoarekiko nire lehen eskuartzea etnografia mailan izan zan. Dagoneko *Euskal mito, erritoak eta euskara* (2001) ikerketan nenbilela, iberiar damak eta Mari neosumeriar uriko jainkosa egituraz berdintsu jotzen nituen eta deieraz, berriz, aipatu *Mari* eta Ambotoko *Dama Ama* jainko beraren kideztat ematen.

Etnografia berak, Almontetik Adurrera, Urde eta salamankar txarroekandik zehar, egitura beretsuko txistuak soinutzen jarraitzen du. Artean dira *Inote* eta *Ninot*, egitura beretsuko, ez arrandi bereko, *Inu* Jainkoaren jaiotza ospakizunak, Donostian eta Valentzian, bai eta hor hemenka, iberiar gorrino=janso jainko oparigaien irudiak ere, Gisando, Urla, Mingorria eta Durango, etab. Argiagoa da, ostera, beste batzuren eskutik hizkuntzaren lekukotasuna, Bienvenido Mascaray, Luis Silgo eta Antonio Arnaiz beraren lanak erakusten dutenez. Autore honek asko animatu nau nere ikerketan aurrera egiten. Hori eskertzekoa da, bertoko ikasien aldetik ez dudalako jaso ezelako bulkadarik. Bere ustez, “esos señores tendrán que reconocer”. Nolabait desertuko bidean lagunkide izan dut.

“Vascoiberismoa” gai erakargarria da euskaldunontzat ere. “Eske-rrak euskarari ulertu ahal izan dugu iberiera -dinoe euskoiberistek-“eskerrak euskara gorde izan duzuen euskaldunok, gure aurretikoak ere euren idazkietan zizelatuz edo marrazkiz eskribatu zutena jakin al izanen dugu”. Ea, halakoren baten eta euskarari ezker, iberistek *Sabidurías ibéricas* edo antzeko libururen bat argitaratzen diguten, Iberiak (ez Hispaniak) historia jatorraren zentzuna landu ahal dezan; hor sortu bai-ziran bi Espaiñiak, jatorra eta bestea ⁷.

Complutensea (2010) udaran gai honi buruzko sinposium bat

7 Iberistek aintzat dute iberiar kultura, aintzazgarri bai-da erromatarren>

egitekotan zan. Lana aurreratuta zeukan, egunak, ponenteak eta gaiak izendaturik eta webgunean sartuta. Anartean erretorea baikor, baina azken uneko pausoa emakeran, kontxo, ezetz, ezin zeitekela eman agindu sinposiuna. Zer dela-eta? -Antoniok galdez- eta murik ere ez erretoreak. Jo omen zuan harek Begiralearengana eta Madrileko Unibertsidadeen Begiralea ere txundituta, bada euskoi-berismoa bereziki begi-begiko gaia omen zuan berak ere... Horrela hobeki ulertzen dut gure Lendakariak ere, euskara ikasketen Onularizat Madriletiko Begiraleak izendatzea...

“Antonio, nor dela uste duzu sinposiuna eragotzi duen hori? -galdez nik. -Iruña-Veleia arazoa argitaratzea eragotzi dutenek eurak -Antoniok. -”Izan ere, zuek iberistok, gaineko aulkia opa izan diozute euskarari zuen ikerketetan eta hori grabea da.”

Haraz gero, hobeki ulertzen dut Unibertsidadea bera ere ez dagoela erasotik jaregin, euskara artean sartzen bada, beheinpehin. Eztabaida honetan euskarak burua jasoten du eta peninsula guztian ohorez jansten da: bera bai-da egiaren jabe. Eta hori erromanista-hispanistentzat jasan ezina da. Hizkuntzen arazoa politika arazoa (eta euskararentzat eraso) gertatzen da. Erromak politikan eta latinak hizkuntzan gertarazi eraginak arrakasta handia izan zuan eta, guzti hori, goizetik gauera, hankaz gora botatzea ezin du jasan Unibertsitateko Begiraleek. Orobat Real

txikiziotik gorde den aztarrenetako artea. Zapaltzaileak “bakea” deitzen dio txikizioari, euskarak “bakean datza” zenduari bezala, nahiz bizientzat “bakea” *ongoa* ezagutu. Txikizioak iberiar artea lurperatu egin zuan eta orobat Iruña-Veleiako euskara arrastoak. Aztarrenak ager balediz, artea isildu egiten da eta idazkiak aizuntzat jotzen. Iberistak kontrabando bezalako lana egiten ari dira, ots, euskarak ematen dien argibideaz iberiaren lehena bere einera jasotzearren. Aşmo horretan geure etsai berbekin topo egiten dute: kontra-propaganda, gotizismoa edo fakzismoa, Toledoko elizak eta estatuak hitzarmenean bezala. Zer gero, eusko-iberismoa kultura arazo gertauko bailitz? Gainera, erratuz beterik dagozen Erreal Akademien Etimologiak zuzendu egin beharko lituzkete, Historiako gezurrak (euretan vacongadismoa) aitortu eta guzti hori zurrumbilo handia izango litzateke Unibertsidade mailan. Eta Unibertsidadeen Begiraleak guzti hori kontuan izan behar du eta, besterik gabe, euskararen argibideari begia itxutu, “argia ogepean sartu”, etxeoek ikusi ez dezaten.

Akademiako Etimologiaren Hiztegiak ezingo du erraturik arteztu, ez eta Historiako Dotoregoa aintzat dutenek atzera egin Iruña Veleiako “asmakeriak” direla-eta.

“No hay en toda España un profesor que pueda defender esta tesis” esan zidanak bere arrazoiak zeuzkan eta eskertzen diot esatea, nahiz arrazoirik ez zidan eman. Arrazoiak bidera urtetan zaizkizu gutxien uste duzunean, ots, ukapen itsia edo epailarien paliza.

Zeltismoari dagokionez, iberistek aitatu ere ez dute egiten arazoa, ez du tokirik ez herri berezi bezala, iberioen mapan edo haien arteko etnografia eta kulturaren. Hala ere, iberiarren multsoa apurtzearen, ziria bezala sarten dute zeltismoaren jentilajea denetan, nahiz euren jatorria argitzeko ez diren. Eta zelan argitu, asabenez hizkuntza galdu bai-zuten? Ausaz, euskarak ba daki haien berri. Euskarak jenderri bakoitzari, bere tokizenetik deitzen bai-dio, zein tokitan bizi diren eta handixek⁸. *Celtak* edo *keltak* aipatzen ditu latinak. Mapari begira, Atlantiko aldean egaleratu aurkitzen dira herriok: *egaleko*>*galego* bezala. “Egaleko portua” >*Portugal* edo >*Burdigale* eta berdin *Portugalete*, Ibaizabaleri begira. Europa “egaleko”>*gailegoak*, *galesak*, *ingalesak*, *kaledoniak*, *eskaldak* eta *galoak*, Asia egaleko *kaldear*, *galatiar* edo *kalkutarrak*, bezala. Itxastar gentea, bi Iberien erdiguneko bideetatik alboratuxe eratzen zuten bizimodua, nahiz orokorretan, eromatarren aurkako burrukan, adibidez, beste iberoeekin parte hartu. “Hi zegaitik hintzan gaztetan ere iberioen aldeko eta ez erromatarrena?” galdetu zidan behin eskola-lagun anaiak? -Hareek geureen kontra etorri zirelako -nik erantzun. Galdera bestela gertatu behar da: “Hoiiek zergatik dira gaurdaino erromatar zale eta iberioen (eta euskaldunen) etsai?”

9.8. *Blogari.net/Elleiker*

Elleiker asmoaren seinutzat internetek eskeini irudia hartu nuan. Bertan agertzen da antxinako gizakiaren mundua: “zerua eta lurra” elkarren adineko borobilean eta bien arteko egia mendien gora-beherako mugak bereizten dituela. Goiko arbola behean

8 FELIX ZUBIAGA, *Origen del Vasconce*, IV. La revelación de la toponimia, or. 80-96.



isladatzen da eta behekoa goian. Ez dira bakoitza bere baitako, hizkuntzako arketipoak bezela, elkarrenak baizik. Goikoaren adarrak hiru jainko sortzaileen kabirako dira: *Inu* “uin=zeru”, *Utu* “ude=iduzki”, *Erra* “ur=aire=iruzki” eta erdiko muga *Ilu=loi=lur*, erdi jainko (edo deabru, sumertarren gardiz) eta beheko zugaitzaren adarrak hiru: zazpi konsonante hoiak osatzen bai-dute goiko eta beheko lekuko ahots guztia, Zazpi Jautziak dantzak kosmo-birako jokua bezala. Gizakiak lehendabizi goiko mundua aztertzen zuan eta *Inu=ni/ Utu=tu/ Erra=era* pertsonaien hiruzkinarako, nahiz ta sortzaldean *Ilu/El* nausitu, hirugarren pertsona ordezkatzeko. Gizakiaren pertsona bere einera heldu zenean, ostera, goiko arketipoek, beheko arketipoen lekukotasuna jaso zuten eta bate-ratsu hizkuntza konpontzen saiatu ziran⁹. Zeru-lurren ezkontza bezala gertatu zan, edo eta hizkuntzaren gizakundea, hizkuntza beti ere gizakiei dagozkien iragarkizuna bai-da, ots, ustez beheko eta goikoen arteko elkarrizketa.

Eleiker blogak ere horixe sortu nahi izan zuan euskaldunen artean, euskara jatorriak arduratzen dituztenen artean, bederen. Besterik ezean, monologismo batez argitzen du bere burua, unean uneko galderei eta jakin-minei erantzunez. Jainkoekiko hizkuntza horretan ba daiteke gaurko gizakia jainkoen bildur iza-tea edo Jainkoa edo jainkoak hiltzat eman dituztenetik, halako ardura zorakeriatzat hartzea. Antzinako gizakiaren federik ezean, bila ditzagun zientziaren izenean, zientzia antzuaren izenean funtsezko mitoak itzuriten jardun barik.

“Bai, jarraitu zuek astakeriak esaten” holantxe eraso zidan behin blogean oso lagun mintzat nuen batek. “Astakeriak? -nik erantzun- utzi bakoitzari bere elea elekatzen”. Lagun mina ez zetorren nirekin ados nik euskera koptoaren ulerkide-edo egite-an. Berak izarretiko jatorria ikusten zuan, Sirio izarretik, hain

9 Isaias profetak (Is 1,3) “*Entzun, zeruak, entzun lurra*” zazpi lekukooi deitzen die bere iragarkizuna hastean. (*Dic. Biblia*, Herder, *Siete*, or. 1859)

zuzen. Eta Sirio izarretiko euskara ausaz kantabroaren auzokide izan zeiteken, baina handik harago, inondik ere ez. Beste era batera esanda, euskarari mugak ezeze, kartzela jartzen zion eta bide batez azpian zeukan lurraz gabetzen zuan. Nere adizkide mina bere ostean kukuriatzen zen beste baten bozeramailea zan. Denetik ematen da gure arteko politikan eta zergaitik ez politikaren zati beheinena den kulturaren eta bereziki euskara arazoan? Zuhur ibili.

9.9. Amarekin topo

Hasieratik gorderik nuen asmoa izan da eta liburu berri bakoitzaren argitaratzean hurren argitzeko sena, baiña beti ere, arteko gai berriak sortzean, atzendua izan dena. Nire ikerketak asmo berekoak dira edo norbait esana dudana bezala, enbor beraren ezpalak dira, direla tituluz teologiazko edo hizkuntzalariko. Amaetan ere batean ama Paula Legarreta da, bestean amagandiko euskara, baina bizitzako zertzeladen gainetik, beti gora jarraitu eta ikasia eta, azken baten denaren helburu eta garapen den Ama Jainkoa.

-Zer supozatzen du zuretzat Ama Jainkoaren topaketa honek edo ze alde dago zuretzat Jainkoari Aita deitu, ala Ama deitu?-. -Liturgia zurrun bat edo bizitza bera bizikizun izatea, norbere errua haren erruki dela ikustea, edozein ama-seme-alabengan ikusten den bezala. Askozaz atseginagoa zait Jainkoari Ama deitzea eta harekiko amasemeen atxikitasuna bizitzea. Ez ote zitzaion, bada, holako zerbait gertatzen Jesusi Aba izenarekin? Jesusek Aba bizi zuan eta ez Aita.

Unietan ama galdu nuan eta heltzaroan AMA berreskuratu dut. Hanartean nire arrebak bete dute hainbatean utsunea, baina euskara amaren jakinduriari jarraituz, gure asaben Ama Jainkoa idoro dut, harekin petsakeraz eta sentikeraz adostasun batera heltzen naizela, unada onak gozatuz eta halatan Joxean Arzek, Avilako Teresarena hiruzkinduz, dinona ulertzen dut: "Heriotza orduko betiko bizitza hil baino lehenago bizitzen ari bagara, kontzientzia honekin betiko bizitza bizitzen ari gara hemen eta bizitza honek beste zentzu bat du". Izan ere Avilako mistikarena ez dago euskal poetaren ohiko bizikizunetik urrun: "Amodio berriak/ sendatzen dizu eria./ Zure begiak/ hain dira eztiak,/ zeren baitira/ eneak zuriak,/ zureak eniak".

Jainkoagan ama ardura eta begiramena ikusteak harekiko topaketa den ueña pozarazten dizu, ama edertasunak gozarazten, haren ahotsak baketzen. Zerura begiratu beharrik ere ez duzu, badakitalako ama maitasunak aldamenetik ere jarraitzen dizula eta zeu ere airoso-ago moldatzen zara haren aholkuen esanera.

Zuzenbidezko baldintza da gainera umeak ama ikustea. "Umeen antzeko egiten ez bazarete, ez zarete sartuko zeruetako erreinuan" (Mt 18, 2-4) esaten digu Ebangelioak, baina umeok zeruan, edo alboan, Ama Jainkoa ikustea behin-behinekoa da. "Ez dago amaren semerik" esaten dugu oinarri orokorra hartu nahi dugunean eta ez "ez dago aitaren semerik". Hagaitik ulertezina egin zait Jesukristoz "Gizonaren Semea" aldatzea eta "Gizasemea" soilik esaten eta aitortzen dut.

Ama Jainkoa mendean errezago ulertzen dut "Denok Jainkoak iñak gire" testoa, sorkuntza goitik behera ikustean edo "gizakiok Jainkoaren seme-alabak gara" esakuna, gizartea behetik gora ohar-tzean. Amak hobeki lotzen ditu goi-behak, seme alaben arduraz zerutik gure mendietako kobaraino jeisten bai-zan Ama Jainkoa, gure asaben ustetan. Hortik emakumearen duintasuna eta, amen zoria bederen ulertzea gauza egin da.

Batez ere hobeto ulertzen dut "Jainkoa maitasuna da" (1J 4,8) eta ezin bestean maitatu omen zuan mundua (Jn 3, 13-17) Jainkoa Ama dela jakinez gero, bada, ama maitasuna dela ikusi egiten dugu lurrean bere seme-alaben serbitsuan ari denean eta orduan agirian dago maitasuna zer den eta nogan duen sorgua, euskara bera leku-ko, *ama+aita>maita*, *amatu>amado* bai-dator. Amarekin topo egitea, beraz, maitasunaren sorguarekin topo egitea da.

10. Dic. etimológico-Hitzen jatorria.

Halako hiztegi bat egitea azkeneko burutapena eta ausardia izan da eta ustez neure teoriaren garapena. Zerbait egiteke geldituko zan Etimologiaren Hiztegi hau egin barik itzi banuan, "esan bai eta egin ez" esakera egotsi zeikidaten. Hatarako hainbat baliabide neunkan: aurrizkiak, adibidez, edo preposizioak ustez gerkeraren eta latinaren bereizgarriak zirenak, baina euskara aztertuz, gauza oso bestelaz zela ulertu nuena. Funtsean horrek bakarrik irauldu egi-

ten du hizkuntzalari zaharren ustea. Uste ustela.

Lan eskerge eritsiz eta soiltasunera joaz, haren asurdura lantzea nahikotzat eman nuan, geroago norbaitek baliabide hobeez osotu ahal zezan. Deieraz “Dic. etimológico, según el vascuence =Hitzen jatorria” aurkeztuko nuan, soiltasunari esker euskaldun eta iberiar zaleek, bai gaztelanuek ere ulertzeko eran. Egokia zan asmoaren helburua ere agertzea: “Hiztegi honek ez ditu lotsarazi nahi Errege begiramenaz-edo euskaratik at landutako Etimologiak, haiek begiratzeak sortarazten duen ahalkea itzuritearren baino.”

Hiztegi etimologiko hau, bakarra izanik ere, ez da behingoa onartuko “Errrege” marka edo hagandik aska dutenen sancta sanctorumean sartuko, ezpatadun angerua delako halako aretoen begirale. Askatasun orokorra lor dezagunean, orduan bai, besteak beste teko eskua eta ohorea izan dezake, demokrazi apal eta agirian.

Izenburu berean euskara eta gaztelania elkartzea *eusko-iberoa* hizkuntzak hitz berean ematea bezala da. Ez dira hizkera bera, ez batabestearenak, baina, atzera begira, euskara iberoa ulertzeko gai da eta garaikideen begiradan, latinak baino askoz gehiago daki euskarak gaztelaniaren sorreraz.

Celtiberia.net garaian “Euskera” izenorde aurkako morroiari eskatzen nion, harritik ez zezala bota bere hispanismoaren teilatura, bada gaztelania ere euskararen ulerbidetik asmatu-riko hizkuntza zela-ta esanaz eta, euskara iraintzean, gaztelania ere iraindu egiten zuela zihurtatuz. Halakoekin morroia erdiminetan jartzen zan, bada ilunzaleak ilunkerietan nor dira, baina argitan uts. Linguistika eremuan ere, ilunbetik argitara urteteko ordua dugu jadanik.

Nik gure Unibertsitate eta Akademien borondate ona ez dut dudatan, baina bai begi bistan euren mugatasuna. Euskaldunak, ikasiak, dotoreak izango dira, eta, hala ere, eskuarteko arazoa euskara denean, ez dira nahiko tituloak. Horrezaz gainera, denok nahi genduken askatasuna behar dugu, militantismoaren gainetik, zientziaren eskutik soilik baliatuz, Europako eta munduko beste Unibertsitateekin Harremanean jartzeko.

Ildo honetan euskal kulturarentzat ezinbestekoa da euskal lite-

ratura eta linguistika Katedra New Yorkeko CUNY bezalako plazan jartzea, eragin bidetan euskara eta euskal kulturarentzat beste Guggenheim bat izan bai-daiteke. Hain zuzen ere, Katedra horrek ez du alperrik bere lehen gaia "Euskara eta politika" aukeratu. Euskara munduan borondatea, edo haren falta, guztiz politikoa delako.

Orain bada, labur bilduz, euskara, ama denarren, eta hizkuntza askoren ama, hain zuzen, ostaz du hizkuntzen artean mirabe izateko baimenik. Arrazoia? Bada, enperioko morroiak pasa omen ziren bere gaintetik eta triskildu haren garbitasuna eta orain ezin omen du berreskuratu ezelaz ama tituloa. Hagatik gaztelania latinetik datorrela dinoe liburuek eta webguneek eta hori arrazoi zientifikoa dela uste dute, eta gezur horretaz harrotzen dira maisuekino.

Euskara folklore edo umetzaro mailan bultzatu daino, ez du izango eragozpen handiagorik, baina nerabetasunetik hara, aske izan nahi duenean, inork aukeratu eskongaiak onartzera behartu nahiko dute. Euskararen alorrean bertan nabaritzen diren zirkinnei begira eta Estatuaren Aholkari Orokorren menpean bizi garelako ematen du. Itxura baten demokrazi zabalean bizi gara, baina kalean gure pausoak oro neurtuak dira eta Unibertsitateko esparruan hareago. Kaleak beheinipehin bere irabazien eskua dauka, baina euskal Unibertsitatean edo Akademian, horixe ere ez, bada bakoitzak non aska han galtzen du askatasuna: Halako Estatuaren laguntza beharrezkoa den beste, itogarria gertatzen delako.

Hanartean ezin ditugu ikutu eta aztertu Iruña Veleiako ostrakak, euskararen berri ona dutelako, ezin dugu eusko-iberismoa aztertu eta azterketa Unibertsitate bateko sinposium batera eramanez, ezin dugu halako edo bestelako tesia aldeztu, isileko hesiez ondo hartuta dagozelako kanpusak.

Baina egia geurekin dugu eta "egia geugaz danon aurka" lema zaharra geure egiten dugu. Eta "egia" edo argibidea EUSKARA da, EUSKARA dugu eta oldez eta moldez Europa mailan argi egiten lagunduko digu. Dagoneko ez dugu aurkarien frontea apurtzeko nahiko indar, baina euskararen alabak lagunduko digute murrua zulatzen.

Politikak ezingo du luzaroan zientziaren argia izkutatu, ezingo du zientzia judizializatzen jarraitu.

Tokien eta aldien gainerik
gugana heldu, gugaz bizi dena,
ez noiztiko, ez nondiko jatorriz
ez ezagunena,
hor duzu ama euskara
inon baino hurbilago,
inoiz baino gertuago
(seme edo alaba)
zurekin zeuretu
t'elekatzeko gertu.

ISBN 978849241395-9



9 788492 413959